

Autonomiaren Pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak

(The pedagogy of autonomy. Necessary knowlegde
for educational practice)

Freire, Paulo

BIBLID [1337-4446 (1999), 10; 9-71]

Paulo Freire, pedagogo brasildar ezagunaren azken obra honek ezin hobeki laburbidurik eskaintzen du bere bizitzako pedagogi lanaren miuna. Lehen atalean irakastearen baldintzak hitz egiten du: zorroztasuna metodikoa, hezigaien jakitearekiko errespetua, kritikotasuna, estetika, etika, hitzaren gorpuztea, bereizkeria baztertzea eta kultur identitatea berrezagutu eta asumitzeaz. Bigarren atalak, irakastea ez dela ezagutza transferitze soilia adierazten du eta ikuspegi mugatu hori gainditzeko baldintzak aipatzen ditu eta, azkenik, hirugarren atalean, irakastea giza berezitasun bat dela azpimarratzen du eta horretarako beharrezko diren gaitasunen zerrenda eskaintzen du.

Giltz-Hitzak: Pedagogia.


Esta última obra del conocido pedagogo brasileño Paulo Freire nos ofrece de forma inmejorable la esencia del trabajo pedagógico de su vida. En la primera parte nos habla de las condición de la enseñanza: rigor metodológico, respeto de los educandos por el saber, calidad crítica, estética, ética, materialización de la palabra, abandono de la discriminación y reconocimiento y asunción de la identidad cultural. En la segunda parte nos explica que la enseñanza no es una mera transferencia de conocimientos y comenta las condiciones para superar ese limitado planteamiento. En la tercera parte, finalmente, subraya que la enseñanza es un rasgo característico humano y proporciona un elenco de aptitudes necesarias para esta actividad.

Palabras Clave: Pedagogía.

Cette dernière oeuvre du fameux pédagogue brésilien Paulo Freire nous offre de façon parfaite l'essence du travail pédagogique de sa vie. Il parle, dans la première partie, des conditions de l'enseignement: rigueur méthodologique, respect des élèves pour le savoir, qualité critique, esthétique, étique, matérialisation de la parole, abandon de la discrimination et reconnaissance et prise en charge de l'identité culturelle. Dans la seconde partie il explique que l'enseignement n'est pas un simple transfert de connaissances et il commente les conditions nécessaires pour surmonter cette vision limitée. Finalement, dans la troisième partie, il souligne le fait que l'enseignement est une caractéristique propre à l'être humain et il met à notre disposition tout une série d'aptitudes indispensables à cette activité.

Mots Clés: Pédagogie.

* Itzultzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu.



Eskaintzak

Ana Maria, neure emazteari, poza eta maitasunarekin.

Paulo

Fernando Gaspariani, zeinen errebeldia-zaletasunari eta zeinen askatasunaren eta demokraziaren aldeko borrokararako prestutasunari hainbeste zor diegun.

Paulo Freire

Admardo Serafim de Oliveiraren oroitzapenez.

Paulo Freire

João Francisco de Souzaari, zeinen zentzu komuneko jakiteari zion errespetuak inoiz ez baitzuen baxista egin eta zeinen zorrotasun zientifikoari men egiteak inoiz ez baitzuen elitista bihurtu eta Inês de Souzaari, haren lagun eta adiskideari, miresmenez.

Paulo Freire

Eliete Santiagori, zeinen irakas-jardueran irakastea ez baita sekula hezitzaileak ikasleei egingdako ezagutza-transferentzia izan. Alderantziz, berarentzat irakastea abentura sortzailea da.

Paulo Freire

Salvador da Bahiako Axé Proiektuko hezigaiei eta hezitzaileei, Cesare de La Roca bere animatzaile nekagaitzaren pertsonan, nire miresmen sakonarekin.

Paulo Freire

Ângela Antunes Ciseski, Moacir Gadotti, Paulo Roberto Padilha eta Sônia Couto, Paulo Freire Institutuko kideei, neure esker onarekin Autonomiaren Pedagogia honetako kapituluak antolatzeko egindako lan bikainarengatik.

Paulo Freire

Halaber eskerrak eman nahi nizkieke Christine Röhrig eta Paz e Terrako ekoizpen eta berrikusketa-taldeari ez bakarrik honekiko baizik eta nire beste liburuekiko izan duten dedikazioarengatik.

Itzultzailearen oharra: Eskerrak eman nahi dizkiot Arantxa Ugartetxeari, P. Freireren ikasle eta adiskide handia izanari brasileratiko itzulpen hau berrikusi eta testuari buruzko zenbait ohar iradoki dizkidalako.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	13
Lehen Hitzak	15
1. Atala: Ikaskuntzarik gabe ez dago irakaskuntzarik	18
1.1. Irakasteak zorroztasun metodikoa eskatzen du	20
1.2. Irakasteak ikertzea eskatzen du	21
1.3. Irakasteak hezigaien jakiteekiko errespetua eskatzen du	21
1.4. Irakasteak kritikotasuna eskatzen du	22
1.5. Irakasteak estetika eta etika eskatzen ditu	23
1.6. Irakasteak hitzak etsenpuaren bitartez gorpuztea eskatzen du	23
1.7. Irasteak arriskua, berria dena onartzea eta edozein bereizkeria-era baztertzea eskatzen du	24
1.8. Irakasteak jarduerai buruzko gogoeta kritikoa eskatzen du	25
1.9. Irakasteak kultur identitatea berrezagutu eta asumitzea eskatzen du	26
2. Atala: Irakastea ez da ezagutza transferitzea	28
2.1. Irakasteak bukatugabetasunaren kontzientzia eskatzen du	29
2.2. Irakasteak izaki baldintzatu berrezagutzea eskatzen du.....	31
2.3. Irakasteak hezigaiaren izatearen autonomiarekiko errespetua eskatzen du.....	34
2.4. Irakasteak zentzu ona eskatzen du	34
2.5. Irakasteak umiltasuna, tolerantzia eta hezitzaileen eskubideak defenditzeko borroka eskatzen ditu.....	37
2.6. Irakasteak errealitatea atzematea eskatzen du	38
2.7. Irakasteak poza eta esperantza eskatzen ditu	39
2.8. Irakasteak aldaketa posible delakoaren konbentzimendua eskatzen du	41
2.9. Irakasteak jakinmina eskatzen du	45
3. Atala: Irakastea giza berezitasun bat da.....	47
3.1. Irakasteak ziurtasuna, gaitasun profesionala eta bihotzabaltasuna eskatzen ditu	47
3.2. Irakasteak konprometitzea eskatzen du	49
3.3. Irakasteak hezkuntza munduan esku hartzeko era bat dela ulertzea eskatzen du.....	50
3.4. Irakasteak askatasuna eta autoritatea eskatzen ditu.....	53
3.5. Irakasteak erabakiak kontzienteki hartzea eskatzen du	55
3.6. Irakasteak entzuten jakitea eskatzen du	57
3.7. Irakasteak hezkuntza ideologikoa dela berrezagutzea eskatzen du.....	62
3.8. Irakasteak elkarrizketarako prestutasuna eskatzen du	66
3.9. Irakasteak hezigaiei ongi izatea eskatzen du	68

HITZAURREA

Paulo Freire Profesorearen liburu honi hitzaurrea idaztearen erronka onartu badut berak defenditzen duen egintza hezitzaile-kritikoaren eskakizunetako batek eragin didalako izan da: bizitza eta bere deiekiko nire prestutasunaren testigantza ematearenak. Kanadan ekin nion Paulo Freire aztertzeari, Admardo, neure senarrarekin, zeini parte batean eskaini baitzaio liburu hau. Ezingo nuke hemen hitza hartu bere aipamena egin gabe, afektiboki laguntzat bera asumituz zeinekin, ibilbide posiblean, jarduera hezitzaile eraldatzaileak beharrezko dituen jakite bat baino gehiago lantzen ikasi bainuen. Eta Paulo Freireren pentsamendua izan zen, zalantzarik gabe, bere inspirazio handietako bat.

Obra honetan berrarturiko ideiek era eguneratu, arin, sortzaile, zirikatzaile, kuraiatsu eta esperantzatsuan hezitzaile eta hezigaiaren arteko gatazka eta eztabaida pizten jarraitzen duten irakaslearen eguneroko auziak erreskatatzen dituzte. Irakaslearen egunerokotasuna ikasgelean eta handik kanpora, oinarrizko hezkuntzatik posgraduaziora arte. Kodifikazio batean bezala arakutzen da hemen, jakiteen berreste-, ukatze-, sortze-, ebazte-espazio bezala, zeinek eraten baitituzte “derrigorrezko edukiak irakas-formazioaren antolakuntza programatikoan eta garapenean”. Eduki horiek, jadanik eskola-jarduerak kristaldurikoak estrapolatuz, hezitzaile aurrerakoiak, batik bat, ezin ditu alde batera utzi hemen proposatzen den autonomiaren pedagogiaren ariketan. Etikan, eta hezigaiaren duintasuna eta autonomia propioarekiko errespetuan oinarrituriko pedagogia da.

Gainerako jakiteek bezala, honek etengabeko ariketa eskatzen dio hezitzaileari. Bere ikasleekiko bizikidetzatza maitakorrean eta jarrera jakinguratsu eta irekian asumitzen du eta, aldi berean, bultzatzen ditu beren buruak asumitzera ezagutze-egintzaren subjektu sozio-historiko-kultural diren heinean, hain zuzen ere hortxe hitz egin baitezake hezigaiaren duintasuna eta autonomiarekiko errespetuaz. Hezkuntza situazio gnoseologiko gisa ulertzea ukatzen duten kontzeptzio eta praktikekiko loturak etetea aurreuposatzen du. Gaitasun tekniko-zientifikoa eta irakasleak bere lana garatzean zabartu behar ez duen zorrozotasuna ez dira hezkuntza-harremanek behar duten maitakortasunarekin uztarrezinak. Jarrera horrek lagundu egiten du ezagutza sortzearen aldeko giroa eraikitzen, non irakaslearen beldurra eta haren pertsonaren inguruan sortzen den mitoa pixkanaka desmuntatu egiten baitira. Beharrezko da koherente izaten ikastea. Ez du ezer aurreratzen diskurtso gaituak baldin eta egintza pedagogikoa aldakuntzekiko iragazkaitza bada. Krisian dauden jakite pedagogikoen esparruan, 60. hamarkadan izan ziren bezain muntadunak orain ere badiren auziak berrezartzean, Freirek, bere garaiko gizon bezala, era argikusle eta berezian, itzuli egiten ditu hezkuntza-zientzietako azterketak azken urteotan egiten ari diren ekarpenak: jakite-iturri legitimoen zabaltze eta desberdintzea eta “egiten-jakite eta izaten-jakite pedagogikoen” arteko beharrezko koherentzia.

Maila guztietan gertatzen ari den irakaslearen lanaren arintze –eta desbaliotze– une batean, autonomiaren pedagogiak irakas-jarduera ulertzeko osagaiak aurkezten dizkigu, giza formazioaren gizarte-dimentsio gisa. Alderdi hertsiki pedagogikora murrizteaz haraindi, eta bere pentsamenduaren izaera politikoak markaturik, Freirek ohartarazten digu beharrezkoa dela jarrera zelataria izatea desgizatiartze-praktika guztiekiko. Horretarako burugogoeta kritikoaren egiten-jakiteak eta etengabe baliarazitako jakituriaren izaten-jakiteak, lagundu egin diezagukete giza endekatzearen eta globalizazioaren diskurtso fatalistaren izateko arrazoiaren egiazko kausen beharrezko irakurketa kritikoa egiten.

Testuinguru horretan, zeinetan ideario neoliberalak bere baitan hartzen baititu, besteak beste, autonomia kategoria, beharrezko da, halaber, bere diskurtso ideologikoaren indarrari atentatzea, baita individualismoa eta lehiakortasuna estimulatzean, pentsamendu eta jarduera

pedagogikoan eragin ditzakeen alderantzikatzeei ere. Kontrapuntu gisa, merkatu-etika sortuz doan ondoeza salatuz, Freirek, gizon eta emakumeen konpromiso gisa solidaritatea iragartzen du, "gizakiaren etika unibertsala" sustatu eta ezartzeko gai den borroka-erretako bat bezala. Dimentsio utopiko horrek autonomiaren pedagogian dauka bere ahaltsunetako bat.

Azkenik, ezinezkoa da obra honetan sortu eta itzulitako edertasuna ez nabarmentzea. Freirek hezitzailea problematizatu eta ukitzeko daukan sentsibilitateak bere praktikaren dimentsio estetikoaren berri ematen du, hain zuzen ere horrexegatik beragatik desirak mugitu dezakeena eta pozez bizi izan daitekeena, zorrotasuna, seriotasuna eta gaitasunezko jakiteak bere baitan duen sinpletasuna alde batera utzi gabe.

Edina Castro de Oliveira
PPCF/DEFeko Hezkuntza Maistra
Hezkuntzaren Oinarrien eta Hezkuntza
Orientazioko Departamenduko Irakaslea
Vitoria, 1996ko azaroan

LEHEN HITZAK

Irakasleen prestakuntzaren auzia da testu honen gai nagusia, hezigaien izaeraren autonomiaren aldeko jarduera hezitzaile-aurrerakoiari buruzko gogoetarekin batera. Gai horri oinarrizko jakiteen azterketa gehitzen zaio, jarduera horretarako oinarrizkoak baitira, eta espero dut, irakurle kritikoak horiei gehituko dizkiola niri ihes egin didaten batzuk, edota garrantzizkoak izan arren nik kontuan hartu ez ditudan beste zenbait.

Izan ditzakedan irakurleei honako hau agertu nahi diet: nire hezitzaile-arduetan beti presente egon den gaia den neurrian, hemen tratatzen diren aspektu batzuk ez dira nire aurreko liburu batzuetan egindako analisiez bestelakoak. Ez dut uste, hala ere, liburu batean edo bestean, edo liburu beraren gorputzean, arazoak berriz aipatzeak irakurlea haserre-araziko duenik. Batez ere gaia berriz aipatzea jadanik esandakoaren errepikatze soila ez denean. Nire kasu pertsonalean auzi edo gai bat berriro aipatzeak badu zerikusia nire idatziaren ahozko markarekin. Baina badu, halaber, zerikusia aipatzen ari naizen gaiaren muntarekin, baita neure jakinmina zuzentzen diegan gauzen multzoak batzuetan duenarekin ere. Badu zerikusia, era berean, gai jakin batek beste batzuekin duenarekin, zeinak azaleratzen baitira pixkanaka nire gogoetaren garapenetik. Zentzu horretan, adibidez, berriro gizakiaren bukatu-gabetasunaren auzira hurbiltzen naiz, etengabeko bilaketa-mugimendu batean hura sarturik egotearenera, berreztabaidatu egiten dut jakinmin xalo eta kritikoa, epistemologiko bihurtuz. Zentzu horretan diot *formatzea* hezigai bere *trebetasunak* burutzeko entrenatzea baino askozaz gehiago dela diot, eta zergatik ez esan, halaber, gizonezko eta emakumezkoiei buruz interesa duen guztiarekiko neure interesaz hitz egiten dudana ia setakeriaz: gai horretatik irten eta bertara sartzen naiz lehen aldian sentitzen den gustu berarekin. Hortik dator nigan etengabe presente dagoen kritika txarria neoliberalarekiko, bere ideologia fatalistaren zinismoarekiko, eta ametsa eta utopiari egiten dien errefusate zurrunarekiko.

Hortik dator nire diskurtsoak inguratzen duen amorrutzko, bidezkoa den amorrutzko tonua, munduko erreusen zanpatzaile diren bidegabekeriak aipatzen ditudanean. Hortik dator nik inolako interesik ez agertzea, berdin dio zer ordena den, gertakarien edo jazoe-ren behatzaile inpartzial, objektibo, ziurraren jarrera hartzeko. Inoiz ezin izan ahal dut behatzaile "gristasunez" inpartziala izan, zorrozki etikoa den jarrera batetik inoiz aldendu ez nauena. Behatzaileak ikuspuntu batetik egiten du lan, baina honek ez du errakuntzan kokatzen. Egiarekiko errakuntza ez da halako ikuspuntu jakin bat edukitzea, baizik eta absolutizatu edo eta ez jakitea, nahiz eta, halaber, bere ikuspuntua ziurra izan litekeelarik arrazoi etikoa beti berarekin ez egotea.

Nire ikuspuntua "Lurreko kondenatu"ena, baztertuena da. Ez dut onartzen, hala ere, ezeren izenean, egintza terroristarik, zeren horietatik errugabeen heriotza eta gizakien segurtasun eza sortzen direlako. Terrorismoak ukatu egiten du gizakiaren *etika unibertsal* deitzen ari naizena. Arabiarrekin nago beren eskubideen aldeko borrokan, baina ezin izan nuen onartu beren egintza terroristaren txarria Municheko Olinpiadetan.

Bestalde, geure buruarentzat, irakasleontzat, azpimarratzea gustatuko litzaidake geure irakas-egitekoa burutzean dugun erantzukizun etikoa. Era berean, erantzukizun hori praktikan jartzeko beren buruak prestatzen ari direnei azpimarratu nahi nieke. Liburutxo hau beterik edo blaiturik aurkitzen da bere osotasunean beharrezkoa den etizitatearen zentzuaz, zeinak konnotatzen baitu adierazkorki jarduera hezitzailearen izaera. Hezitzaile eta hezigiak ezin dugu, egiazki, zorroztasun etikotik ihes egin, baina argi eta garbi utzi beharra dago nik aipatzen dudana etika ez dela etika txikia, murriztua, merkatukoa, lukro-interesen aurrean makurtzen dena. Nazioarte-mailan hasi da agertzen halako joera bat "mundu-ordena berria"ren erreflexu hilibizikoak natural eta itzuriezintzat hartzen dituenak. OEGen nazioarte-topaketa

batean, hizlarietako batek baieztatu zuen Lehen Munduko herrialdeetan sarri samar ari dela agertzen Hirugarren Munduko haurrak, beherako akutuaren menpean daudenak, salbatu behar ez lirakeen ideia, zeren hari egiteak miseria eta sufrimendurako bestetarako ez den bizi bat luzatzea baizik ez bailuke egingo¹. Ez naiz ari, bistakoa denez, etika horretaz. Aitzitik, gizakiaren etika unibertsalaz ari naiz. Goian aipaturiko diskurtsoaren zინismoa gaitzesten duen etikaz, gizakiaren lan-indarraren ustiapena gaitzesten duenaz, norbaitek A esan zuela B esan zuela jakinik esatea, baieztatzea, egia ez esatea, xaloa engainatzea, ahula eta babesgabea kolpatzea, ametsa eta utopia lurperatzea, promesa ez duela beteko jakinaren gainean agintzea, gezurrezko lekukotasuna ematea, besteez gaizki hitz egitearen atseginez gaizki hitz egitea akusatzea gaitzesten duenaz. Aipatzen ari naizen etika da *puritasuna puritanismo* bihurtzearen perbertsio hipokritan bezala portaera zakarki inmoraletan erabilia eta ukatua dela dakiena. Aipatzen ari naizen etika arraza, genero, klaseko agerpen diskriminaziozalean aurkitzen ez dena da. Jarduera hezitzailetik bereiztezina den etika horren alde egin behar dugu borroka eta berdin dio haur, gazte edota helduekin lanean ari garen. Horren alde borroka egiteko modurik egokiena geure jardueran bizi izatea da, eta horren lekukotasun bizia ematea, hezigaiei, beraiekiko gure erlazioetan. Irakasten ditugun edukiekin lan egiteko dugun eran, ados ez gauden, edo gauden autoreak aipatzeko dugun eran. Ezin dugu autore baten kritika haren obretakoren bat edo beste gaineratik irakurrita bakarrik egin. Okerrago oraindik, liburuen kontrazala bakarrik irakurtzen duenaren kritika doi-doi soilik eginda.

Litekeena da honako edo hango autore baten kontzepzio pedagogikoa ez onartzea eta ikasleei azaldu ere egin behar diet zergatik haien kontra jartzen naizen, baina neure kritikan gezurrik ezin dezaket esan. Haien inguruan egiak ez direnak esatea. Irakaslearen prestakuntza zientifikoak bat etorri behar du bere zuzentasun etikoarekin. Tamalgarria da bien artean desoreka sortzea. Prestakuntza zientifikoak, zuzentasun etikoa, besteenganako errespetua, koherentzia, desberdina denarekin bizi eta harengandik ikasteko gaitasuna, gure ondoeza pertsonalak edo antipatiak bestearekiko harremanetan ez uztea bere betebeharrak behar bezala betetzen ez dituelakoaz hura salarazten, izan ere horiek umilki eta iraunkorki betetzen ari izan behar baitugu.

Ez da interesgarri soilik baizik eta benetan garrantzizkoa ikasleek hautematea gertakariak ulertzean dauden desberdintasunak, irakasleen artean batzuetan jarrera antagonikoak egotea arazoak prezatzen eta soluzioak ezartzen. Baina funtsezkoa da hautematea irakasle batek besteen jarrerak analizatu eta kritikatzeko darabiltzan errespetua eta leialtasuna.

Noizean behin, testu honetan zehar, berriz ere itzuliko naiz gai horretara. Izan ere erabat sinetsirik bainago hezkuntzazko jardueraren izaera etikoaz, giza jarduera espezifikoak den heinean. Izan ere, bestalde, mundu-mailan eta ez Brasilekoan bakarrik, halako punturaino gaude merkatuaren txarkeria etikoaren agindupean makurturik, non gutxi deritzodan gizakiaren etika unibertsalaren defentsan eta praktikan egin dezakegun guztiari. Ezin ditzakegu geure buruak ardua, erabaki, haustura, aukera, subjektu historiko eraldatzailetzat hartu, geure buruan subjektu etikotzat hartuz ez bada. Zentzu horretan, printzipio etikoak haustea ahalbide bat da baina ez da bertute. Ezin dugu onartu.

Ezinezko zaio subjektu etikoari etengabe etikaren hausketan erortzeko zorian egon gabe bizi izatea. Historian dugun gure borroketako bat, horrexegatik beragatik, hauxe da hain zuzen ere: ahal dugun guztia egitea etizitatearen alde, fariseu-gustu nabarmenki aitorturiko moralismo hipokritan erori gabe. Baina era berean etizitatearen aldeko borroka horren parte da, segurtasunez, baztertzea etikaren defentsan ikusten ditugun kritikak, hain zuzen ere kriti-

1. *A fala dos Excluidos Cede*, 38 kuadernoan. GARCIA, Regina L. VALLA Victor V., 1996.

katuriko moralismo horren adierazpena. Nigan etikaren defentsak ez du bere distortsioa edo ukapena inoiz esan nahi izan.

Horregatik, gizakiaren etika unibertsalaz ari naizenean, giza izaeraren marka den heinean ari naiz etikaz, giza bizikidetzarako erabat ezinbestekoa den zerbaitez. Hori egitean ohar-turik nago, nahiz eta nire pentsamenduarekiko desleialak izan, egingo dizkidaten kritika posiblez, xalo eta idealistatzat seinalatuz. Egia esateko, gizakiaren etika unibertsalaz hitz egiten badut gehiago izateko duen bere bokazio ontologikoaz hitz egiten dudana bezalaxe ari naiz, bere burua sozialki eta historikoki eratzen duen bere izaeraz hitz egiten dudana bezala eta ez Historiaren "a priori" batez bezala. Ontologiak zaintzen duen izaera sozialki sortzen da Historian. Funtsezko konnotazio batzuekin izanbidean dagoen izaera bat da, eta horiek gabe ezinezkoa izango zatekeen giza presentzia bera ezagutzea zerbait original eta berezi bezala munduan. Esan nahi du, munduko izaki bat, gizakia Presentzia bihurtu zela munduan, munduarekin eta besteekin. Presentzia horrek, beste presentzia "ez-ni" bezala ezagutuz "nor bera" bezala ezagutzen du bere burua. Bere burua pentsatzen duen presentzia da, bere burua presentziatzat daukana, eskuhartzailea, eraldatzailea dena, egiten duenaz hitz egiten duena baina amets ere egiten duena, konstatatu, konparatu, balioetsi, baloratu, erabaki eta hautsi ere egiten duena. Beharizan etikoa erabakian, balioespenean, askatasunean, hausturan, aukeran ezartzen da, baita erantzunkizuna nagusitu ere. Etika ezinbesteko bihurtzen da eta horren haustura posiblea desbalio da, inoiz ez bertute.

Egia esan, ezin ulertuzkoa litzateke munduan nagoelako nire presentziaren kontzientziak ez balu adieraziko presentzia horren berorren eraikuntzan nire absentiaren ezinezkotasuna. Munduan dagoen presentzia kontziente gisara ezin ihes egin diezaiket erantzukizun etikoari neure munduan mugitze horretan. Determinazio genetiko edo kulturazko edo klasezkoaren emaitza hutsa baldin banaiz, ez dut erantzunkizunik munduan mugitzean egiten dudana rekiko eta erantzunkizunik ez baldin badut ez naiz etikan hitz egiteko gai. Horrek ez du esan nahi mendeko gaituzten baldintzamendu genetiko, kultural, sozialak ukatzea. Esan nahi du izaki *baldintzatuak* garela aitortzea baina ez *determinatuak*. Historia ahalbide-denbora dela eta ez determinismokoa aitortzea, etorkizuna, zilegi bekit errepikatzea, *arazotsua* dela baina ez aldaezina.

Era berean, azpimarratu beharra daukat liburu hau esperantzatsua dela, liburu baikorra, baina ez baikortasun faltsuz eta esperantza hutsalez xaloki eraikia. Horregatik, ezkerrekoak diren pertsonak bere ere esango dute, zeinentzat etorkizunak bere problematikotasuna galdu baitzuen, –etorkizuna dado jakina dela– esango dute liburua areago dela ameslari porrokatu baten aldrebeskeria.

Ez diot horrela pentsatzen duenari amorrurik. Sentitu egiten dut bere posizioa: Historia bere noranzkoa galdu duenarena.

Ideologia fatalista, zurruntzailea, diskurtso neoliberalari haizea ematen diona, solte dabil munduan barrena. Postmodernitate-itxurak harturik, ekin eta ekin ari da buruan sartu nahirik ezin dugula ezer egin errealtate sozialaren aurka, historiko eta kultural izatetik "kuasi-natural" izatera pasatzen omen denaren edo halako bihurtzen omen denaren aurka. "Errealtatea holakoxea da, zer egin dezakegu?" bezalako esaldiak edo "munduko langabezia mende-amaierako halabeharra da" bezalakoek ongi adierazten dute ideologia horren fatalismoa eta bere nahimen zurruntzaile ezinbestekoa. Ideologia horren ikuspuntutik, irtenbide bakarra dauka hezkuntza-jarduerak: aldaezina den errealtate horretara hezigaia moldatzea. Horregatik, behar dena, trebakuntza tekniko ezinbestekoa da, hezigaia molda dadin, hezigaia biziraun dezan. Irakurleengana berriro dakardan liburu hau ezezko erabakigarria da pertsona gisara ukatu eta eskasten gaituen ideologia horren aurka.

Edozein testuk badu zerbaiten premia: irakurlea era kritikoan, gero eta jakinmin handiagoarekin hartan murgiltzea. Horixe da testu honek zugandik, "Lehen Hitz" hauek irakurri dituzun horrengandik espero duena.

Paulo Freire
São Paulo. 1996ko irailean

1. ATALA. Ikaskuntzarik gabe ez dago irakaskuntzarik

Argi eta garbi utzi behar dut, nahiz eta nire interes nagusia izan testu honetan hezitzaile kritiko, aurrerakoien irakas-praktikarako ezinbestekoak diren jakiteak kontsideratzea, horietako batzuk, halaber, beharrezkoak direlarik hezitzaile kontserbadoreentzat ere. Jarduera hezitzaileak berak eskatzen dituen jakiteak dira, hezitzailearen aukera politikoa zeinahi delarik ere.

Irakurketari jarraitu ahal, irakurleari dagokio aipaturiko jakite hori edo hura jarduera aurrerakoi ala kontserbadorearen izaerari dagokion hautematearen ariketa, edota, aitzitik, jarduera hezitzailearen beraren eskakizuna den bere kolore politiko edo ideologikoaz aparte. Bestalde, azpimarratu beharra daukat, era ez-sistematikoan, jakite horietako batzuen aipamena jadanik aurreko lan batzuetan egina dudala. Sinetsirik nago, beraz, bidezkoa dela ohartaraztea honen moduko gogoeta baten garrantzia irakas-prestakuntzan eta jarduera hezitzaile kritikoan pentsatzen dudanean.

Sukaldaritzan aritzeak, esate baterako, suari buruzko jakite batzuk suposatzen ditu, nola piztu, gehiagorako edo gutxiagorako sugarra nola neurtu, sutea sortzeko egon litezkeen arrisku nahiz eta urrunekoei nola aurre egin, osagai desberdinak nola uztartu sintesi atsegin eta erakargarrian. Sukalketan aritze-jarduerak prestatu egiten du pixkanaka hasiberria, jakite horietako batzuk berretsiz, beste batzuk zuzenduz, eta sukaldari izatea ahalbidetzen du. Belaontzian ibiltzearen jarduerak oinarritzko jakite batzuk eskatzen ditu, hala nola, ontzia, osatzen duten atal bakoitza eta horietako bakoitzaren betekizuna menperatzea, baita haizeak ezagutzea, horien indarra, noranzkoa, haizeak eta belak, belen kokaera, motorren betekizuna eta motorra eta belen arteko konbinazioa. Belaontzian ibiltzearen jarduerak berretsi, aldatu edo hedatu egiten ditu jakite horiek.

Jarduerari buruzko gogoeta kritikoa eskakizun bihurtzen da eta hori gabe teoria berritsukeria eta jarduera aktibismo bihur daiteke.

Orain interesatzen zaidana da jarduera hezitzaile-kritikoari edo aurrerakoari oinarritzkoak zaizkion jakite batzuk proposatu eta lantzea, horregatik beragatik irakas-formazioaren antolakuntza programatikoan derrigorrezko edukia izan behar dutenak. Eduki horien ulerkuntza, ahal bezain argi eta garbia, jarduera prestatzailean landu behar da. Beharrezkoa da, batez ere, eta hor doa ezinbesteko jakite horietako bat, hezigaiak, bere esperientzia prestatzailearen hasieratik beretik, jakite-ekoizpenaren subjektutat ere bere burua hartuz, behin betiko sinetsi beharra dauka irakastea ez dela *ezagutza transferitzea*, baizik eta hori ekoitzi eta eraikitzeko ahalbideak sortzea.

Baldin eta neure formazioaren esperientzian, etengabea izan behar duen horretan, hasten banaiz onartzen *formatzailea* dela subjektua, zeinekiko erlazioan baitaukat neure burua *objektutat*, bera dela formatzen nauen subjektua eta neu, berak *formaturiko objektua*, subjektuak metaturiko eta niri transmititzen zaizkidan ezagutza-edukiak hartzen dituen pazienteztzat daukat neure burua. Prozesu formatzailea honela ulertu eta bizitzeko eran nik, orain objektu naizen honek, izango nuke ahalbidea, bihar, "formazioa"ren sasi-subjektu bihurtze-

koa neure egintza formatzailearen etorkizuneko objektuaren sasi-subjektu bihurtzeko aukera. Beharrezko da, aitzitik, prozesuaren hasieratik, gero eta argiago geldituz joatea, nahiz eta elkarrekiko desberdinak diren formatzailea formatu eta birformatu egiten dela formatzean eta formatua denak bere burua formatu eta izaki formatua formatu egiten duela. Zentzu horretan irakastea ez da ezagutzak, edukiak transferitzea, *formatzea*. Ezta ere ekintza horren bitartez subjektu hezitzaileak forma, estiloa edo arima ematea gorputz ezbaiti eta moldakor bati. Ez dago irakaskuntzarik ikaskuntzarik gabe, biek elkar esplikatzeko dute eta horien subjektuek, konnotatzen dituzten desberdintasunak gorabehera, ez dira bata bestearen objektu izatearen baldintzara mugatzen. Irakasten duenak irakasten ikasten du eta ikasten duenak ikasten irakasten du. Irakasten duenak norbaiti zerbait irakasten dio. Horregatik, ikuspuntu gramatikale-tik, irakatsi aditza aditz iragankor-erlatiboa da. Osagarri *zuzena –gauzaren bat– eta zehar-objektu bat –norbaiti–* eskatzen duen aditza. Kokatzen naizen ikuspuntu demokratikotik, baina baita kokatzen naizen radikalitate metafisikoaren ikuspuntutik ere, eta hortik dario gizonezkoa eta emakumezkoaren nire ezagutza izaki historiko eta bukatugabe gisara, eta zeinen gainean oinarritzen baita ezagutze-prozesuaren nire ulerkuntza –irakastea aditz iragankor-erlatibo bat baino zerbait gehiago da. Irakastea ezinezkoa da ikasterik gabe eta alderantziz, eta sozialki ikasiz aurkitu zuten gizonezko eta emakumezkoek, historikoki, posible zela irakastea. Horrela gertatu zen, sozialki ikasiz, denboretan zehar gizonezko eta emakumezkoek hautematea posible zela –gero beharrezko– irakasteko erak, bideak, metodoak lantzea. Ikastea irakastearen aurrekoa zen, beste hitz batzuetan, irakastea diluitu egiten zen ikastearen esperientzia egiazki fundatzailean. Ez dut beldurrik esateko irakaskuntzan ez dagoela baliorik, baldin eta ikaskuntzarik eragiten ez badu, zeinetan ikaslea ez baita gai irakatsia birsortu edo berregiteko, zeinetan irakatsitakoa ikasia ez baita izan, ikasleak ezin baitu errealki ikasi.

Irakaste-ikastearen jarduerak eskaturiko benetakotasuna bizi dugunean esperientzia gutzizko, gidatzaile, politiko, ideologiko, gnoseologiko, pedagogiko, estetiko eta etiko batean esku hartzen dugu, zeinetan edertasuna eskuz esku aurkitu behar baita duintasun eta serio-tasunarekin.

Batzuetan, itxuraz galtzen naizen neure isilaldietan, lotura gabe, ia zabuka, pentsatzen aritzen naiz zeinen garrantzi handia duen emakume eta gizonontzat, François Jacob-ek adierazten duenez, “programaturiko, baina ikasteko” izateak².

Izan ere ikas-prozesua, zeinetan historikoki aurkitzen baitugu posible zela irakastea ez doi-doi ikastearen inbututuriko eginkizun gisa, baizik bere baitan profilatua, ikastearekiko erlazioan, ikaslearengan gero eta jakinmin handiagoa pizt dezakeen prozesua da, gero eta sortzaileago bihur dezakeena. Zera esan nahi dut: zenbat eta kritikoago ikasmena burutu, hainbat gehiago eraiki eta garatzen da “jakinmin epistemologiko”³ deitu izan dudana eta hori gabe ez dugu objektuaren benetako ezagutza lortzen.

Honek garamatza, alde batetik, irakaskuntza “bankario”a⁴ kritikatu eta errefusatzeraz, eta bestetik, hori gorabehera, bere menpean daukan hezigaia ez dagoela iraungitzera beharturik ulertzeraz; irakaskuntza “bankarioa”, hezitzailearen eta hezigiaren beharrezko sormena deformatzen duena gorabehera, horren menpean dagoen hezigaia gai da, ez transferitu zaion “ezagutza”ren edukiaren kausaz, baizik eta ikaste-prozesuaren beraren kausaz, gainetik bira emateko, hitz egiteko era arruntean esaten denez, eta “bankarismo”aren autoritarismoa eta errakuntza epistemologikoa gainditzeko.

2. JACOB, François. Nous Sommes Programmés, mais pour apprendre. Le Courrier, UNESCO, febreiro, 1991.

3. FREIRE, Paulo. À sombra desta mangueira. São Paulo, Olho d'água, 1995.

4. FREIRE, Paulo, *Pedagogia do oprimido*. Rio de Janeiro, Paz e Terra.

Beharrezkoa da, nahiz eta jarduera "bankarioa"ren mendean egon, hezigaiak bizirik eustea bere baitako errebeldia-zaletasunari, eta bere jakinmina akuilatuz eta arriskatzeko, abenturatzeko gaitasuna estimulatuz, nolabait "inmunizatzea" "bankarismoa"ren ahalmen pasibotzailearen aurka. Kasu horretan, ikastearen indar sortzaileak, zeinen parte baitira konparaketa, errepikapena, konstatazioa, zalantza errebeldia, erraz asetzen ez den jakinmina, irakaste faltsuaren ondorio negatiboak gainditzen dituena. Hauxe da gizakion abantaila esan-guratsuenetako bat –bere baldintzetatik harantzago joateko gaiturik egotea. Horrek ez du esan nahi, hala ere, berdin zaigunik hezitzaile "bankario" edo hezitzaile "problematizatzaile" izatea.

1.1. IRAKASTEAK ZORROZTASUN METODIKOA ESKATZEN DU

Hezitzaile demokratikoak ezin dio uko egin, bere irakas-jardueran, hezigaiaren gaitasun kritikoa, jakinmina, intsumisioa errebortxatzeko eginbeharrari. Bere eginkizun nagusietako du hezigaiarekin zorroztasun metodikoa lantzea, zeinekin "hurbildu" behar baitute objektu ezagugarrietara. Zorroztasun metodiko horrek ez du inolako zerikusirik objektuaren edo edukiaren profilaren diskurtso "bankario" transferitzaile hutsarekin. Hain zuzen ere, zentzu horretan ez da "agortzen" objektuaren edo azalkiro egindako edukiaren "tratamendua", baizik eta luzatu egi-ten da kritikoki ikastea ahalbidetzen duten baldintzen ekoizpenean. Eta baldintza horiek hezi-tzaile eta hezigai sortzaile, zirikatzaile, egonezin, zorrozki jakinzale, umil eta iraunkorrak inplikatzeko edo eskatzen dituzte. Kritikoki ikastea posible delako baldintzen osagai da hezi-gaiaren aldetik auresuposizioa izatea hezitzaileak izan duela edo oraindik izaten jarraitzen duela jakite batzuk ekoiztearen esperientzia eta horiek ezin zaizkiela beroriei, hezigaiari, beste-rik gabe transferitu. Aitzitik, egiazko ikaskuntza-baldintzetan hezigaiak jakite irakatsia eraiki eta berreraikitzearen subjektu errealek bihurtuz doaz, hezitzailearen, era berean prozesuaren sub-jektu den horren ondoan. Horrela bakarrik hitz egin dezakegu benetan jakite irakatsiaz, zeine-tan objektu irakatsia bere izate-arrazoian atzeman eta, ondorioz, hezigaiak ikasten baitute.

Horrela, hautematen da hezitzailearen egitekoaren garrantzia, bakearen meritua, zeine-kin bizi baitu bere ikas-atazaren parte den ziurtasuna, ez edukiak irakaste soila bakarrik, baita ziur pentsatzen irakastea ere. Hortik irakasle kritiko bihurtzeko ezintasuna, baldin eta memorizatzaile, esaldien eta ideia bizigabeen errepikatzaile kadentziatsua areago bada erronkalari baina. Intelektual memorizatzailea, ordu luzetan irakurtzen aritzen dena, testuaren morroi bihurtuz, arriskatzeko beldurrez, bere irakurketez mintzatzen da zerbait buruz errezita-tzen ari bailitzan –ez du hautematen, egiazki egon badagoenean, inolako erlaziorik irakurtzen duen horren eta bere herrialdean, hirian, auzoan gertatzen ari denaren artean. Zehaztasunez errepikatzen du irakurritakoa baina nekez entseatzeko edo ezer pertsonalik. Polito mintzatzen da dialektikaz baina pentsaera mekanizista du. Pentsaera erratua du. Hainbeste denbora eskaintzen dien liburu irakurriek bere munduko errealtatearekin batere zerikusirik ez balute bezala da. Horiek zerikusia duen errealtatea errealtate idealizatua da, konkretutik desko-nektatua, hor gero eta emanagoa dagoen eskola bihurtuz.

Ez da ezer kritikoki irakurtzen, baldin eta hori egitean merkatalgaiak handizka erosten direnean bezala jokatzeko bada. Hogeia, hogeita hamar liburu irakurri. Egiazko irakurketak berehalatik konprometitzen nau ematen zaidan eta neu ematen natzaion testuarekin, zeinen oinarritzko ulerkuntzaren subjektu ere bihurtuz bainoa. Irakurtzean ez naiz testuaren ulertze soilean gelditzen, bere egilearen ekoizkina ez balitz bezala. Irakurtzeko modu biziari horrek ez du zerikusirik, horrexegatik beragatik, ziur pentsatzearekin, zuzen irakastearekin. Ziur pentsatzen duenak, batzuetan, oker pentsatzen badu ere, horrek bakarrik irakats dezake ziur pentsatzen.

Ziur pentsatzearen baldintzetako bat da geure ziurtasunez ziurregi ez egotea. Horregatik, ziur pentsatzea, beti purutasunaren ondoan eta puritanismotik derrigor urrundurik, zorrozki etiko eta edertasunaren sortzaile, ezin bateratuzkoa iruditzen zait bere buruaz beterik aurkitzen denaren arranditasunaren lotsagabekeriarekin.

Ziur pentsatzen duen irakasleak agerian uzten die hezigaiei munduan eta munduarekin, izaki historiko gisara, egoteko gure moduaren edertasunetako bat dela, munduan esku hartuz mundua ezagutzeko gaitasuna. Baina gu bezala historiko izaki, munduarekiko gure eza-gutzak historizitatea du. Izaki ekoiztuan, ezagutza berriak gainditu egiten du lehen berria izan eta zahartzen ari den beste bat eta bihar beste batek gainditua izateko bere burua "prestatzen" ari da⁵. Hortik dator hain oinarritzkoa izatea egon badagoen ezagutza ezagutzea, baita irekita gaudela jakitea ere orain egon ez dagoen ezagutza ekoizteko. Irakasteak, ikasteak eta ikertzeak ziklo gnoseologikoaren bi une horiei aurre egin behar die: jadanik badagoen ezagutza irakatsi eta ikasten duenari, eta oraindik egon ez dagoen ezagutza ekoizteko lan egiten duenari. Ikas/irakaskuntza (dodiscencia) eta ikerketa, dikotomizaezinak, horrela, ziklo gnoseologikoaren une horiek eskaturiko praktikak dira.

1.2. IRAKASTEAK IKERTZEA ESKATZEN DU

Ez dago irakaskuntzarik ikerketarik gabe, ezta ikerketarik irakaskuntzarik gabe⁶. Egiteko horiek bata bestearen baitan aurkitzen dira. Irakasten ari naizen heinean bilatzen, berraztertzen jarraitzen dut. Bila nabilelako irakasten dut, ikertu dudalako, ikertzen ari naizelako, baita neure burua ere. Konstatatzeko ikertzen dut, konstatatuz, esku hartzen dut, eta esku hartuz hezi egiten dut, baita neure burua ere. Oraindik ezagutzen ez dudana ezagutzeko ikertzen dut eta berritasuna komunikatu edo iragartzeko.

Ziur pentsatzea, termino kritikotan, ziklo gnoseologikoaren uneek jakinminari ezartzen dioten eskakizun bat da, metodikoki gero eta zorrotzago bihurtuz doana, xalotasunetik, nik deitzen diodan "jakinmin epistemologikora" iraganez. Jakinmin xaloak, zalantzarik gabe halako jakite bat sortarazten duena, ez dio axola metodikoki zorrotzasunik gabea izatea, horrek ezaugarritzen du zentzu komuna. Esperientzia hutsez egindako jakitea. Ziur pentsatzeak, irakaslearen ikuspegitik, hainbat inplikatzeko zentzu komunarekiko errespetua bere ezinbesteko gainditze-prozesuan nola hezigaiaren sortze-gaitasunarekiko errespetua eta estimulua. Hezitzailearen konpromisoa inplikatzeko du hezigaiaren kontzientzia kritikoarekiko, zein xalotasunetik "sustatzea" ez baita automatikoki egiten.

1.3. IRAKASTEAK HEZIGAIEN JAKITEEKIKO ERRESPETUA ESKATZEN DU

Horrexegatik ziur pentsatzeak ezartzen dio irakasleari edo, zabalago, eskolari ez bakarrik hezigaiek, batez ere klase herritarrek bertara dakartzaten jakiteak –jarduera komunitarioan sozialki eraikitako jakiteak– errespetatzeko betebeharra, baita, hogeita hamar urtez baino gehiagoz esaten ari naizenez, ikasleekin jakite horietako batzuen izateko arrazoia eztabaidatzekoa ere edukien irakaskuntzarekiko erlazioan. Zeren ikasleek agintari publikoek zaindu

5. Hori dela eta, ikusi Vieira Pinto Álvaro, *Ciência e Existência*. Rio de Janeiro, Paz e Terra, 1969.

6. Gaur egun, behin eta berriz hitz egiten da irakasle ikertzaileaz. Nire aburuz irakaslearengan dagoen ikertzailetasuna ez da kalitate bat edo izan edo jarduteko era bat irakasteari gehitzen zaiona. Ikerketa, bilaketa, miaketa irakas-jardueraren izaeraren parte da. Behar dena da, irakaslea, bere etengabeko prestakuntzan konturatzea eta irakasle delako ikertzaile delakoa bereganatzea.

gabeko hiriko guneetan bizi behar izatearen esperientzia ez aprobetxatzea, esate baterako, ibaien eta mendateen satsudura, biztanlerien ongizate-maila apala, zaborrak eta jendearen osasunari jartzen dizkieten arriskuak. Zergatik ez dago zaborrarik auzategi aberatsen baitan, erdigunetik urrundurik daudenetan beraietan ere? Galdera hau bere baitan demagogikotzat hartzen da eta egiten duenaren borondate txarraren adierazgarritzat. Subertsibo-galdera da, diote demokraziaren defenditzaile jakin batzuek.

Zergatik ez eztabaidatu ikasleekin errealtate konkretua, zeini lotu behar baita irakasten den edukiaren diziplina, errealtate erasokorra, zeinetan biolentzia iraunkorra baita eta pertsonen arteko bizikidetzaz askozaz handiagoa baita heriotzarekin bizitzarekin baino? Zergatik ez ezarri beharrezko "intimidade" bat oinarrizko jakite kurrikularren eta berek norbanako gisara duten gizarte-esperientziaren artean? Zergatik ez eztabaidatu agintariek hiriko gune behar-tsuekiko ageri duten horrelako zabarkeriaren inplikazio politiko eta ideologikoak. Zabarkeria horren baitan dagoen klase-etika? Zeren, hezitzaile atzerakoiki pragmatiko batek esango du, eskolak ez duela inolako zerikusirik horrekin. Eskola ez dela alderdia. Eskolak edukiak irakatsi behar dituela, haiek ikasleei helarazi. Ikasi ondoren, haiek berenez jarduten dutela.

1.4. IRAKASTEAK KRITIKOTASUNA ESKATZEN DU

Ez dago niretzat, desberdintasunean eta "distantzian" xalotasunaren eta kritikotasunaren artean, esperientzia hutsez egindako jakitearen eta prozedura metodikoki zorrotzetatik sortzen denaren artean, hausturarik, gaingiditze bat baizik. Gaingiditzea, eta ez haustura gertatzen da jakinmin xaloa, jakinmin izateari utzi gabe, aitzitik, jakinmin izaten jarrituz, kritikotzen den heinean. Kritikotzean, zilegi bekit berriz esatea, jakinmin epistemologiko bihurtuz orduan, metodikoki "zorrotzuz" objektuarekiko bere hurbiltzean, bere aurkikuntzak zehaztasun handiagoz konnotatuz.

Egia esateko, jakinmin xaloa, "desarmaturik", zentzu komunezko jakiteari loturik dagoena, jakinmin bera da, kritikotuz, gero eta modu zorrozkiago metodikoan objektu ezagugarrira hurbilduz, jakinmin epistemologiko bihurtzen da. Aldatu egiten da kualitatez baina ez esentziaz. Baserritarren jakinmina, zeinekin ari izan bainaiz elkarrizketan neure esperientzia politiko-pedagogikoan zehar, fatalistak edo errebelde zirelarik bidegabekerien biolentziaren aurrean, jakinmin bera da, "ez-nien" aurrean irekidura gutxi-asko txunditua den heinean, zeinekin zientzialariek eta filosofo akademikoek "miresten" baitute mundua. Zientzialariek eta filosofoek gaingiditu egiten dute, haatik, baserritarraren jakinminaren xalotasuna eta epistemologikoki jakinguratsu bihurtzen dira.

Jakinmina egonezin ikertzaile gisara, zerbait desestaltzeko joera bezala, galdera berbalizatu edo berbalizatu gabe gisara, argitzapen-bilaketa bezala, erne jartzen duen arreata-seinale gisara bizi-fenomenoaren osagai da. Ez legoke sormenik mugitzen gaituen eta egin ez genuen munduaren aurrean pazienteki inpaziente jartzen gaituen jakinminik gabe, egiten dugun zerbait hari erantsiz.

Bizi-esperientzian presente dagoen agerpen gisara, giza jakinmina historikoki eta sozialki eraikia eta berreraikia da. Hain zuzen ere xalotasunaren sustapena kritikotasunerako ez delako automatikoki gertatzen, jarduera hezitzaile-aurrerakoaren atazarik garrantzitsuenetako bat jakinmin kritiko, aseezin, menperagaitza garatzea da. Jakinmin horrekin babes ditza-kegu geure buruak guztiz teknologizaturiko gure garaiotako halako "razionalitate"-gehiegi bati darizkion edota berak sorturiko "irrazionalitate"etatik. Eta ez dago kontsiderazio honetan inolako ateraldi faltsuki humanistatik teknologia eta zientzia ukatzeko. Aitzitik, alde batetik, teknologia jainkotzen ez duen, eta bestetik, deabrutzen ez duen baten kontsiderazioa da. Era kritikoki jakinguratsuan begiesten eta zelatatu ere egiten duenarena.

1.5. IRAKASTEAK ESTETIKA ETA ETIKA ESKATZEN DITU

Xalotasunetik kritikotasunerako derrigorrezko sustapena ez da egin behar prestakuntza etiko zorrotz batetik urrundurik, estetikatik bazter beti. Gisakotasunak eta edertasunak elkarri eskua emanda. Gero eta sinetsiago nago, puritanismoaren desbidean errebelatzeko posibilitatearekiko beti erne, hezkuntza-jarduerak dezentzia eta garbitasunezko lekukotasun zorrotza izan behar du bere baitan. Tentatzen gaituzten desbideratze errazekiko kritika etengabea, batzuetan edo ia beti egiazko bideek ezar diezazkiguketean zailtasunak alde batera uztera tentatzen baikaituzte. Emakumezko eta gizonezkoak, izaki historiko-sozialak, konparatu, balioetsi, esku hartu, hautatu, erabaki, hautsi egiteko gai bihurtzen gara, horregatik guztia-rengatik, izaki etiko bihurtzen gara. Izaten ari garelako gara. Izaten ari izatea da, gure artean, izateko baldintza. Ezinezkoa da gizakiengan pentsatzea etikatik urrundurik, askozaz gutxiago hartatik kanpo. Etikatik urrun, edota, okerrago dena, kanpo egotea, gure artean, emakumezko eta gizonezkoen artean, transgresio bat da. Eta horregatik esperientzia hezitzailea trebaketa tekniko huts bihurtzea ariketa hezitzaileak daukan funtsezko giza alderdia kaxkartzea da: bere izaera formatzailea hain zuzen ere. Gizakiaren izaera errespetatzen bada, edukien irakaskuntza ezin daiteke gerta hezigaiaren prestakuntza moralaz aparte. Hezitzea funtsean formatzea da. Teknologia edo zientzia jainkotzea edo deabrutzea⁷ erratuki pentsatzeko era oso negatibo eta arriskutsua da. Ikasleei errakuntza biribil baten testigantza, batzuetan egia-aren jabe denaren itxura guztiarekin, ematekoa. Aitzitik, ziur pentsatzeak, sakontasuna eskatzen du eta ez azakeria gertakariaren ulerkuntza eta interpretazioan. Aurkitutako berrikusteko prest egotea suposatzen du, ez du onartzen doi-doi aukeraz, apreziazioz aldatzeko ahalbidea, baizik eta hori egiteko eskubidea. Baina printzipio etikoez kanpo ziur pentsatzerik ez dagoenez gero, baldin eta aldatzea ahalbidea eta eskubidea bada, aldatzen denari badagokio –ziur pentsatzeak hori eskatzen du– obraturiko aldakuntza bere baitan hartzea. Ziur pentsatzearen ikuspuntutik ezinezkoa da aldatu eta aldatu ez balitz bezalakoa egitea. Izan ere, pentsatze ziur oro errotik koherentea baita.

1.6. IRAKASTEAK HITZAK ETSENPLUAREN BITARTEZ GORPUZTEA ESKATZEN DU

Benetan irakasten duen irakasleak, hau da, ziur pentsatzearen zorrotzasun-esparruan edukiekin lan egiten duenak, ukatu egiten du, faltsutat, “egin beza agintzen dudana eta ez neuk egiten dudana” fariseu-formula. Ziur pentsatzen duena asperturik dago etsenpluaren gorpuztasuna falta zaien hitzak gutxi edo ia ezer ez dutela balio jakiteaz. Ziur pentsatzea ziur egitea da.

Zer pentsa dezakete ikasle serioek irakasle batez orain bi seihileko, ia suhartasunez hitz egiten ari baitzen herri-klaseen autonomiaren aldeko borrokaren premiaz eta gaur, ez dela aldatu esanez, ametsen aurkako diskurtso pragmatikoa egiten baitu eta irakaslearengandik ikaslearenganako jakitearen transferentzia praktikatzen duenari?! Zer esan liteke garai batean ezkerrekoa zen maistrak eta langile-klasearen prestakuntza defenditzen baituzen eta gaur pragmatikoa izaki, aski baitu, fatalismo neoliberalaren menpean makurturik, langilearen trebakuntza hutsarekin, nahiz eta aurerrakoa dela behin eta berriz errepikatu?

Ez dago ziur pentsatzerik testigantzazko jarduera batetik kanpo, berresan egiten baitu des-esan beharrean. Ezinezko zaio irakasleari pentsatzea ziur pentsatzen ari dela eta aldi berean ikasleari galdetzea ea badakien “norekin ari den hitz egiten”.

7. Hori dela eta, ikusi Postman, Neil. *Technopoly – The Surrender of Culture to Technology*, New York, Alfred A. Knopf, 1992.

Ziur pentsatzen duenaren eta argudiaketan segurtasuna benetan bilatzen ari denaren giroa da, nahiz eta ados ez egon aurkariarekin, neurritz kanpoko amorru bat, sarritan desadostasunerako arrazoiarena bera baino ere handiagoa, haren aurka zertan eduki ez duenarena. Neurritz kanpoko amorrua zuen pertsona horietako batek alfabetakuntza eta hiritartasunaz hitzaldi bat prestatzen ari zen ikasle bati nire lanak irakurtzea debekatu zion. “Bazen” esan zuen ni nintzen objektua zorrotzasun eta neutraltasunez tratatzen ari denaren itxurak eginez. “Gizon horren edozein irakurketa egin dezakezula ere kalte egin diezazuke”. Horrela ez da ziur pentsatzen eta horrela ez da ziur irakasten⁸. Ziur pentsatzearen parte izaten da eskuza-baltasunerako zaletasuna, amorrua izateko eskubidea duela ukatu gabe, amorru kontrolga-betik bereizten duena.

1.7. IRAKASTEAK ARRISKUA, BERRIA DENA ONARTZEA ETA EDOZEIN BEREIZKERIA-ERA BAZTERTZEA ESKATZEN DU

Berezkoa du ziur pentsatzeak arriskurako prestutasuna, berria denaren onarpena, berria delako soilik ukatu eta hartzerik ez baitago, zaharra dena baztertzeke irizpidea kronologiko soila ez den bezalaxe. Bere balioari eusten dionak, edo tradizio bat haragitzen duenak, edo denboran presentzia bat markatzen duenak berri dirau.

Halaber, ziur pentsatzearen parte da edozein bereizkeria modurik erabakigarrienean baztertzea. Arraza, klase, generozko jarduera aurreiritzizkoak irain egiten dio gizakiaren substantibitateari eta errotik ukatzen du demokrazia. Bai urrun aurkitzen garelako horretatik haurrak kalean, eta beren eskubideen alde borrokan ari diren nekazariak hiltzen dituztenen beltzak diskriminatzen dituztenen, emakumeak gutxiesten dituztenen inpunitatea bizi dugunean. Bai urrun aurkitzen direla demokraziatik beltzen elizak erretzen dituztenak, beltzek ari-marik ez dutelako, noski. Beltzek ez dute errezatzen. Beren belztasunarekin beltzek zikindu egiten dute otoitzen zurtasuna... Niri pena ematen dit eta ez amorrua, ikusten dudanean hori egiten den, beltzen elizak erretzen diren gizarteetako zurtasuna demokraziaren pedagogotzat munduari nolako harrotasunarekin aurkezten zaion. Erratuki pentsatu eta jarduteak, antza denez, ez du inola ere zerikusirik ziur pentsatzeak eskatzen duen umiltasunarekin. Ez du batera zerikusirik gure exajerazioak arautzen, eta erridikulua eta zentzugabekariaraino gure ibilerak eragozten dituen zentzu onarekin.

Batzuetan, beldur naiz irakurleren batek, nahiz eta oraindik ez egon “pragmatismo” neoliberalera konbertiturik, baina bai hark ukitua, ez ote duen esango, ameslari honek, aingeruen hezkuntzaz hitz egiten jarraitzen duela eta ez emakumezko eta gizonezkoenaz. Orain arte esandakoak, hala ere, errotiko errespetua esan nahi du emakumezko eta gizonezkoen izaeraz. Bere burua sozialki eta historikoki eratzen ari den izaera bezala ulertua eta ez Historiaren “a priori” bat bezala⁹.

Niri aurkezten zaidan arazoa da, giza izaera ulertzen dudana bezala ulerturik, kontraesan gordina izango litzatekeela defenditzen ari naizena ez defenditzea. Neure buruari ziur pentsatzeko jartzen diodan eskakizunaren parte da, testu hau idazten ari naizenean pentsatzen ari naizen bezala pentsatzea. Esate baterako, edukien irakaskuntzarekin batera ziur pentsatzen irakastearen parez pare ez dela ziur jardutearen eta hartatik bakanduriko pentsatzearen formalki aurreko bat. Zentzu horretan ziur pentsatzen irakastea ez da esperientzia bat, zeinean –ziur pentsatzea– bere baitan hartzen baita eta hartaz hitz egiten baita, eta deskribatu soilik

8. Ikusi FREIRE, Paulo, *Cartas a Cristina*. Paz e Terra, 1995, Décima Sexta Carta, 207 or.

9. FREIRE, Paulo. *Pedagogia da Esperança*. Paz e Terra, 1994.

egiten den jarduera bat, baizik eta egin eta bizitzen den zerbait horretaz testigantzaren indarrarekin hitz egiten den heinean. Ziur pentsatzeak inplikatzeko du subjektuen existentzia, zeinek objektuaren edo objetuen bitartez pentsatzen baitute, zeinen baitan eragina baitu subjektuen pentsatzeak berak. Ziur pentsatzea ez da isolatzen denaren egitekoa, bakartasunean bere burua "ixten" duenarena, baizik eta komunikazio-egintza bat. Horrexegatik hain zuzen ere ez dago pentsatzerik aditzerik gabe eta aditzea, ziur pentsatzearen ikuspegitik, ez da transferitzen partekatu baizik. Baldin eta gramatikaren ikuspuntutik, ulertu aditza iragankorra bada, ziur pentsatzearen "sintaxia"ri dagokionez beti bestea baten partaide-kidea den subjektudun aditz bat da. Aditze orok, ez badago mekanizistaki "landua", "burokratizata" deitzen dudana gogamen mota bereziko eta mehatxukiro gero eta komunago baten "zainketa" besterentzaille baten menpean jarrita ez badago, komunikagaitasuna inplikatzeko du derrigor. Ez dago aditzerik – baldin eta aditzearen prozesua bera bihurturik ez badago behintzat – aldi berean adituaren *komunikazio* ez denik. Ziur pentsatzen duen subjektuaren ataza handia ez da *transferitu*, *gordailutu*, *eskaini*, besteari *ematea*, bere pentsatzearen pazientetzat harturik, gaitzen, gertakarien, kontzeptuen adigarritasuna. Ziur pentsatzen duen hezitzailearen ataza koherentea da, gizaki bezala aditzearen jarduera bazterrezina praktikatu, komunikatzen den eta dion hezigaiari erronka egitea, komunikatzen zaionaren ulerkuntza harengan sortzea. Ez dago adigarritasunik komunikazio eta elkarren arteko komunikazio ez denik eta dialogikotasunean oinarritzen ez denik. Horregatik ziur pentsatzea dialogikoa da eta ez polemikoa.

1.8. IRAKASTEAK JARDUERARI BURUZKO GOGOETA KRITIKOA ESKATZEN DU

Ziur pentsatzeak badaki, adibidez, datu emandakotik bezala hartatik abiatzeak ez duela irakas-jarduera kritikoa eraten, baina era berean badaki hura gabe ere ez dela hori oinarritzen ere. Irakas-jarduera kritikoa, bere baitan ziur pentsatzea duenak mugimendu dinamiko, dialektikoa biltzen du egitearen eta egiteari buruzko pentsatzearen artean. Irakas-jarduera berezkoak edo ia-berezko, "desarmatu"ak inolako zalantzarik gabe sortzen duena jakite xaloa da, esperientziaz egindako jakitea, subjektuaren jakinmin epistemologikoa ezaugarritzen duen zorrotzasun metodikoa falta zaiona. Hori ez da ziur pentsatzearen zorrotzasunak bilatzen duena. Horregatik, funtsezkoa da irakas-prestakuntzaren praktikan, hezitzailegaiak bere baitan hartzea, ezinbesteko ziur pentsatzea ez dela jainkoen emaria eta ez dela aurkitzen boterearen erdigunetik intelektual argiztatuek idazten dituzten gida-liburuetan ere, baizik, aitzitik, xaloa gainditzen duen ziur pentsatzea aprendizak berak sortu behar duela irakasle hezitzailearekiko elkartasunean. Beharrezko da, bestalde, behin eta berriz esatea ziur pentsatzearen matriza kritikoarena bezala *jakinmina* bera dela, bizi-fenomenoa beraren ezaugarria den hori. Zentzu horretan, inolako zalantzarik gabe, Pernambuco¹⁰ barrualdean lego deituriko irakaslea A edo B Unibertsitateko Hezkuntza Filosofikoa irakaslea bezain jakin-guratsua da. Zera behar da, ordea, nor bere baitara bilduz, jarduerari buruzko gogoetaren bitartez ahalbidetzea jakinmin xaloa, halakotzat hautemanik, pixkanaka kritikoa bihurtzea.

Horregatik, irakasleentzako prestakuntzan, oinarritzeko unea jarduerari buruzko gogoeta kritikoa izatea da. Eta gaurko edo behialako jarduera kritikoki pentsatuz hobe daiteke hurrengo jarduera. Diskurtso teorikoa berak, gogoeta kritikoa beharrezko zaionak, halako punturaino izan behar du konkretua, non jarduerarekin bat egingo den. Bere "urruntze" epistemologikoa jardueratik, bere analisiaren objektu den heinean, hartatik ahalik eta gehien "hurbildu" behar du. Zenbat eta hobeto egin eragiketa hori hainbat ulerkuntza gehiago irabazten du jardueraz analisisan eta komunikagaitasun handiagoa burutzen du zorrotzasunaren bitartez xalotasuna gainditzeari dagokionez. Bestalde, zenbat eta gehiago asumitu neure

10. Brasilgo Iparraldeko lurraldea, Freireren jatorria.

burua izaten ari naizen bezala edo horrelakoa izateko arrazoa edo arrazoiak hautematen ditudan, hainbat gaiago naiz aldatzeko, neure burua sustatzeko, hala behar izanez gero, jakinmin xalozko egoeratik jakinmin epistemologikokora. Ezinezkoa da subjektuak bere buruaz egiten duen asumitzea izateko halako era jakin batean aldatzeko prestutasunik gabe. Aldatzeko eta zeinen prozesuaren subjektu ere bihurtzen baita derrigor.

Hala ere exajerazio idealista izango litzateke baieztatzea tabakoa erretzeak nire bizia arriskuan jartzen duela onartzeak besterik gabe erretzeari uztea esan nahi duela. Baina erretzeari uztea, zentzuren batean, erretzean dudan arriskua onartzetik pasatzen da. Bestalde, asumitzea gero eta asumitzeago bihurtzen da aukera berriak sortzen dituen heinean, haustura, erabakia eta konpromiso berriak sortzen dituelako hain zuzen ere. Zigarroak sortaraz dieza(zki)dakeen kaltea edo kalteak asumitzen ditudanean, kalteak eragoztearen zentzuan mugitzen naiz. Erabaki, hautsi, aukeratu egiten dut. Baina ez erretzearen jardueran gauzaten da materialki erretzeagatik dudan arriskua asumitzea.

Uste dut badela oraindik funtsezko elementu bat aipatzen ari naizen asumitzea horretan: emozionala. Keak egiten didan kalteaz dudan ezagutzaz gainera, badut orain, hartaz egiten dudan asumitzean, kearekiko amorru bidezko bat. Eta badut poza ere amorrua sentitu izanarena, zeren, barrenean munduan luzaroago irauten lagundu baitit. Erraturik dago bidezkoa amorruan¹¹ berrezagutzen ez duen hezkuntza bidegabekeriaren aurka, desleialkeriaren aurka, maitasunik ezaren aurka, ustiapen eta biolentziaren aurka protestatzen duen amorruan paper nagusiki formatzailea. Baina gauza bat ezin du amorruak, berresten duten mugak galduz, amorrukerian galtzea gorrotoan luzatzeko arriskua baitu beti.

1.9. IRAKASTEAK KULTUR IDENTITATEA BERREZAGUTU ETA ASUMITZEA ESKATZEN DU

Interesgarria da zertxobait hedatzea asumitzeari buruzko gogoeta. Asumitu aditza iragankorra da eta horrela bere burua asumitzen duen subjektua bera objektutat eduki dezakeena. Nik hainbat asumitzen dut erretzean dudan arriskua asumitze horren berorren subjektutat neure burua asumitzen dudan heinean. Argi eta garbi utz dezagun, funtsezkoa dela diodanean erretzeari uzteko erretzeak nire bizia arriskuan jartzen duela asumitzea, asumitze horrekin batez ere aipatu nahi dut erretzeaz eta horren ondorioz lortu dudan ezagutza zinezkoa. Badu beste zentzu erradikalagoa asumitzeak hau esatean: Ataza hezitzaile-kritikokiak duena baldintzak sortzen laguntzea da hezigaiek elkarrekiko harremanetan eta guztiek irakaslearekiko beren buruak asumitzeko esperientzia sakona entseatzeko baitute. Izaki sozial eta historiko gisara nork bere burua asumitzea, izaki pentsatzaile, komunikatzaile, eraldatzaile, sortzaile, amesgile, amorrua sentitzeko gai izatea maitatzeko ere gai delako. Subjektutat nork bere burua asumitzea objektutat nork bere burua berrezagutzeko gaitasuna duelako. Geure buruak asumitzeak ez du esan nahi besteak baztertzeari, "Ez-ni"aren "bestetasunak" edo *zu*-ak asumiarazten dit neure *ni*aren radikaltasuna.

Kultur identitatearen auzia, zeinen parte baita hezigiaren dimentsio indibidual eta klasekoa, eta zeinen errespetua guztiz oinarritzeko baita jarduera hezitzaile aurrerakoian, gutxietsi ezin daitekeen arazoa da. Zuzeneko zerikusia du guk geure burua *asumitzearekin*. Eta horixe da irakaslearen trebaketa soilak egiten ez duena, bere burua galduz eta prozesuaren ikuspen estu eta pragmatikoan hori galduz.

11. Kristorena Tenpluko merkatariaren aurka. Progresistena eraberrikuntza agrarioaren aurka, irainduena klase, arraza, generoagatiko bereizkeria ororekiko biolentziaren aurka. Injustiziaren menpekoena inpunitearen aurka. Gose denarena zenbaitek jateko duen era luxuriazkoaren aurka, zeren jan baino bonbonkerian ibili eta bizitza gozatzeko hutsareago bihurtzen baitute.

Gizon eta emakumeen esperientzia historiko, politiko, kultural eta soziala ezin da inoiz gatazkaz "birjina" gertatu nork bere burua asumitze hori bilatzea, zeinek traba egiten baitiote nork bere burua *asumitzeari*, norbanakoen eta taldeen eta asumitze horen alde lanean diharduten indarren aldetik. "Intriga" horien gainerikotzat bere burua daukan irakas-prestakuntzak eragozpen horien alde lan egitea baino besterik ez du egiten. Hain itsusia eta aristatsua izango ez den gizartea eraikitzeko behar dugun solidaritate sozial eta politikoak, zeinean gu geuago izan baikaitezke, garrantzi aparteko jarduera dauka prestakuntza demokratikoan. Subjektuaren *asumitze*-aprendizaiak bateraezina da beren buruak egiaren eta *jakite artikulatuaren* jabetzat dauzkatenen *trebaketa pragmatikoa eta elitismo nagusikoirekin*.

Batzuetan, nekez imajinatzen dugu zenbaterainoko esanahia izan lezakeen ikasle baten bizitzan irakaslearen keinu soil batek. Itxuraz hutsala den keinu batek izan lezakeen balioa indar formatzaile gisara, edota hezigaiak berez duenari egindako ekarpen gisara. Sekula ez naiz ahazten, nire oroimenaren jadanik historia luzean, aspaldiko nerabezaroan izan nuen irakaslearen keinu horietako batez. Keinua haren esanahiak seguraski ihes egin zion irakasleari berari, baina garrantzizko eragina izan zuen nigan. Eserita nengoen, orduan, nerabe zalanztatia nintzen, neure burua gorputz angelutsu eta itsusi bezala ikusten nuen, besteak baino gaitasun gutxiagokotzat neukan neure burua, oso ezbaian bainengoen neure ahalbideez. Umoretxarturik areago nengoen bizitzarekin bakean baino. Erraz lazten nintzen. Ikasgelako kide aberats batek egindako edozein kontsiderazio nire ahuleziak, nire segurtasun eza kontuan hartzeko egindako deia iruditzen zitzaidan.

Irakasleak etxetik ekarri zituen gure eskola-lanak, eta banan-banan deituz, bere epaiarekin bihurtzen zizkigun. Halako batean deitu egin zidan, behin eta berriz nire testua begiratzuz, hitzik esan gabe, errespetu eta aintzatespeneko erakuspen batean buruari eraginez. Irakaslearen keinuak askoz gehiago balio izan zuen irakasleak nire idazkuntzari esleitu zion hamarreko notak berak baino ere. Irakaslearen keinuak konfiantza ematen zidan, oraindik deskonfiaturik banengoen ere, lan egitea eta produzitzea posible zela onartzeko. Posible zela neure buruan konfiatzea nahiz eta erratua izan neure mugaz haratago egitea ez konfiatzea erratua zen bezalaxe. Keinua haren garrantziaren probarik hobereana da hartaz oraindik hitz egitea gaur eguneko testigantza bat izan balitz bezala. Eta egia esan, denbora asko pasatu da hori gertatu zenetik...

Jakite horretaz, eskolaguneko bilbaduretan egunero ugaltzen diren keinu horien garrantziaz, benetan gogoeta egin beharko genukeen zerbait da. Tamalgarria da eskolaren izaera sozializatzailea, bertan bizi den esperientziak daukan informaltasuna, formazio edo deformazioa zabartua izatea. Edukien irakaskuntzaz ia bakarrik hitz egiten da, ia beti zoritxarez jakitearen transferentzia gisara ulerturiko irakaskuntzaz. Eskolako espazio-denboran gertatzen denaren inguruko zabarkeria hori, irakas-jarduera ez denaren inguruko argitzen duten arrazoiak bat, nik uste, hezkuntza eta ikasteari buruzko ulerkuntza estua da. Barreanean, ohar-kabean gelditzen zaigu sozialki ikasiz aurkitu dugula gizonetako eta emakumezkoak historikoki irakastea posible dela. Garbi balego guretzat ikasiz hauteman genuela posible dela irakastea, aise ulertuko genuke kaleko, plazako, laneko, eskola-ikasgeletako, jolastokietako¹² esperientzia informal garrantzia, zeinean ikasleen, pertsonal administratiboaren, ira-

12. Miguel Arroio irakasleak koordinaturiko ekipoaren funtsezko kezketako bat da eta herrialdeari proposatzen zaiona, Belo Horizonten, eskolaren berrasmaketa hoberenetako bat. Tamalgarria da oraindik ez izatea TV-emisorerik Belo Horizonte, Uberaba, Porto Alegre, Recife eta Brasilen barrena barreiaturiko beste hainbat esperientzia erakusten ari izan denik. Arriskutzen den jendearen jarduera sortzaileak, eskola publiko eta pribatuetan bizi izandakoak erakusteko asmoa izan duenik. Egitarau horri dei lekiok "aldatzea zaila da baina litekeena". Barreanean, jakite oinarritzkoenetako bat jarduera hezitzailea da.

kas-pertsonalaren keinu desberdinak esanahiz beterik gurutzatzen baitira. Bada testigantzazko izaera bat eskoletatik hain tamalgarriko bazterturiko guneetan. *Hezkuntza hirian*¹³ nire obran arreta erakarri nuen garrantzi horretara Luiza Erundinako¹⁴ administrazioak São Paulo hiriko eskola-sarea aurkitu zuen egoera eztabaidatu nuenean. Eskolen baldintza materialeki-zabarkeria ezin pentsatzuko mailetarainokoa zen. Ia deusezturik zegoen sareari egindako lehen bisitetan ikaraturik galde egiten nion neure buruari: Nola lortu haurrengandik errespetu apur bat eskola-kartera, mahai, hormekiko, baldin eta Agintaritza Publikoak erabateko arretarik eza ageri badu gauza publikoarekiko? Sinestezina da ez imajinatzea bere gunean errespetaturiko eskola batek egiten duen “diskurtso” formatzailea. Lurraren garbitasunak, ikasgelen edertasunak, komunen higieenak, apaintzen duten loreek “adierazitako” diskurtsoaren etorria. Pedagogikotasun eztabaidaezina dago espazioaren materialtasunean.

Irakaslearen honelako eguneroko xehetasunek, beraz baita ikaslearenak ere, nahiz eta ia beti jaramon gutxi edo ia batere ez eman, egiaz pisu esanguratsua dute irakas-erperientziaren balioespenean. Irakas-formazioan garrantzia ez du honelako edo halako keinuaren errepikatze mekanikoak, baizik eta sentimenduen, emozioen, desiraren, segurtasunez gainditu beharreko segurtasun ezaren, hezigaia beldurretik kemenera eramaten duen beldurraren balioa ulertzeak.

Ez dago egiazko irakas-prestakuntza egiterik, alde batetik, kritikotasunaren ariketatik urrundurik, zeinek jakinmin xalotik jakinmin epistemologikorako sustapena inplikatzan baitu, eta bestetik, emozioen, sentsibilitatearen, afektibitatearen, senaren eta igarmenaren berrezagutzarik gabe. Ezagutzea ez da, izatez, igartzea baina badu batzuetan zerikusia igartzearekin, sentzearekin. Garrantzizkoena, ez dago inolako zalantzarik, intuizioen mailan gogobeterik ez gelditzea da, baizik gure jakinmin epistemologikoaren azterketa metodikoki zorrotzaren pean ezartzea¹⁵.

2. ATALA. Irakastea ez da ezagutza transferitzea

Orain arte egindako kontsiderazio edo gogoetak hasiera batean irakaslearen prestakuntzarako beharrezkotzat jotako lehen jakite baten destolestapenak dira, ikuspegi aurrerakoiki batetik. *Irakastea ez dela ezagutza transferitzen jakitea, baizik eta hura sortzeko edo eraikitzeko ahaltasunak sortzen jakitea*. Ikasgela batean sartzen naizenean ikerketara, jakinminera, ikasleen galderetara, haien inhibizioetara irekita dagoen izakia izan behar dut; izaki kritiko eta arakatzaila, aurrez aurre daukadan atazarekiko arduratsu –*irakastearekiko eta ez ezagutza transferitzearekiko*.

Behin eta berriz esan beharra dago: irakasleari beharrezko zaion jakite hori –irakastea ez dela ezagutza transferitzea– ia ez dauka ez berak ez hezigaiek atzemana izan beharrik bere izate-arrazoietan –ontologiko, politiko, etiko, epistemologiko, pedagogikoetan, baizik eta etengabe testigatua, bizitua izan behar du.

13. *A educação na cidade*. São Paulo. Editora, 1991.

14. Luiza Erundina, São Pauloko Alkatea izandakoa, langileen alderdikoa.

15. Ezinezkoa da irakas-formazioa axolakabea izatea munduan, munduarekin eta besteekin egoteak eskatzen digun edertasun eta gisakotasunarekiko. Ez dago egiazko irakas-jarduerarik bere baitan entsegu estetiko eta etikoa ez denik, zilegi bekik errepikatzea.

Irakasle-prestakuntza bateko ikastaro-irakasle bezala ezin dut neure *jarduera* agortu ezagutza ez hedatzearen *Teoriari* buruz diskurtsoa eginez. Doi-doi hitz egin dezaket ongi Teoriaren arrazoi ontologiko, epistemologiko eta politikoez. Teoriari buruzko nire diskurtsoak teoriaren etsenplu konkretu, praktikoa izan behar du. Horren haragiztapena. Ezagutzaren *eraikuntzaz* hitz egitean, horren *hedatzea* kritikatu, bertan tarteko izan behar dut, eta hartan, eraikuntzak tarteko izan behar ditu ikasleak.

Hortatik kanpo, nahas-mahastu egiten naiz kontraesan-sare batean, zeinean nire testigantza, ez-autentikoak, eraginkortasuna galtzen baitu. Eskolan giro demokratikoa bitarteko eta bide autoritarioen bitartez estimulatu nahi duena bezain faltsu bihurtzen naiz. Arrazismoaren aurka dagoela esaten duena bezain itxurati, izan ere Madalena ezagutzen al duen galdetzen zaionean, honela baitio: “Ezagutzen dut. Beltza da *baina* gaitua eta jatorra”. Sekula ez diot inori entzun esaten ezagutzen duela Celia, horaila dela, begi-urdira, *baina* gaitua eta jatorra dela”. Juntagailuen eginkizunaren ulerkuntza, zeinek esaldiak elkarren artean lotuz, halako zentzu batez ezarritako erlazioa blaitzen baitute: *kausalitatezkoa*, hitz egiten badut isiltasunari uko egiten diodalako da, edo *aurkaritzakoa*, ahaleginduko gara menperatzen baina ez dugu lortuko, edo *helburuzkoa*, Kepak borroka egin zuen garbi gera zedin bere jarrera, edo *integraziozkoa*, Kepak bazekien emakumea itzuliko *zela*, ez da aski baina aurkaritzakoaren erabilpena argitzeko Madalena beltza da eta Madalena gaitua eta jatorra da esaldien arteko erlazioan. *Baina* juntagailuak hor, judizio faltsu, ideologikoa inplikatzeko du: beltza izanik, espero izatekoa da Madalena ez izatea gaitua ezta jatorra ere. Hala ere, haren jatorritasun eta gaitasuna aitortzean baina juntagailua ezinbesteko bihurtu da. Celiaren kasuan, aldrebeskeria bat da, horaila eta begi-urdira izaki gaitua eta jatorra ez izatea. Hortik adbersatiboaren zentzurik eza. Arrazioa ideologikoa da eta ez gramatikala.

Ziur pentsatzea –eta irakastea ez dela ezagutza transferitzea jakitea da, funtsean, ziur pentsatzea– jarrera zorrotza da, zaila, batzuetan mingarria, besteen aurrean eta besteekin asumitu behar duguna, munduaren eta gertakarien aurrean, geure buruaren aurrean. Zaila da, ez ziur pentsatzea santuen eta aingeruen pentsatzeko era propioa delako eta harrokeriaz lortu nahiko genukeena. Zaila da, besteak beste, etengabe geure buruen gain izan behar dugun zelataritzarengatik sinplekeriak, errazkeriak, inkoherentzia gordinak alde batera uzteko. Zaila da beti ez dugulako izaten behar adinako kemena norbaiti izan diezaiokegun amorrua pentsatze erratu eta faltsua sortzen duen errabia bihur ez dadin. Pertsonaren batenganako higuina sentitzen badut ere, ezin dut mesprezatu neure buruaz beteriko diskurtso batez haren ezgaitasun erabatekoa erabakiz. Neure buruaz beteriko diskurtso horretan destainaz tratatzen dut, neure gorentasun faltsuaren gaindegitik. Niri ez dit ematen amorrurik pena baizik horrelako amorrua duten pertsonak, jentziozko irudi gisara altxaturik, ni gutxietsi eta tratu txarra ematen hasten direnean.

Nekagarria da, adibidez, umiltasuna bizi izatea. Ziur pentsatzearen “sine qua non” baldintza, gure hutsegite propioa aldarrikarazten baitigu, sufritzen dugun gairiditza berrezagutu eta iragarritzen baitigu.

Ziur pentsatzearen giroak ez du inolako zerikusirik formula aurrezarriekin. baina ziur pentsatzearen ukapena izango litzateke baldin eta lizentziatsutasunezko edo espontaneismozko giro batean landu nahiko bagenu. Zorroztasun metodikorik gabe ez dago ziur pentsatzerik.

2.1. IRAKASTEAK BUKATUGABETASUNAREN KONTZIENTZIA ESKATZEN DU

Irakasle kritiko gisara, “abenturazale” arduratsua naiz, aldatzeko eta desberdina dena onartzeko presta nagoena. Neure irakas-jardueran esperimintatu dudana ezerk ez dauka

derrigor errepikatu beharrik. Guztiarekin ere, ezinbestez errepikatzen dut neure buruaren *frankia*, radikala, besteen eta munduaren aurrean. Nire *frankia* besteen eta munduaren beraren aurrean izaki kultural gisara neure burua esperimentatzen dudana era radikal, historiko, bukatugabe eta bukatugabetasunarekiko kontzientea da.

Eta puntu honetara heltzean agian alderdi baten aldeko apostua egin beharko genuke. Gizakiaren bukatugabetasunaren aldekoa. Egia esan, izakiaren bukatugabetasuna edo bere inkonklusioa bizi-esperientziari dagokion zerbait da. Bizia dagoen tokian, bukatugabetasuna dago. Baina emakume eta gizonen artean bakarrik bihurtu da kontziente bukatugabetasuna. Biziak eskaintzen zituen materialetatik existentzia asmatzeak eraman zituen gizonezko eta emakumezkoak beste animaliak dirauten *euskarria*, *mundu* sustatzera. Giza esperientzia *munduan* kualitatez aldatu egiten da *euskarriko* animalia bizitzarekiko erlazioan. *Euskarria* espazioa da, meharra edo zabala, eta horri etxikitzen zaio animalia nola “afektiboki”, hala biziraun ahal izateko; espazioa beharrezko zaio hazteko eta horrek mugatzen du bere domeinua. Espazio horretan, trebaturik, bezaturik, “bizirauten”, ehizatzen, erasotzen, bere burua defenditzen ikasten du helduekiko dependentzia-denbora askozaz laburragoan gauza bere-tarako gizakiari beharrezko zaionaren aldean. Zenbat eta kulturalago den izakia hainbat handiagoa du haurtzarora, zainketa berezietatik haren dependentzia. *Euskarriko* beste animalien “mugimendua”ri falta zaizkio hizkuntza kontzeptuala, euskarriaren beraren ulergarritasuna, zeinetarik sortuko litzatekeen ezinbestez ulertuaren komunikagarritasuna, bizitzarekiko, bertan dagoen misterioarekiko berarekiko izua. *Euskarrian*, banakoen portaerek beren argibideak areago dituzte banakoei dagokien espeziean beren baitan baino. Aukera-askatasuna falta zaie. Horregatik, elefanteen artean ez da etikaz hitz egiten.

Euskarriko bizitzak ez du hizkuntza inplikitzen ezta eskuak jaregiteko aukera eman zuen zutikako postura ere¹⁶. Esku horiek izan dira, neurri handi batean, gure egileak. Zenbat eta handiago bihurtuz joan zen burua eta eskuen arteko solidaritatea, hainbat areago joan zen *euskarria* bihurtuz *mundu* eta *bizitza*, *existentzia*. *Euskarria mundu* eta *bizitza*, *existentzia* bihurtuz ikusten dut, giza gorputza gorputz kontziente, atzemaile, hautemaile, eraldatzaile, edertasun-sortzaile bihurtzen den heinean eta ez edukiz bete beharreko “espazio” huts.

Existentziaren asmakuntzak bere baitan ditu, berriro esan bedi, derrigorrean, hizkuntza, kultura, *bizitzaren* alorrean gertatzen zen eta gertatzen dena baino maila sakonago eta konplexuagoetako komunikazioa, munduaren “espiritualizazioa”, mundua edertu edota itsusitze-ko ahalatasuna eta horrek guztiak gizonezkoak eta emakumezkoak izaki etiko gisara ezarriko litzuke. Munduan esku hartzeko, alderatzeko, epaitzeko, erabakitzeko, hausteko, hautatzeko gai direnak, egintza handietarako, testigantza duintzaileetarako gai direnak, baina baita ziz-trinkeria eta duintasun ezazko adibide ezin pentsatzukoen gai ere. Inoiz ez da entzun lehoiek koldarki beren taldeko edo beste talde bateko lehoirik asasinatzen dutenik eta gero “familia-koei” beren solidaritatea eramateko bisita egin dietenik. Inoiz ez da entzun Afrikako tigreek Asiako tigreen “hirietan” bonba guztiz suntsitzaileak ezarri dituztenik.

Gizakiok, *euskarrian* esku hartuz, *mundua* sortuz joan ginen unean, munduarekiko ekin-tzaren bidez egiten zituzten gauzei izena emateko hizkuntza asmatuz, mundua ulertzeko gaituz eta ondorioz ulertuaren beharrezko komunikagaitasuna sortuz joan ziren heinean, jadanik ezinezkoa izan zen prest ez egotea tentsio radikalarekiko munduko ongia eta gaizkiaren artean, duintasuna eta duintasun ezaren artean, gisakotasuna eta desgisakotasunaren artean, edertasuna eta itsusitasunaren artean. Esan nahi da, jadanik ezinezkoa izan zela *existentzia*

16. Ikusi: The Cambridge Encyclopedia of Language. Crystal, David. Cambridge, Cambridge University Press, 1987.

hautatu, erabaki, borroka egin, politika egiteko *eskubidea* eta eginbeharra asumitu gabe. Eta horrek guztiak jarduera *formatzaillearen* ezinbestezkotasunera garamatza berriro, izaera nagusiki etikokoa baita. Eta horrek guztiak berriro *esperantzaren* radikaltasunera garamatza. Badakit gauzak okerragotu ere egin daitezkeela, baina jakin badakit posible dela esku hartzea haiek hobetzeko ere.

Gizon, jende izatea gustatzen zait, ez baitago ziurtzat emana, zalantzagabe, atzeraezintzat emana gisako naizela edo izango naizela, beti keinu garbien testigantza emango dudala, justua naizela eta izango naizela, besteak errespetatuko ditudala, ez dudala gezurrik esango haien balioa ezkatatuz munduan haien presentziaren inbidiak deserosotu eta amorrarazten nauelako. Gizon, jende izatea gustatzen zait, bai baitakit nire mundutik igarotzea ez dagoela aurreeterminaturik, aurrezaririk. Nire "destinoa" ez dela emandako zerbait baizik eta egin beharreko zerbait eta zeinen erantzunkizunaz ezin baitut neure burua jaregin. Jende izatea gustatzen zait, zeren besteekin neure burua egiten dudana Historia eta, zeinen taxueraz esku hartzen baitut, ahaltasun-denbora baita eta ez determinismokoa. Hortik dator nik hainbeste azpimarratzea etorkizunaren problematizazioa eta horren *aldaezintasuna* errefusatzea.

2.2. IRAKASTEAK IZAKI BALDINTZATUA BERREZAGUTZEA ESKATZEN DU

Jende izatea gustatzen zait, zeren bukatu gabea naizenez, izaki baldintzatu bat gehiago naizela baitakit, baina bukatugabetasunaz kontziente, badakit horretaz harantzago joan naitkeela. Horixe da izaki baldintzatuaren eta izaki determinatuaren arteko desberdintasun sakona. Bere burua bukatugabea dela ez dakien eta bere burua bukatugabea dela jakiteko ahaltasuna historikoki eta sozialki lortu duenaren arteko desberdintasuna. Jende izatea gustatzen zait zeren, hori naizen heinean, hautematen baitut azkenean munduko nire presentziaren eraikuntza, zein ez baita isolamenduan egiten, indar sozialen eraginaz jareginik, genetikoki heredatzen dudanaren arteko eta sozialki, kulturalki eta historikoki heredatzen dudanaren arteko tentsiotik kanpo ulertzen ez denak zerikusi handia duelako nire buruarekin. Ironiazkoa izango litzateke baldintza eta munduko nire presentziaren kontzientziak nire absentziaren ezinezkotasuna berrezagutzea neure presentzia propioaren eraikuntzan. Ezin dut ez hauteman neure burua munduko presentzia bezala baina, aldi berean, nitaz zeharo urrunduak eragiketen emaitza gisara argitu. Kasu honetan uko egiten diot *munduko euskariaren* sustapenak ezartzen digun erantzukizun etiko, historiko, politiko eta sozialari. Munduan esku hartzeko bokazio ontologikoa betetzeari uko egiten diot. Munduan, munduarekin eta besteekin neure burua hautematearen gertakariak horrekin batere zerikusirik ez duenarena ez den posizio batean jartzen nau munduaren aurrez aurre. Azkenean, munduko nire presentzia ez da hartara moldatzen denarena, hartan txertatzen denarena baizik. *Objektu soil* ez izateko Historiaren subjektu izateko ere borrokatzen denaren posizioa da.

Jende izatea gustatzen zait, zeren, nahiz eta jakin gauden baldintza material, ekonomiko, sozial eta politiko, kultural eta ideologikoen mundua aldatzearen gure ataza historikoa betetzeko gaingaitzen zailak diren hesiak beti ezartzen dituztela, eragozpenak ez direla betikotzen ere badakit.

60. urteetan, ordurako eragozpen horiez kezkatutik, *kontzientizaziora* dei egin nuen ez panazea gisara, baizik eta eragozpenen ezagutza kritiko, hau da, horien izateko arrazoiarena bezala. Diskurtso fatalista neoliberal, pragmatiko eta atzerakoiaren indar guztiaren aurka, azpimarratzen dut gaur, desbideratze idealistatik gabe, kontzientizazioaren beharra. Horren eguneratzea azpimarratzen dut. Egia esan, munduaren "prise de conscience" deritzonaren, gertakarien, jazoeren sakontze den heinean kontzientizazioa giza eskakizun da, jakinmin epistemologikoa praktikan jartzeko bi bideetako bat da. *Arrotza* izan beharrean, kontzientiza-

zioa *naturala* zaio bukatu gabea delarik, bere burua bukatugabea dela dakien izakiari. Auzi substantiboa ez dago beraz bukatugabetasun hutsean edo inkonklusio hutsean. Inkonklusioa, berriz diot, bizi-fenomenoaren izaeraren parte da. Bukatugabeak gara gu, gizonezko eta emakumeok, baina bukatugabeak dira halaber jaboticabeirak¹⁷, nire txori kantarien aldra; bukatugabeak dira txori horiek Eico, egunsentian pozik “agurtzen” nauen nire artzaintxakur alemaniarra bezala.

Gure artean, gizonezkoen eta emakumezkoen artean, bukatugabetasunak badaki bere buruaz halakoa dela. Baina areago, bere burua ezagutzen duen inkonklusioak subjektu bukatugabea bilaketa-prozesu sozial batean etengabe txertatzea inplikatzan du derrigor. Historiko-sozio-kultural garelarik, gizonezko eta emakumezkoak izaki bihurtzen gara, zeinetan jakinmina, bizi-esparruan berezkoak dituen mugak gaindituz, ezagutzaren ekoizpenaren oinarritzaila bihurtzen baita. Baina areago oraindik, jakinmina bera jadanik ezagutza da. Jakinminera bultzatzen duen eta bere burua animatzen duen hizkuntza bezala, hori ere eza-
gutza da eta ez soilik haren adierazpena.

Goizaldeko orduetan, duela zenbait hilabete, Nita eta biok, nekaturik geunden, herrialdearen Iparraldeko aireportu bateko aretoan, São Páulorako noiz abiatuko zain herri-jakituriak “vão coruja” (hontz-hegaldia) deitzen duen hegaldi goiztiar horietako batean. Nekaturik eta benetan damaturik hegaldiaren ordutegia aldatu ez genuelako. Urte gutxiko haurtxo batek, poz-pozik saltoka ari baitzen, azkenerako alaitu egin gintuen, nahiz eta ordu hura guretzat ez izan egokia.

Hegazkin bat iristen da. Umeak burua makurtzen du motorren zarata hautatzearen bila. Amarengana bihurtu eta esaten dio: “Hegazkina heldu da *berriz ere*”. Iruzkirik egin gabe, amak baieztatzen du: “Hegazkina heldu da jadanik”. Isilunea. Haurra aretoaren beste muturreraino lasterka joan eta itzuli egiten da. “Hegazkina heldu da jadanik”, dio. Haurraren diskurtsoak, gertatzen ari zenaren aurrean bere posizio jakinguratsua inplikatzan baitzuen, hegazkina heltzearen egintzaren *ezagutza* baieztatzen zuen lehenik, eta ezagutzaren egintza-temporalizazioa jadanik adberbioan. Haurraren diskurtsoa “Hegazkina heldu da” gertakari konkretu baten ikuspuntutiko ezagutza zen, besteak beste, *jadantik* denborazko adberbio zirkunstantziala menperatzeko balio izan zuena.

Itzul gaitezen pixka bat lehengo geure gogoetara. Gure bukatugabetasunaren kontzientziak, gizonezko eta emakumezkoek erantzule bihurtzen gaitu, hortik dator munduko gure presentziaren etikotasuna. Etikotasun horri, zalantzarik ez dago, iruzur egin diezaiokegu. Historiaren munduan luzatzen den kulturaren mundua askatasun-, aukera-, erabaki-mundua da, gisakotasuna ukatua izan daitekeen, askatasuna iraindua eta errefusatua izan daitekeen ahalatasun-mundua. Horrexegatik hain zuzen ere jakite instrumentalen inguruan egiten den gizon eta emakumeen gaitzeak ezin du alde batera utzi prestakuntza etikoa. Eskakizun horren radikaltasuna hainbestekoa da, non ez genukeen azpimarratzen jardun beharrik izan behar izakiaren prestakuntza etikoaz haren prestakuntza tekniko eta zientifikoaz hitz egitean. Funtsezkoa da hori azpimarratzea hain zuzen ere, bukatugabeak baina bukatugabetasunaz kontziente baikara, aukera-, erabaki-izakiak, etikoak gara eta uko edo iruzur egin diezaiokegu geure etika propioari. Hezitzaileak, geografia irakasten ari dela “irentzen” badu hezigaiaren jakinmina, edukien irakaskuntzaren memorizazio mekanikoaren eraginkortasunaren izenean, askatasuna kentzen dio hezigaiari, abenturatzeko gaitasuna. Ez du formatzen, bezatu egiten du. Noiz-behinka testu honetan kritikaturiko diskurtso neoliberalen txertaturiko ideologia

17. Brasildar zuhaitza, ginga tankerako fruitua ematen duena eta patxaranaren antzeko likorea egiteko erabiltzen dena.

fatalista asumitzen duenak bezala, pazientea klase herritarrak direnean aplikatzen baitzaie egorei nagusiki. "Ez dago zer eginik, langabezia mende-amaierako halabeharra da".

Milioika dolarren "ibilera" gutziatsua, merkatu finantzarioan, faxen lastertasunarekin batek bestera "hegaz" eginez, lukro handiagoaren bilaketa aseezinean, ez da *halabehar* bezala tratatzen. Ez dira klase herritarrak bere txarkeriaren arartegabeko objektuak. Horrexegatik hitz egiten da dolarren "ibilerak" diziplinatze-beharraz.

Gure arteko eraberrikuntza agrarioaren kasuan, behar den diziplina, mundu-jabeen arabera, kosta ahala kosta, "lurgabe" zalapartari erreboltariak otzantzea da. Eraberrikuntza agrarioa ere ez da halabeharra. Horren premia sasi-brasildarren asmakeria zentzugabea besterik ez da, aldarrikatzen dute lur-jabe gutziatsuek.

Jarrai dezagun pentsatzen pixka bat bere burua bukatugabea dela dakien izakiaren bukatugabetasunean, ez bukatugabetasun hutsean, bere baitan, *euskarr*ian bere burua zehazkabe berrezagutzeko gai bihurtu ez den izakiarenean, Munduaren konszientziak eta norbere buruaren konszientziak izaki bukatugabe gisara bere bukatugabetasunaz kontziente den izakia etengabeko bilaketa-mugimendu batean ezartzen dute. Egia esan, kontraesan bat litzateke, baldin eta bukatugabe eta bukatugabetasunaz kontziente, gizakia mugimendu horretan txertatuko ez balitz. Zentzu horretan gertatzen da, emakumezko eta gizonezkoentzat, munduan egotea munduarekin eta besteekin egotearen derrigorezko adierazle izatea. Historiarik egin gabe munduan egotea, hark norbera egin gabe, kultura egin gabe, nork munduko bere presentzia propioa "tratatu" gabe egotea, amets egin gabe, kantatu gabe, musika egin gabe, pintatu gabe, lurra, urak zaindu gabe, eskuak erabili gabe, zizelatu gabe, filosofo-tu gabe, munduari buruzko ikuspunturik gabe, zientzia, edo teologia egin gabe, misterioaren aurreko txundimenik gabe, ikasi gabe, irakatsi gabe, formazio-ideiarik gabe, politizatu gabe ezinezkoa da.

Bere burua bukatugabetzat daukan izakiaren bukatugabetasunean oinarritzen da hezkuntza prozesu iraunkor gisara. Gizon-emakumeak hezigarri bihurtzen dira beren burua bukatugabe ezagutzen duten heinean. Ez ditu hezkuntzak gizon-emakumeak hezigarri bihurtu, baizik eta beren bukatugabetasunaren konszientziak sortu du horien hezigarritasuna. Halaber, kontziente bihurtzen garen eta bilaketa-mugimendu iraunkorrean sartzen gaituen bukatugabetasunean euskarritzen da esperantza. "Ez naiz esperantzatsu", esan nuen behin batean, setakeria hutsez, baina eskakizun ontologikoz¹⁸.

Hori gure jarduera hezitzailearen, irakas-prestakuntzaren, eta gure bukatugabetasun asumituaren jakite fundatzailea da. Ideala da, esperientzia hezitzailean, hezigaiak eta hezitzaileak, elkarrekin, "bizikide" izatea halako moldez honekin eta aipatuko ditudan beste jakite batzuekin, non *jakituria* bihurtuz joango diren. Hori hezitzaileoi arrotza ez zaigun zerbait da. Ikasleekin hitz egiteko etxetik irteten naizenean, ez dut inolako zalantzarik, bukatugabe eta bukatugabetasunaz kontziente garelarik, bilaketara irekiak, jakinguratsu, "programatuak, baina, ikasteko"¹⁹, hainbat gehiago eta hobeto baliaraziko dugu ikasteko eta irakasteko geure gaitasuna, zenbat eta subjektuago eta ez prozesuko objektu soil egiten ez garen heinean.

18. Ikusi Freire, Paulo. *Pedagogia da esperança*, Rio de Janeiro, Paz e Terra, 1994. Ikusi Freire, Paulo. *À sombra desta mangueira*. São Paulo, Olho d'Água, 1995.

19. François Jacob.

2.3. IRAKASTEAK HEZIGAIAREN IZATEAREN AUTONOMIAREKIKO ERRESPECTUA ESKATZEN DU

Jarduera hezitzaileak beharrezko duen eta aipatu dudanaren erroan bertan oinarritzen den beste jakite bat –bere burua bukatugabea dela badakien izakiaren bukatugabetasuna–, *hezigaiaren izatearen autonomiari zor zaion errespetuaz mintzo dena da*. Hezigai haur, gazte edo helduarena. Hezitzaile naizen aldetik, beti jakinaren gainean egon behar dut errespetu horri dagokionez, nik neure buruarekiko eduki behar dudana bera inplikatzeko duela. Ez du kalterik egingo testu honetan behin baino gehiagotan egindako baieztapena errepikatzeak –kontziente bihurtzen gaituen bukatugabetasunak izaki etiko bihurtzen gaitu. Bakoitzaren autonomia eta duintasunaren errespetua inperatibo etiko bat da eta ez batzuek besteei eman geniezaiekeen mesede bat edo ez. Etikoak garelako hain zuzen ere gal diezaiokegu errespetua etikaren zorrotzasunari eta bere ukapenerantz laban egin, horrexegatik da ezinbesteko argi eta garbi uztea desbideratze etikoaren ahaltasunak *transgresioa* beste izendapenik ez dezakeela har. Hezigaiaren jakinminari errespetua galtzen dion irakasleak, haren gustu estetikoari, haren kezkarri, haren hizkuntzari, zehatzago esateko, haren sintaxia eta haren prosodiari; ikasleaz ironizatzen duen irakasleak, gutxiesten duenak, bere bidezko errebeldia-seinale txikiaren aurrean “bere lekuan jartzeko” agintzen duenak, baita ikaslearen askatasunari mugak proposatzeko bere eginbeharrari uko egiten dion irakasleak ere, irakasteko eginbeharrari ihes egiten dionak, hezigaiaren esperientzia formatzailean errespetuz presente egoteari, hautsi egiten ditu gure existentziako printzipio funtsez etikoak. Zentzu horretan irakasle autoritarioak, hezigaiaren askatasuna ito egiten du, jakinguratsu eta kezkatu izateko eskubidea murriztuz, irakasle lizentziatsua gizakiaren radikaltasuna hausten duen bezala –etikotasuna errotzen duen bukatugabetasun asumituarena. Zentzu horretan bertan dialogikotasun egiazkoa, zeinetan subjektu dialogikoek ikasten baitute eta hazten baitira desberdintasunean, batez ere, harekiko errespetuan, hori da koherenteki exijitua izateko era izaki bukatugabeen aldetik, halakoak direla asumituz, errotik etiko bihurtzeraino. Argi eta garbi utzi beharra dago etikotasunaren *transgresioa* inoiz ezin daitekeela bertute gisara ikusi edo ulertu, baizik eta gisakotasunarekiko haustura bezala. Honako hau esan nahi dut: norbait matxista, arrazista, klasista bihurtzea, hemen edo han egotea, baina giza izaeraren haustailatzat asumi dezala bere burua. Ez dakidala etor niri justifikazio genetiko, soziologiko edo historiko edo filosofikoekin zurtasunaren belztasunarekiko nagusitasuna esplikatzeko, gizonezkoena emakumezkoekiko, ugazabena langileekiko. Edozein diskriminazio inmorala da eta horren kontra borrokatzea betebeharrak bat da nahiz eta berrezagutu aurre egin beharreko baldintzamenduek duten indarra. Jende izatearen edertasuna, besteak beste, saiatzeko ahaltasun eta behar horretan dago. Hezigaiaren autonomiari eta identitateari errespetua zor diodala jakiteak horrekiko erabat koherentea den jarduera bat eskatzen dit.

2.4. IRAKASTEAK ZENTZU ONA ESKATZEN DU

Neure zentzu ona zaintzeak egundoko garrantzia du, uneoro, neure jardueraz egin behar dudana ebaluaziorako. Adibidez, edozein gogoeta patxadatsu eta zorrotzek baino lehenago neure zentzu onak esaten dit hain negatiboa dela, neure irakas-atazaren ikuspegitik, ikasle baten lana errefusatzera bultzatzen nauen formalismo sentimendugabea, epez kanpo datorrelako, ikaslearen azalpen konbentzigarriak gorabehera, nola lan-entregarako printzipio arautzaileekiko erabateko errespeturik eza. Neure zentzu onak ohartarazten dit neure irakasle-autoritatea eskolan baliaraztea, erabakiak hartuz, jarduerak bideratuz, atazak ezarri, taldearen ekoizpen indibidual eta kolektiboa jasoz ez dela autoritarismo-seinalea nire aldetik. Nire autoritatea da bere eginbeharra betetzen ari dena. Ez dugu ongi ebazten, oraindik, geure artean autoritatea-askatasuna kontraesanak ezartzen digun tentsioa eta ia beti nahastu egiten digu autoritatea autoritarismoarekin, lizentzia askatasunarekin.

Ez dut behar etika-irakaslerik esateko ezin dudala, irakaslegoko disertazioaren edo doktorego-tesiaren zuzendari gisara, postgraduatu bere lanari kritika gogorrek eginez txunditu aztertzailleetako bat zorrotza izan zelako bere gaitzespenean. Hori gertatzen bada eta ni bat baldin banator irakasleak egindako kritikekin ez dago beste biderik jendaurrean zuzenduarekiko elkartasuna adieraztea baizik, berarekin elkarbanatuz hutsegitearen erantzukizuna edo errakuntza kritikatuarena²⁰. Ez dut behar etika-irakaslerik hori esateko.

Neure zentzu onak esaten dit.

Hezegiaren autonomiari, duintasunari eta identitateari errespetua zor diodala jakitea, jardunean, jakite horrekiko koherentzia bilatzeak ezinbestean eramaten nau bertute edo kualitate batzuk sortzera, zeren horiek gabe jakite hura ez-autentiko, hitzontzikeria huts eta balio-gabe bihurtzen baita²¹.

Ez du ezertarako balio, hezegiaia suminarazteko eta hezitzailearen diskurtso azalutsa desmoralizatzeko ez bada, demokrazia eta askatasunaz hitz egiteak baina gero hezegiari maisuaren borondate arranditsua ezartzeak.

Zentzu onaren ariketa, zeinekin irabazi besterik ezin baitugu egin, jakinminaren "gorputz"ean egiten da. Zentzu horretan, zenbat eta gehiago jartzen dugun jardunean era metodikoan ikertu, alderatu, zalantzan jarri, kontrastatzeko gure gaitasuna, hainbat eraginkorkiango bihurtuko gara jakinguratsu eta hainbat kritikoago bihur daiteke gure zentzu ona. Zentzu onaren ariketa edo hezkuntza pixkanaka gaudituz doa hartan dagoen instintuzkoa, tarteko garen gertakarien eta jazoeren ebaluazioan. Baldin eta zentzu ona, zerbaiti buruz egiten dudana ebaluazio moralean, ez bada aski nire borroka-taktikak bideratu edo oinarritzeko, badu, inolako zalantzarik gabe, paper garrantzitsua nire posizio-hartzean eta horri ezin lekiokete etika falta, egin behar dudanakarekiko.

Neure zentzu onak esaten dit, adibidez, inmorala dela esatea milioika brasildarrek daukaten gosea eta miseria halabeharra dela eta horren aurrean gauza bakarra egin litekeela: errealitatea alda dadin egonarriz itxaron. Neure zentzu onak esaten dit hori inmorala dela eta nire zorroztasun zientifikotik exijitzen du baieztatzea posible dela aldatzea gutxiengo aseziaren gutziaren *dizplina*rekin.

Neure zentzu onak jakinarazten dit badagoela zerbait ulertu beharrekoa Perutxoren portaearen, isil, ikaratu, urrundu, beldurti, bere buruagandik ezkutatu nahian dabilen horrengan. Zentzu onak ikusarazten dit arazoa ez dagoela beste haurrengan, haien artegatasunean, haien aztoramenduan, haien bizitasunean. Neure zentzu onak ez dit esaten zer den, baina argi eta garbi uzten du badagoela jakin beharreko zerbait. Hori da zientziaren egitekoa, zeina zientzialariaren zentzu onik gabe desbideratu edo gal daitekeena baita. Ziur nago ez duela arrakastarik izango baldin eta ez badu gaitasunik igartzeko fidakaiztasun-sentimenduari, zalantzarako irekidurari, ziurtasunez ziurregi aurkitzen ez denaren kezkarri. Pena ematen dit, batzuetan, beldurra, ziurtasunaz ziurregi dagoen zientzialariak, egiaren jaun denak eta bere jakite propioaren historikotasunaz susmorik ere ez duenak.

Neure zentzu ona da, lehenik, susmakor jartzen nauena, gutxienez, ezinezkoa dela eskolan, baldin egiazki konprometituri badago hezegia hezitzaileen prestakuntzan, beren ikasleen, beren familien, beren auzoen baldintza sozial, kultural eta ekonomikoetatik urrun-tzea.

20. Ikusi Freire, Paulo. *Cartas à Cristina*, Rio de Janeiro, Paz e Terra, 1995.

21. Ikusi Freire, Paulo. *Professora Sim, Tia, Não. Cartas a quem ousa ensinar*. São Paulo, Olho d'Água, 1995.

Ezinezkoa da hezigaiei errespetua izatea, horien duintasunari, formatzen ari den horien izakiari, garatzen ari den horien identitateari, ez badira kontuan hartzen horiek bizi diren baldintzak, ez bazaie garrantzirik ematen eskolara dakartzaten “egindako esperientzia-ezagutzei”. Hezigiaren duintasunari zor zaion errespetuak ez dit uzten gutxiesten, okerrago oraindik, iseka egiteak eskolara aldean dakarren jakiteari.

Zenbat eta zorrotzago bihurtzen naizen ezagutzearen neure jardueran, hainbat areago, kritiko naizelarik, izan behar diot errespetua jakite xaloari, jakite epistemologikoaren ariketa bidez sorturiko jakiteak gainditu behar duen horri.

Pentsatzean zer eginbehar dudan, irakasle bezala, hezigiaren duintasuna errespeta-
tzeko, haren autonomia, prozesuan dagoen haren identitatea, halaber pentsatu beharra dau-
kat, dagoeneko nabarmendu dudanez, nola izan behar dugun jarduera hezitzaile bat,
hezigiari izan behar zaion errespetu hura gauza dadin ukatua izan ordez. Horrek gogoeta
kritiko iraunkorra eskatzen dit neure jardueraz, zeinen bitartez hezigaiekiko neure egite pro-
pioaren ebaluazioa burutuz bainoa. Izan ere, irakaslearen lana ikasleekiko irakaslearen lana
da eta ez bere buruarekiko irakaslearen lana.

Jardueraren ebaluazio kritiko honek agerian jartzen du bertute edo kualitate batzuen
premia eta horiek gabe ezinezkoa da hartan, ebaluazioa, ezta hezigiarekiko errespetua ere.

Eratu ezinbestekoak diren bertute edo kualitate horiek esperientzia hezitzaileari fun-
tsezko beste jakite honen praktikan jartzeko –hezigiaren autonomiari, duintasunari eta
identitateari errespetua zor diodala– ez dira portaera onarengatik hartzen ditugun opariak.
Kualitateak edo bertuteak esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko tarte laburtzeko
geure buruari ezartzen diogun ahaleginaren poderioz eraikitzen ditugu. Ahalegin hori, dis-
kurtsua eta jardueraren arteko tarte laburtzekoa, ezinbesteko bertute horietako bat da
–koherenziarena. Nolatan egiazki jarrai dezaket hitz egiten hezigiaren duintasunarekiko
errespetuaz baldin eta ironizatzen badut, diskriminatzen badut, inhibitzen badut neure
arrandiarekin? Nola jarrai dezaket hitz egiten hezigiarekiko neure errespetuaz berari em-
aten diodan testigantza erantzukizunik ezazkoa bada, bere eginbeharra betetzen ez duena-
rena, bere jarduerarako prestatzen eta antolatzen ez denarena, bere eskubideen alde ez
borroka eta ez protesta egiten ez duenarena bada?²² Irakas-jarduera, gizakiarena baizik ez
dena, guztiz formatzailea da, beraz, etikoa. Bere egileengandik santu edo aingeru izatea
espero izaterik ez badago ere, seriotasuna eta kontrola eskatu ahal zaizkie eta behar zaiz-
kie behintzat.

Irakaslearen erantzukizuna, nahiz eta batzuetan ez konturatu, handia da beti. Bere jar-
duera funtsean formatzailearen izaera bera, hori burutzeko era azpimarratzen du. Ikasgelan
duen presentzia hainbesteraino da ereduazkoa, non ez dagoen irakaslerik ikasleek hartaz egi-
ten duten epaiari ihes egiten dionik. Eta epaiarik agian txarrena “epai” faltan adierazten dena
da. Epaiarik txarrena irakaslea *absentzia* bezala ikasgelan hartzen duena da.

Irakasle autoritarioa, irakasle lizentziatsua, irakasle gaitua, serioa, irakasle ezgaitua,
arduragabea, bizitzaz eta jendeez maiteminduriko irakaslea, irakasle gorrotatua, beti mundua
eta pertsonenganako amorruekin dagoena, hotz, burokratiko, racionalista. Horietatik batere
ez da ikasleengandik pasatzen bere marka utzi gabe. Hortik irakasleak eskain dezakeen
bere argikusmenaren eta beren eskubideen aldeko borrokan duen konpromisoaren etsen-

22. Liburu hau irakurtzea gomendatzen dut beste behin: *Professora, sim. Tia, não*. São Paulo, Olho d'Água, 1995.

pluaren garrantzia, baita beren betebeharrak burutzeko baldintzak eskatzean ere. Irakasleak bere ikasgelak emateko betebeharra du, bere irakas-egitekoa burutzekoa. Horretarako baldintza egokiak, higienikoak, espazialak, estetikoak behar ditu eta horiek gabe desegokiago mugitzen da espazio pedagogikoan. Batzuetan, baldintzak hain dira makurrak, non mugitu ere egiten ez den. Espazio horrekiko errespeturik eza irain bat da hezigaiekiko, hezitzaileekiko eta jarduera pedagogikoarekiko.

2.5. IRAKASTEAK UMILTASUNA, TOLERANTZIA ETA HEZITZAILEEN ESKUBIDEAK DEFENDITZEKO BORROKA ESKATZEN DITU

Brasilgo hezigaiek, adinik goiztiarrenetik jakin behar duten zerbait baldin badago, hori da hezitzaile eta hezkuntzarekiko errespetuaren aldeko borrokak bere baitan hartzen duela hain inmoralak ez diren soldaten aldeko ahalegina, hori eginbehar errefusaezina dela eta ez bakarrik haien eskubide bat. Irakasleek beren eskubideen eta beren duintasunaren alde egiten duten borroka beren irakas-jardueraren une garrantzitsutzat ulertu behar da, jarduera etiko den heinean. Ez da irakas-jardueraren kanpotik datorren zerbait, baizik eta haren parte den zerbait. Irakas-jardueraren duintasunaren aldeko borroka hain da beraren parte, non beraren parte den irakasleak hezigiaren identitateari, bere pertsonari, bere izateko eskubideari izan behar dion errespetua. Aginte publikoak guri, Brasilen, egiten digun gaitzik handienetako bat, historikoki, Brasilgo gizartea sortu zenetik, gutako asko arriskuan jartzearena da, hezkuntza publikoarekiko hainbeste zabarkeriaren poderioz, existentzialki nekaturik, besoak gurutzatzera daraman indiferentismo fatalistak zinikoan eror gaitezen. "Ez dago zer eginik" da onartu ezin dezakegun diskurtso moldatua.

Hezigiarekiko, haren jakinminarekiko, prozedura inhibitzaleekin areagotu behar ez dudan haren herabetasunarekiko nire irakasle-errespetuak nigandik umiltasuna eta tolerantzia lantzea eskatzen du. Nola errespetu dezaket hezigiaren jakinmina, baldin eta umiltasunik gabe eta ezjakintasunak jakitearen bilaketan duen zereginaren benetako ulerkuntzarik gabe, neure ezezagutza agertzeari beldurra badiot? Nola izan hezitzaile, batez ere ikuspegi aurrerakoi batean, ikasi gabe, ahalegin handiago edo txikiagoarekin, desberdinekin bizikide izaten? Nola izan hezitzaile, ez badut neure baitan hezigienganako ezinbesteko maitakortasuna garatu gabe, zeinekin konprometitzen bainaiz eta parte nauen prozesu hezitzailearekiko berarekiko? Ezin dezaket egiten dudanarekiko atsekabea sentitu, bestela hori ongi ez egiteko arriskuan nago. Mesprezatutako jendeari bezala errespeturik ez zaion irakas-jarduera bazterturik dago, baina horregatik ez diot izan behar higuinik ez horri eta ez hezigaiei ere. Ez daukat zertan gaizki jardun egiteko horretan. Hezkuntzari egiten zaion irainari ematen diodan erantzuna borroka politiko kontziente, kritikoa eta iraintzaileen aurka antolatua da. Bertan behera uztea ere onartzen dut, nekaturik, egun hobeen zain. Ezinezkoa zera da, bertan gertatzea eta norbere buruarenganako eta hezigienganako destainaz doilortzea.

Aginte publikoak hezkuntzarekiko duen errespeturik ezaren aurkako borroka-erretako bat, alde batetik, gure irakas-jarduera *kontakatilukeria* huts bihurtzeari uko egitea da, eta bestetik, kolega arteko jarduera afektibo gisara ulertu eta jarduteari uko egitea.

Profesional egoki gisara –politikoki antolatzen den gaitasunean dago agian hezitzaileen indar handiena– ikusi behar dute beren burua. Zentzu horretan ikasgelako organoek lehentasuna eman beharko liokete magisterioko koadroen prestakuntza iraunkorrari maila politiko handiko eginkizun bezala eta birpentsatu egin beharko litzateke greben eraginkortasuna. Hemen proposatzen den auzia ez da borroka egiteari uztea baizik, borroka kategoria historikoa bat dela berrezagutzuz, historikoki borroka egiteko era berrasmateza.

2.6. IRAKASTEAK ERREALITATEA ATZEMATEA ESKATZEN DU

Esperientzia hezitzaileak funtsezkoa duen beste jakite bat bere izaerarekiko errespetuari dagokiona da. Irakasle naizen aldetik argitasunez mugitu behar dut neure jardueran. Jardueraren funtsa ezaugarritzen duten dimentsio desberdinak ezagutu beharra daukat, edo neure egitekoan ziurrago bihurtuko nauen hori.

Gogoeta hauetarako abiapunturik hoberena kontziente egin den gizakiaren bukatugabetasuna da. Ikusi dugunez, horretan datza gure hezigarritasuna baita etengabeko bilatze-mugimendu batean geure buruak txertatzea ere, zeinean, jakinguratsu eta ikertzaile, doi-doi konturatzen baikara gauzez, baina horietaz ere izan dezakegu ezagutza egoki bat. Ikasteko gaitasuna, ez hainbeste moldatzeko baizik eta errealitatea eraldatzeko, hartan esku hartzeko, birsortuz, gure hezigarritasunaz mintzo da beste animalia batzuen trebatze-mailaz edo landareen lantzeaz bestelako maila batean.

Ikasteko gure gaitasunak, zeinetatik baitator irakastekoa, iradokitzen du, hori baino gehiago, objektu ikasiaren substantibotasuna *atzemateko* gaitasuna inplikitzen du. Objektuaren profilarren memorizazio mekanikoa ez da objektuaren edo edukiaren egiazko ikasketa. Kasu horretan, ikasleak askoz gehiago funtzionatzen du objektu edo edukiaren transferentziaren *paziente* gisara eta ez subjektu kritikoki gisara, epistemologikoki jakinguratsu, objektuaren ezagutza erakitzen duen edo haren eraikuntzan esku hartzen duenak bezala. Hain zuzen ere, objektuaren substantibotasuna *atzemateko* gaitasun horrexegatik zaigu posible gaizki ikasitako zerbaite berreraikitzea, ikaslea hezitzaileak egindako ezagutza-transferentziaren paziente huts izan zelako.

Gizonezko eta emakumezko, sozialki eta historikoki *atzemateko* gai bihurtzen garen izaki bakarrik gara. Horregatik guretzat bakarrik da ikastea abentura sortzailea, horrexegatik beragatik, *emandako irakatsia* errepikatze hutsa baino askoz aberatsagoa den zerbaite. Guretzat ikastea *eraikitzea* da, berreraikitzea, *aldatzeko konstatatzea*, eta hori ez da egiten arriskura eta espirituaren abenturara zabalik egon gabe.

Uste dut baieztatu dezakedala, kontsiderazio hauetaraino iritsi garelarik, jarduera hezitzaile orok subjektuen existentzia eskatzen duela, irakatsiz ikasten duen bat, ikasiz irakasten duen beste bat, hortik bere zigilu gonoseologikoa; irakatsiak eta ikasiak izateko objektuen, edukien existentzia; horrek metodo, teknikak, materialak inplikitzen ditu; bere izaera *zuzentzailearen* arabera helburua, ametsak, utopiak, idealak tarteko izateko inplikitzen du. Hortik bere *politikotasuna*, jarduera hezitzaileak *politiko* izateko, neutro ez izateko duen kualitatea.

Gizakiarena bakarrik den hezkuntza hori zerbaite gnoseologikoa da, zuzentzailea, horregatik da politikoa, artistikoa eta morala da, bitartekoez, teknikez baliatzen da, tartean frustrazioak, beldurrak, desirak izaten ditu. Nigandik, irakasle bezala, gaitasun orokor bat eskatzen du, nire izaerari buruzko jakitea eta jakite bereziak, nire irakas-jarduerari lotuak.

Irakasle gisara, nire aukera aurrerakoa bada eta harekiko koherente banaiz, hezigaia bezalakoxea naizela pentsatzearen, irakasle-egitekoaren espezifikotasuna ez ezagutzearen xalotasunean erortzen ez banaiz, ezin dut, bestalde, ukatu oinarritzko nire egitekoa ekarpen positibo egitea dela hezigaia bere formazioaren egile izan dadin hezitzailearen beharrezko laguntzarekin. Haurrekin lan egiten badut, erne egon behar dut *heteronomiatik autonomiara* pasatze edo bidearekiko, erne neure presentziaren erantzunkizunarekiko, zeren laguntzaile bezalaxe izan baitaiteke tratatzaile hezigaien bilaketa kezkatuarentzat; gazte edo helduekin lanean ari banaiz, ez diot ernetasun gutxiago izan behar nire lanak izan lezakeen erlazioarekiko estimulu gisa edo ez beharrezko haustura oker erroturiko zerbaitekin eta gainditzearen itzarotearekiko. Lehenengo eta behin, nire posizioak aldatu nahi duen edo aldatze-

ari uko egiten dion pertsonarenganako errespetuzkoa izan behar du. Ezin diot ukatu edo ezkutatu neure jarerra baina ezin dut aintzakotzat ez hartu hori baztertzeko duen eskubidea. Ikasleei zor diedan errespetuaren izenean ez daukat zertan neure burua estali, ez daukat neure aukera politikoa zertan ezkutatu, existitzen ez den neutraltasun bat hartuz. Hori, ikasle-arenganako errespetuaren izenean irakasleak bere burua ezkutatzea, behar bada, hori izan liteke hari errespetua ukatzeko modurik hoberena. Nire eginkizuna, aitzitik, parekatu, hautatu, hautsi, erabaki eta estimatzeko eskubidea testigatzen duenarena da eskubide hori hezigaiek asumi dezaten.

Oraindik orain, topaketa publiko batean, unibertsitatean sartu berria zen gazte batek esan zidan:

“Ez dut ulertzen nola jaun batek defenditzen dituen lurgabeak, barrenean, sesiolari arazo-sortzaileak baizik ez diren horiek.”

“Egon litezke sesiolariak lurgabeen artean”, esan nuen, “baina horien borroka bidezkoa eta etikoa da”. “Sesiolaria” da eraberrikuntza agrarioari kosta ahala kosta kontrajartzen zaionaren erresistentzia atzerakoia. Inmoralitatea eta desordena bidegabeko “ordena” elikatzaile dira.

Elkarrizketa itxuraz hortxe amaitu zen. Mutilak isilik estutu zuen nire eskua. Ez dakit harrez gero nola tratatuko zuen auzia, baina garrantzizkoa izan zen pentsatzen nuena esan izana eta nigandik entzun izana justiziaz esan behar niona esaten.

Horrela saiatzen naiz irakasle izaten, neure konbikzioak asumituz, jakitearekiko eskuragarri, jarduera hezitzailearen ederrarekiko sentibera, burokratizatzen uzten ez dioten bere erronkek zirikatutik, neure mugak asumituz, horiek gainditzeko ahalegina lagun dutela beti; muga horiek ezkututzen ez naiz ahalegintzen hezigaiei diedan errespetuaren izenean berean.

2.7. IRAKASTEAK POZA ETA ESPERANTZA ESKATZEN DITU

Jarduera hezitzailearekiko nire inplikazioa, jakina denez politiko, moral, gnoseologikoa dena, inoiz ez da pozik gabe egina izan, nahiz eta horrek ez duen esan nahi hutsik egin gabe hezigaian sortu dudarik. Baina, hartaz arduraturik, pedagogigunearen giro edo egurats gisara, ez nion utzi egoteari.

Bada erlazio bat jarduera hezitzaileak beharrezko duen pozaren eta esperantzaren artean. Irakasleak eta ikasleak elkarrekin ikasi, irakatsi, kezkatu, ekoiztu eta guztiok elkarturik gure pozaren eragozpenei aurre egin diezaiekegun esperantza. Egia esan, giza izaeraren ikuspuntutik esperantza ez da hari alboratzen zaion zerbait. Esperantza gure giza izaeraren parte da. Kontraesan bat izango litzateke, bukatugabe eta bukatugabetasunaz kontziente, lehenik, gizakia ez balitz txertatuko edo ez balitz aurkituko prest bilatze-mugimendu iraunkor batean esku hartzeko eta, bigarren, esperantzarik gabe bilatzen ibiliko balitz. Etsipena esperantza ukatzea da. Esperantza bulkada natural posible eta beharrezko moduko bat da, etsipena bulkada hori abortatzea da. Esperantza ezinbesteko ongarrria zaio esperientzia historikoari. Hori gabe, ez legoke Historiarik, determinismo hutsa baizik. Historia denbora problematizatu dagoen tokian soilik dago, eta ez aurrez-emana. Etorikizunaren aldaezintasuna Historiaren ukazioa da.

Argi eta garbi utzi behar da etsipena, desesperantza ez dela gizakiaren izateko modua, esperantzaren distortsioa baizik. Ni ez naiz lehenik etsipenezko izaki esperantzak konbertitu behar duena edo ez duena. Ni, aitzitik, *esperantzazko* izaki naiz “n” arrazoiengatik etsipenak

jotakoa. Hortik dator gizaki bezala dugun ahaleginetako bat mugiezintzen gaituen etsipenerako arrazoi objektiboak gutxitzearen zentzuan egitea izatea.

Horregatik guztiarengatik egundoko kontraesana dirudi pertsona aurrerakoi batek, berri-tasunari beldurrik ez diona, bidegabekeriekin gaizki sentitzen dena, diskriminazioekin mintzen dena, gisakotasunaren alde borrokatzen dena, inpunitatearen aurka aritzen dena, fatalismo ziniko eta mugiezintzailea errefusatzen duena ez izatea kritikoki esperantzatsua.

Historiaren ulerkuntza mekanizista batean etorkizuna desproblematizatzek, eskuinetik zein ezkerretik eginak, heriotzara edo ametsaren, utopiaren, esperantzaren ukazio autoritario-ra eramaten du. Izan ere, Historiaren ulerkuntza mekanizistan beraz deterministan, etorkizuna jadanik jakina dago. Horrela “a priori” ezagaturiko etorkizun baten aldeko borroka alde bate-ra uzten du esperantza.

Etorkizunaren desproblematizazioa, berdin dio zeren izenean, haustura bortxazko bat da sozialki eta historikoki eratzten ari den gizakiarekiko.

Izan nuen behin, Olindan, tropikoetan bakarrik ezagutzen den bezalako goiz euritsu eta eguzkitsu batean eredu-zko deituko nukeen elkarrizketa bat herri-hezitzaile gazte batekin une-oro, hitz oro, gogoeta oro, bere aukera demokratiko eta herritarra bizi zuen koherentzia ageri zuena. Ibili genbiltzan, Danilson Pinto eta biok, arima mundura zabalik genuela, jakinguratsu, harkor, favela bateko bidexketan barrena, non goiz ikasten baita, seta handiarekin bakarrik lortzen dela bizitza ehotzea bere ia-absentziarekin –edo ukazioarekin, gabeziarekin, meha-txuarekin, etsipenarekin, irain eta saminarekin. Eta mundu tratutxartu eta iraindu hartako kale-etan barrena gindoazela, ni neure gaztaroko esperientziak gogora ekarriz Olinda edo Recife²³ beste favela batzuetan, arima urratuko favelatarrekiko neure elkarrizketak gogora-tuz. Giza saminarekin topo eginez, arazo-multzo baten inguruko galderak egiten genituen. Zer egin, hezitzaile gisa, horrelako testuinguru batean lan egitean? Ba al dago zereginik ere? Nola egin zeregina? Zer behar dugu guk, hezitzaile deituok, *jakin* gizonezko, emakumezko eta haurrekin geure lehen topaketak berak ere bideratzeko, zeinen gizatasunari uko eta trai-zio egiten baitzaio, zeinen existentzia zanpatu egiten baita? Favelatik hain tratutxartua ez zegoen herri-azoko alderdi batera zeraman zubixka baten gainean gelditu ginen. Ibai-adar satsutu, bizigabe baten gainetik begira geunden eta bertako lokatzak, ez urak, blai egiten baitzituen erdi-murgildurik zeuden *mocambo* edo *txabolak*²⁴. “Baina *txabolak* baino harago”, esan zidan Danilonek, “badago zerbait okerragoa: zarama publikoa biltzen den zabaldi handi bat. Inguru honetako guztiko biztanleak zaramatan ‘arakatzen’ ibiltzen dira jateko, jan-teko, edo bizirik irauteko”. Zaborra ikaragarri horretatik, orain bi urte, familia batek bular anputatu baten zatiak jaso zituen ospitaleko hondakinen artetik beren igandeko bazkaria prestatzeko. Inprentak aipatu dudan albistearen berri eman zuen, izuturik eta amorru justuz beterik, *Á Sombra desta mangueira* neure azken liburuan. Baliteke albisteak pragmatiko libe-ralengan beren erreakzio ohiko eta fatalista, beti ahaltsuen aldekoa sortu izana. “Triste da, baina zer egin? Errealitatea horixe da hain zuzen ere”. Errealitatea, hala ere, ez da derrigo-rrean hori. Hori bada berdin-berdin izan liteke beste zerbait eta beste zerbait izan dadin egin behar dugu borroka aurrerakoioak. Ni triste baino areago etsita sentituko nintzateke eta zen-tzurik aurkitu ezinik munduan dudan neure presentziarentzat, baldin eta arrazoi indartsu eta suntsiezinek konbentzituko banindute giza existentzia determinazioaren esparruan gertatzen dela. Esparru horretan nekez hitz egin ahal izango litzateke aukerez, erabakiaz, askatasunaz,

23. Brasilgo iparraldeko lurraldea, Freireren jatorrizko lurraldea hain zuzen ere.

24. *Mocambo* edo beltzen txabola, esklabotza-garaiko hitza da.

etikaz. “Zer egin? Errealitatea horixe da hain zuzen”, izango litzateke diskurtso unibertsala. Diskurtso monotono, errepikatua, giza existentzia bera bezalakoxea. Horrela determinaturiko historia batean errebeldiazko posizioek ez daukate iraultzaile bihurtzerik.

Amorrua izateko eskubidea daukat, hori azaltzekoa, neure lanerako motibazioztat eduki-itzeko, maitatzeko eskubidea daukadan bezala, neure maitasuna munduari adierazteko neure lanerako motibazioztat edukitzeko zeren, historiko naizelarik, Historian bizi bainaiz ahaltsundeboran bezala eta ez determinaziokoan. Errealitatea horrelakoa izango balitz horrelakoa izan behar duela esana dagoelako ez legoke amorrua eduki beharrik ere. Amorrurako nire eskubideak aurreuposatzen du, partaide naizen esperientzia historikoa, biharkoa ez dela zerbaite aldez aurretik emana, erronka bat, arazo bat baizik. Nire amorrua, nire haserre bidezkoa gizakien izaeran inskribaturiko “gehiago izateko” eskubidearen ukapenaren aurrez aurreko nire erreboltan oinarritzen da. Ezin dut, horregatik, besoak fatalistaki gurutzatu miseriararen aurrean, horrela neure erantzunkizuna hustuz errealitatea horrelakoxea delako aldatzeko ezintasunaz hitz egiten duen diskurtso ziniko eta “epelean”. Moldatzearen edo bere defentsaren diskurtsoa, ezarritako isiltasuna, isilarazien mugiezintasuna eragiten duena goratzen duen diskurtsoa, moldaera, patu edo astru bezala hartua, goresten duen diskurtsoa humanizazioaren diskurtso ukatzailea da eta horrekiko erantzukizuna ezin dugu geure gainetik kendu. Humanizazioa ukatzen duten egoeretara moldatzea onar daiteke esperientzia menpe-razitzailearen ondorio gisa, edo erresistentzia-ariketa, borroka politikoko taktika gisa. Inpresioa ematen dut gaur onartu egiten dudala isilarazi-kondizioa ongi borroka egiteko, ahal dudanean, neure buruaren ukapenaren aurka. Auzi hori, amorruren bidezkotasuna jendearen ukapenaren aurreko otzantasun fatalistaren aurka izan zen goiz hartako gure elkarriketan erabili genuen gaietako bat.

2.8. IRAKASTEAK ALDAKETA POSIBLE DELAKOAREN KONBENTZIMENDUA ESKATZEN DU

Lehen jakiteetako batek, favelara edo gure izateko eskubideari egindako traizioek markaturiko errealitateetara iristen denarentzat ezinbestekoa denak, nahi du bere *presentzia bizikidetza* bihurtuz joatea, *testuinguruan* bere egotea harekin egote bihurtuz joatea, etorkizuna arazo dela jakitea da eta ez aldaezintasun. Historia ahaltsun bezala jakitea da eta ez *determinazio* gisa. Mundua ez da. Mundua izaten ari da. Subjektibitate jakinguratsu, adimentsu, objektibitatearekiko interferitzaile bezala, zeinekin erlazionatzen bainaiz dialektikoki, munduan dudaneure eginkizuna ez da bakarrik konstatatzen duenarena edo gertatzen denarena, baizik eta gertaeren subjektu bezala esku hartzen duenarena ere bai. Ez naiz *Historiaren* objektu soilik, baita bere subjektu ere. Historiaren, kulturaren, politikaren munduan, ez dut *konstatatzen* neure burua *moldatzeko aldatzeko* baizik. Mundu fisikoan bertan nire konstatazioak ez nau ezintasunera eramaten. Lurrikarei buruzko ezagutzak ingeniari-tza oso bat gartzen du, haiekiko biziraute laguntzen diguna. Ezin ditugu ezabatu baina egiten dizkiguten kalteak gutxitu ditzakegu. Konstatatu, errealitatean *esku hartzeko* gai bihurtzen gara, eta hori askoz azata konplexuagoa da eta jakite berriak sortzen dituen hartara moldatze hutsarena baino. Eta hain zuzen ere horrexegatik ez zait posible iruditzen ezta onargarri ere *aztertzen* duenaren posizio xaloa, edo okerrago dena maltzurki neutroa, fisiko, biologo, soziologo edo matematikari, pentsatzaile edo hezitzaile dela ere. Inor ezin da egon munduan, munduarekin eta besteekin era neutroan. Ezin naiz egon munduan eskuetan goanteak ditudala *konstatatu* besterik egin gabe. Moldatzea nigan *txertatzeko* bide baizik ez da eta horrek *errealitatean erabakitzea, hautatzea, esku hartzea* inpliketzen du. Badira guk guztiok behin eta berriz egin beharreko galderak, *aztertzea azterte hutsarengatik* ezinezkoa dela ikusarazten digutenak. Konpromisorik gabe *aztertzea* misterio-tsuki, bat-batean, munduare-

kin inolako zerikusirik ez bagenu bezala, han kanpoan eta urrun dagoen munduarekin, gugandik aldentua eta gu beragandik.

Zeren alde aztertzen dut? Noren alde? Zeren aurka aztertzen dut? Noren aurka aztertzen dut?

Zer zentzu leukake Danilsonen jarduerak zubixkatik nabarmentzen genuen munduan, baldin eta berarentzat, destino ahalguztidun batek dekretaturik baleuka gabeziak zigorturiko jende haren inpotentzia? Eragotzi egingo lioke Danilsoni ia lan egitea herriaren jardunaren hobekuntza posiblean bizitzaren ukapenera moldatzearen prozesu errefusaezinean. Danilsonen jarduera horrela etsipenaren laudorioa izango litzateke. Hala eta guztiz ere, berarentzat, niretzat bezalaxe, etorkizuna problematikoa eta aldaezina ez den heinean, beste egiteko bat sortzen zaigu. Biharkoaren problematikotasuna eztabaidatuz, hain begibistako bihurtuz, non favelan guztiaren gabezia baitago, era berean begibistako bihurtuz joatea oinazera, gosera, erosotasunik ezara, higiene gabeziara moldatzea, zeina bakoitzaren niak, gorputz eta arima bezala esperimenteratu baitu erresistentzia fisiko era bat dela eta horri beste bat elkartzu doakiola, kulturala. Miserableei egiten zaien zabarkeria iraingarriarekiko erresistentzia. Barranean, erresistentziak –organikoak eta/edo kulturalak – *trebezia* beharrezkoak dira zapalduen biziraumen fisiko eta kulturalerako. Sinkretismo erlijioso afro-brasildarrak erresistentzia adierazten du edo kultura afrikar esklaboak kolonizatzaile zuriaren botere hegemonikotik bere burua babesteko zeukan trebezia.

Beharrezko da, beraz, bizirik iraunarazten digun erresistentzian, etorkizuna *arazo* bezala *ulertzean* eta *gehiago izateko* bokazioan, izateko prozesuan dagoen giza izaeraren adierazpen gisara, geure *errebeldiarako* eta ez geure *etsipenerako* oinarriak izatea izatea suntsitzen diguten irainen aurrean. Ez dugu geure burua etsipenean baieztatzen baizik eta injustizien aurreko geure errebeldian.

Aurre egin behar diegun auzi nagusietako bat jarrera errebeldiak jarrera iraultzaile bihurtzea da, mundua eraldatzearen prozesu radikalean konprometitzen gaituztelarik. Errebeldia abiapuntu ezinbestekoa da, haserre justuaren leherketa da, baina ez da nahikoa. Errebeldiak salaketa den neurrian luzatu beharra dauka posizio radikal eta kritikago bateraino, iraultzailea, funtsean iragarlea izango deneraino. Mundua aldatzeak dialektizazioa inplikatu du egoera desgizatiartzailearen eta hori gainditzearen iragarpenaren, funtsean, gure ametsa den horren artean.

Oinarrizko jakite honetatik abiatuz: *aldatzea zaila baina posible da*, hortik programatu dugu geure egintza politiko-pedagogikoa, berdin dio konprometitzen garen egitasmoa helduen edo haurren alfabetakuntzako den, osasun-egintzako, ebanjelizazioko, lanetsu teknikoaren prestakuntzako.

Danilson bezalako hezitzaileen arrakasta inoiz uzten ez duen ziurtasun horretan dago funtsean posible dela aldatzea, beharrezkoa dela aldatzea, miseriazko egoera konkretuak iraunaraztea inmoraltate bat dela. Historia egiaztatzen ari den jakite hori horrela bihurtzen da egintza-printzipio eta bide-urratzaile, jardunean, beste jakite ezinbesteko batzuk eratzeko.

Kontua ez da biztanleria sakailatu eta penatuari errebolta dadin, mobiliza dadin, bere burua defenditzeko, hau da, mundua aldatzeko antola dadin ezartzea. Kontua da, egia esan –berdin dio alfabetakuntzan, osasungintzan, ebanjelizazioan edo horietan guztietan lanean ari garen– alor horietako bakoitzeko lan bereziarekin parez pare talde herritarrei erronka jotzea termino kritikotan, duten egoera konkretua ezaugarritzen duten biolentzia eta injustizia sakona hauteman ditzaten. Areago, beren egoera konkretua ez dela destino ziurra edo *Jainkoaren borondatea, aldatzerik ez dagoen zerbait*.

Ezin dut onartu gudu onaren taktikatzat zenbat eta okerrago hobeto izeneko politika, baina ezin dut ere onartu, zirkinik egin gabe, kontzientzia zapaldua anestesiatuz, gizartearen beharrezko aldakuntza "sine die" luzatzen duena. Ezin dut debekatu favela batean, nik lan egiten dudan zapalduak hautagai atzerakoiei botoa ematea, beharturik nago egitera doan errakuntzaren, nahasten ari diren kontraesanaren berri ematera. Politiko atzerakoari botoa ematea "status quo" a iraunarazteari laguntzea da. Nola eman diezaioket botoa, aurrerakoia eta neure aukerarekiko koherentea banaiz, hautagai bati bere diskurtsoan, desamodioz gainezka, proiektu arrazistak iragartzen ari bada?

Miseriaren esperientzia biolentzia delakotik abiatu, eta ez herri-alferkeriaren edo mes-tizaiaren fruitua edo Jainkoaren borondate zigortzailearen adierazpena, borrokatu behar dugun biolentzia delakotik, hezitzaile naizen heinean, gero eta gaituago bihurtu beharra daukat, bestela borroka horrek eraginkortasuna galduko bailuke. Izan ere aipatu dudan jakite hori -aldatzea zaila da baina posible da-, itxaropentsu egintzara bultzatzen nauen hori, ez da nahikoa aipatu dudan beharrezko eraginkortasunerako. Hartan oinarriturik nagoen neurrian mugituz jakite bereziak eduki eta berri beharra daukat, izan ere alor horretan kezkatzen baita nire jakinmina eta errotzen nire jardura. Nola alfabetatu hizkuntzaren jabeakuntzari buruz, hizkuntza eta ideologiaz, irakurketa eta idazkuntza irakasteko teknika eta metodoez ezagutza zehatzik gabe? Bestalde, nola lan egin, edozein alorretan dela ere, alfabetakuntzakoan, proiektu kooperatiboetako ekoizpen ekonomikokoan, ebanjelizazioakoan edo osasungintzakoan gizataldeek beren biriziraumenerako nolako trebeziak sortzen dituzten pixkanaka ezagutu gabe?

Hezitzaile naizen aldetik gero eta hobeto "irakurri" beharra daukat lanean ari naizen talde herritarrek parte diren beren hurbileko testuinguruaz eta zabalagoaz egiten duten munduaren irakurketa. Zera esan nahi dut: ezin dut inondik ere, talde herritarrekiko neure erlazio politiko-pedagogikoetan, horien esperientziaz egindako jakitea aintzakotzat ez hartu. Munduaz ematen duten azalpena, zeinen parte baita munduan bere presentzia proiektuaz duten ulerkuntza. Eta hori guztia esplizitaturik edo iradokirik edo ezkutaturik dator nik "munduaren irakurketa" deitzen dudana eta beti "hitzaren irakurketa"ren aurretik datorren horretan.

Baldin eta, alde batetik, ezin banaiz moldatu edo talde herritarren jakite xalora "konbertitu", bestalde, ezin dut, benetan aurrerakoi baldin banaiz, neure jakitea *egiazkoa* bailitzan goitik behera harroki ezarri ere. Elkarrizketak, zeinetan talde herritarra bere buruari erronka eginez baitoa, bere historia soziala halaber bere kideen esperientzia sozial bezala pentsatze-
ra, jakite batzuk gainditzeko premia azalduz doa, zeinek, biluztu ondoren, gertakariak azaltzeko duen "gaitasunik eza" erakusten baitu.

Jardura mesianikoki autoritarioko ekintzaile politikoan hutsegite larrietako bat beti izan da erabat ez ezagutzea talde herritarrek duten munduaren ulerkuntza. Egia salbatzailearen eroaletzat beren buruak ikusirik, beren eginkizun bazterrezina ez da izan hori talde herritarrei *proposatzea inposatzea* baizik.

Oraindik orain, favelako bizitzari buruz izandako eztabaida batean langile gazte baten-gandik entzun nuen jadanik pasatua zitzaiola favelan bizi izateagatik lotsa sentitzen zuen garaia. "Orain", zioen, "harrotu egiten naiz gu guztietaz, lagunok, geure borrokaren bitartez egin dugunaz, geure antolakuntzaz. Ez da faveladuna faveladun-kondizioaz lotsa izan behar duena, baizik eta ongi eta eroso bizirik, favela sortzen duen errealtatea aldatzeko ezer egiten ez duena. Hori borrokaren bidez ikasi dut." Baliteke langile gaztearen diskurtso horrek eraginik ez izatea edo ia batere ez behintzat ekintzaile autoritarioki mesianikoan. Baliteke halakoaren erreakzioa, iraultzailea baino iraultzazalea areago denarenak favelakoaren hitz

egiteko moduaren aurka agertzea ere, borrokara baino moldatzera makurtuago agertzen denaren adierazpen bezala ulertuko bailuke. Funtsean, langile gaztearen diskurtsoa faveladunak bere esperientzia sozialaz egiten zuen irakurketa berria zen. Lehen bere buruari errua botatzen bazion, orain gai zen ohartzeko ia ez zela bere erantzunkizuna egoera hartan aurkitzea. Baina, batez ere, faveladunaren egoera ez *dela aldaezina* hautemateko gai bihurtu zen. Bere borroka askoz garrantzitsuagoa izan zen bere jakite berria eratzeko ekintzaile mesianikoki autoritarioaren diskurtso sektarioa baino.

Garrantzizkoa da azpimarratzea gizate-bizitzaren ulerkuntzako une berria ez dela pertsona bakarrarena. Diskurtso berria ahalbidetzen duena esperientzia soziala da. Hala ere, pertsona bat edo bestea aurreratu egiten da errealtate beraren pertzepzio berriaren esplizitazioan. Hezitzaile aurrerakoieren oinarritzko egitekoetako bat da, taldeko irakurketa eta berri-irakurketarekiko sentibera izaki, hori eragitea da edo testuinguruua ulertzeko era berriaren orokorkuntza estimulatzea.

Garrantzitsua da beti argi eta garbi edukitzea botere ideologiko nagusikoien parte dela menperatuengan beren egoerarekiko erantzukizuna sentiaraztea. Hortik horiek sentitzen duten erruduntasuna, beren testuinguruarekiko eta klase nagusikoiekiko erlazioetako une jakin batean, honelako edo halako egoera desabantailazkoan aurkitzeagatik. Eredugarria da California, San Franciscoko emakume penatu batengandik jaso nuen erantzuna, behartsuei laguntzen zien erakunde katoliko batean. Zailtasunez mintzo zen zeukan arazoaz, ia zer esan ere ez zekiela, eta galdera baieztatzaile bat egin nion: “Zu iparramerikarra zara, ezta?”

“Ez. Pobrea naiz”, erantzun zuen “iparramerikartasunari” desenkusak eskatzen ari bailitzan bizitzan arrakastarik ez izateagatik. Gogoan ditut bere begi urdinak malkotan blai eginak bere samina adieraziz eta munduan “porrot” egin zuelako *errua* asumituz. Horrelako pertsonak iraindu-legioen parte dira, zeinek ez baitute hautematen beren saminaren izateko arrazoia bizi diren sistema sozial, ekonomiko, politikoaren makurkerian, baizik eta beren gaitasunik eza propioan. Horrela sentitzen, horrela pentsatzen eta horrela jokatzeko dutenean, sistemaren boterea errebortxatzen dute. Ordena desgizatiartzailearen konplize bihurtzen dira.

Alfabetakuntzak, adibidez, miseriazko gune batean, giza dimentsioan zentzua hartzen du, baldin eta haren bitartez psikoanalisi historiko-politiko-sozial moduko bat egiten bada soilik eta hortik bidezkoa ez den errua kanporatzea gertatzen bada. Horri dagokio zapaltzailea zapalduaren “barrutik” kanpora “botatzea”, *itzal* inbaditzaile den heinean. Itzal hori, zapalduak kanpora bota duelarik, bere autonomiaz eta bere erantzunkizunaz ordeztu behar du. Guztiarekin ere azpimarratzekoa da, nahiz eta azpimarratu dudana ahalegin kontzientizatzailearen munta etiko eta politikoa gorabehera, ez dagoela horretan gelditzerik, bigarren maila batera bazterturik utzirik hitza idazten eta irakurtzen irakastea. Ezin dugu, ikuspegi demokratiko batean, alfabetakuntza-eskola bat gertakarien izateko arrazoiari buruzko gogoeta oro debekatzeko duen gune, baita ezta “komizio askatzaile” ere. Danilson bezalakoan funtsezko eginkizuna –eta holakoan artean kokatzen dut neure burua– intentsitatez esperimintatzea da “munduaren irakurketa”ren eta “hitzaren irakurketa”ren arteko dialektika.

“Ikasteko programatuak” eta biharko baten erreferentzia gabe bizi izateko ezinduak, emakumezkoak eta gizonezkoak dauden edonon dago beti zer egina, zer irakatsia.

Hortatik ezerk ez du, hala ere, zentzurik hartzen, niretzat, “gehiago izateko” bokazioaren kontra historikoki eta sozialki beren burua eratzeko ari direnen aurka burutzen bada, izan ere emakumezko eta gizonezkoak horretan murgildurik baikaude.

2.9. IRAKASTEAK JAKINMINA ESKATZEN DU

Zertxobait gehiago jakinminaz

Egon baldin badago esperientzia hezitzailearen ukapen bezala jarduera ereduzkorik hezigaiaren jakinmina zailtzen edo inhibitzen duena da hori eta, ondorioz, hezitzailearena. Izan ere, hezigaiaren jakinminaren ariketa eragozten edo zailtzen duten prozedura autoritario edo pater-nalistatan aritzen den hezitzailea, azkenerako bere jakinmin propioa kentzen baitu. Ez dago jakinminik etikoki sustengatzen denik beste jakinmin baten ukapen-ariketan. Seme-alaben jakin-mina *nola* eta *non* dabilen jakitean bakarrik esperimendatzen den gurasoen jakinmina burokratizatu eta iraungi egiten da. Bestea isilarazten duen jakinmina bere buruaren isilarazle ere bada. Giro pedagogiko-demokratiko ona da hezigaia bere jarduera propioaren lepotik ikasiz doana bere jakinminak bere askatasunak bezalaxe muga batzuen barruan egon behar duela, baina etengabeko ariketan. Muga horiek berak etikoki asumituak izan behar dute. Nire jakinminak ez du bestearen pribazitatea inbaditu eta inoren aurrean azaltzeko eskubiderik.

Irakasle bezala jakin behar dut mugitzen, kezkatzen, bilatzera bultzatzen nauen jakinmin-ik gabe ez dudala ez *ikasten* ez *irakasten*. Neure jakinmina era zuzenean baliaraztea jende bezala daukadan eskubide bat da eta berorren alde, jakinminaren eskubidearen alde borroka egitea dagokio. Jakinmin *bezuarekin* objektu honen edo haren profilaren memorizazio mekanikoa lor dezaket, baina ez objektuaren aprendizaiareala edo benetako ezagutza. Objektuaren ezagutza eraiki edo ekoizteak jakinminaren ariketa inplikatzan du, objektutik "distantzia hartzeko" gaitasuna, hura behatu, hura zedarritu, hura bereiztekoa, objektua "inguratzea" edo haren *hurbiltze* metodikoa egitekoa, erkatu, galdetzeko gaitasuna.

Galdera estimulatzea, galderari berari buruzko gogoeta kritikoa, galdera honekin edo harekin lortu nahi dena pasibitatearen orde irakaslearen azalpen diskurtsiboaren aurrean, *erantzun* modukoak egin gabeko galderari. Horrek ez du esan nahi benetan irakas-jarduera murriztu behar dugunik beharrezko jakinminaren defentsaren izenean burokratizazio antzutzen diren galdera eta erantzunen joan-etorri hutsera. Dialogikotasunak ez du ukatzen une azaltzaile, kontatzaileen baliozkotasuna, zeinetan irakasleak azaltzen baitu objektua edo hartaz hitz egiten baitu. Funtsezkoa da irakasleak eta ikasleek jakitea beren jarrera, irakaslearen eta ikasleena, *dialogikoa* dela, irekia, jakinguratsua, ikertzailea eta ez pasibotua, bai hitz egite eta bai entzute bezala. Axola diona da irakasleak eta ikasleek beren burua *epistemologikoki jakinguratsutzat* asumitzea.

Zentzu horretan, irakasle ona da hitz egitean ikaslea bere pentsamenduaren *mugimenduaren* intimitateraino eramatea lortzen duena. Haren ikasgela erronka bat da horrela eta ez "sehaska-kanta" bat. Haren ikasleak *nekatu* egiten dira, ez *lokartu*. Bere pentsamenduaren joan-etorriak laguntzen dituztelako nekatzen dira, haren pausaldiak, haren zalantzak, haren ziurtasun ezak ustekabearen harrapatzen dituzte.

Ikasgela dinamiko baterako teknika, material, metodoak eztabaidatzen hasi baino lehen beharrezkoa da, ezinbestekoa ere bai, irakaslea "atseendurik" egotea gizakiaren jakinmina giltzarria delako *jakitean*. Berak eragiten dit galdetzea, ezagutzea, jardutea, gehiago galdetzea, berr-ezagutzea.

Asteburu baterako egiteko bikaina litzateke ikasle-talde bati erregistratzeko eskatzea, norik bere aldetik, sortu zaizkien jakinminik nabarmenenak eta telebistako albistegiaren, publikitatearen, bideojokoaren, norbaiten keinuaren zer egoeratan sortu diren, berdin dio. Zer "trataera" eman dion jakinminari, erraz gainditu duen ala, aitzitik, beste jakinmin batzuetara gidatu duen. Ea jakinminezko prozesuan iturriak, hiztegiak, ordenadoreak, liburuak kontsultatu dituen, besteei galderak egin dizkien. Jakinminak erronka zen heinean zerbaiten behin-

behineko ezagutzaren bat sortu zuen ala ez. Zer sentitu duen bere jakinmina lantzen bere burua hauteman duenean. Baliteke, bere jakinmin propioa pentsatzeko prestaturik, hain jakinguratsua ez izana.

Esperientzia findu eta sakondu egin liteke hainbestearino non, adibidez, hamabosteroko mintegi bat egin bailiteke bai zenbait jakinmin eztabaidatzeko edota bai horien destolestape-nak egiteko.

Jakinminaren ariketak kritikoki jakinguratsuago egiten du, bere objektuaren metodikoki "pertsegitzaille" ago. Zenbat eta gehiago areagotzen den berezko jakinmina, baina, batez ere, "zorrozten" den, hainbat gehiago bihurtzen da epistemologiko.

Sekula ez naiz izan teknologiaren prezatzaile xalao: ez dut jainkotzen, alde batetik, ezta deabrutu ere, bestetik. Horrexegatik beti egon izan naiz bakean harekin tratatzeko. Ez daukat inolako zalantzarik gizarte-klase faboratuak deriztatenetako haur eta gazteen zerbitzuan teknologiak jakinminerako jartzen dituen estimulu eta erronkazo potentzial izugarriaz. Ez nuen beste arrazoirik izan, São Pauloko hiriarren hezkuntza-idazkari gisara udal-eskolen sarera ordenadorea helarazteko. Inor ez nire bilobak baino hoberik bizikide dituzten ordenadoreek zirikatuturiko jakinminaz niri hitz egiteko.

Jakinminaren ariketak irudimenari, intuizioari, emozioei, aieruak egiteko gaitasunari, konparatzekoari dei egiten die, objektuaren profilizazioan edo haren izateko arrazoiaren bilaketan. Zarata batek esaterako, nire jakinmina eragin dezake. Itxuraz hori gertatzen ari den gunea behatzen dut. Belarria zorrozten dut. Jadanik izateko arrazoa ezagutzen diodan beste zarata batekin erkatzen dut. Hobeki ikertzen dut gunea. Zarataren jatorri posiblearen inguruan hipotesi bat baino gehiago onartzen ditut. Horietako batzuk baztertu egiten ditut harik eta azalpen batera iristen naizen arte.

Jakinmin bat aserik, zutik geratzen zaio kezkatzeko eta bilatzeko gaitasuna. Ez legoke giza *existentziarik* gure izakia mundura ireki gabe, gure kontzientziaren iragankortasunik gabe.

Eragiketa hauek zenbat eta gehiago egin zorrotzasun metodiko handiagorekin, hainbat gehiago hurbiltzen naiz zehaztasun handiagorekin, neure jakinminaren aurkikuntzetara.

Nire jarduera hezitzaile-kritikoari oinarrizko zaizkion bi jakiteetako bat da berezko jakinmina sustatzea beharrezkoa dela ohartarazten didana jakinmin epistemologikorako.

Jarduera hezitzaile-kritikorako ezinbesteko beste jakite bat da nola moldatuko garen autoritate-askatasuna erlazioarekin²⁵, beti tentsoa izaten baita eta diziplina eta indiziplina sortzen dituen. Autoritatea eta askatasunaren arteko harmonia edo orekatik sorturik, diziplinak derrigor inplikatzan du bata bestearenganako duen errespetua, transgredituak izan ezin daitezkeen mugez biek egiten duten asumitzean adierazia.

Autoritarismoa eta lizentziatsutasuna autoritatea eta askatasunaren arteko oreka tentsoaren hausturak dira. Autoritarismoa autoritatearen aldeko haustura da askatasuna eta lizentziatsutasunaren aurka, lizentziatsutasuna askatasunaren aldeko haustura autoritatearen aurka. Autoritarismoa eta lizentziatzotasuna portaera-era diziplinagabeak dira gizakiaren bokazio ontologiko deitu izan dudana ukatzen dutenak²⁶.

25. Ikusi Freire, Paulo, *Professora Sim, Tia não. Cartas a quem ousa ensinar*. São Paulo, Olho d'Água, 1995.

26. Ikusi Freire, Paulo. *Pedagogia do Oprimido*. Rio de Janeiro, Paz e Terra, 1970. *Pedagogia da Esperança*. Rio de Janeiro, Paz e Terra, 1995.

Autoritarismoan edo lizentziatsutasunean diziplinarik ez dagoen bezala, bietan desagertu egiten da, hertsiki, autoritatea edo askatasuna. Soilik autoritateak eta askatasunak beren burua beren horretan baieztatzen eta gordetzen duten jardueretan, beraz elkarrenganako errespetuan, hor bakarrik hitz egin daiteke jarduera diziplinatuz baita gehiago izateko boka-zioaren aldeko jardueraz ere.

Gure artean, gure iragan autoritario, kontestatuaren funtziotan, modernitate anbiguo baterako segurtasuna ere beti izan ez duenarenean, forma autoritario eta forma lizentziatsuetan zabuka gabiltza. Askatasunaren halako tirania baten eta autoritatearen areagotze baten artean, baita bi hipotesien konbinazio batean ere.

Ona izango litzateke kontrajartze errealki tentsoa esperimintatzea, zeinean alde batetik autoritatea eta bestetik askatasuna, elkar neurtuz, elkarrez baliatuko balira eta zein bera izaten ikasiz joango balira, egoera dialogikoak sortzen. Horretarako, ezinbestekoa da biak, autoritateak eta askatasunak, gero eta errespetu komunaren idealera gehiago hurbilduz bakarrik beren buruak autentikotzea.

Has gaitzen gogoeta egitetik irakas-autoritate demokratikoak ikasleen askatasunarekiko bere erlazioetan haragitzea behar dituen kalitate batzuei buruz. Interesgarria da behatzea nire ikas-esperientzia oinarritzkoa dela antolatu dudan nire irakas-jarduerarako edota harekin aldi berean orain edukitzen ari naizenerako. Nire ikasle-askatasuna kritikoki bizi izanez, neurri handi batean, prestatzen dut neure burua neure irakasle-autoritatearen ariketa asumitzeko edo berregiteko. Horretarako, bihar irakastea amets egiten duen gaurko ikasle gisara edo jadanik gaur irakasten duen ikasle gisa irakasle desberdinekin edukitzen ari naizen esperientziak neure jakinminaren objektutzat eduki behar ditut, baita neure propioak ere, baldin baditut, neure ikasleekin. Hara zer esan nahi dudana: ia ez dut ezer pentsatu behar diziplina desberdinetako irakasleak aurkezten edo eztabaidatzen ari diren eduki pragmatikoetan, baina aldi berean bai ordea, irakasle honek edo hark irakasten duen era irekiago, dialogikoagoan edo itxiago, autoritarioagoan.

3. ATALA. Irakastea giza berezitasun bat da

Bere burua adierazteko, hazteko zer ahaltsun ditu nire jakinminak? Ikasleen askatasunarekiko bere erlazioetan irakas-autoritate demokratiko batek agertu behar dituen funtsezko kalitateetako bat, nik uste, bere buruarekiko segurtasuna da. Diharduen, erabakitzen duen, askatasunak errespetatzen dituen, bere posizio propioak eztabaidatzen dituen, bere burua berrikustea onartzen duen irmotasunean adierazten den segurtasuna da.

Bere buruaz ziur, autoritateak ez dauka, uneoro, bere existentziaz, bere buruaz diskurtsoa egin beharrik. Ez dauka inori galdetu beharrik, bere legitimitateaz ziur, "ba al dakizu norekin ari zaren hizketan?" galdetu beharrik. Bere buruaz ziur, bera baldin bada autoritatea duelako da, jakituria eztabaidea ezinez baliarazten duelako.

3.1. IRAKASTEAK ZIURTASUNA, GAITASUN PROFESIONALA ETA BIHOTZABALTASUNA ESKATZEN DITU

Irakas-autoritatea mugitzen den segurtasunak beste bat inplikatzeko du, bere gaitasun profesionalean oinarritzen dena. Ez dago irakas-autoritaterik gaitasun horretatik kanpo gauzatzen denik. Bere prestakuntza seriotan hartzen ez duen irakasleak, aztertzen ez duenak,

bere egitekoaren mailan jartzen saiatzen ez denak ez dauka indar moralik bere ikasgelako jarduerak koordinatzeko. Horrek ez du esan nahi, hala ere, irakaslearen aukera eta jarduera demokratikoa gere gaitasun zientifikoak determinatuak direnik. Badaude irakasle zientifikoki prestatuak baina erabat autoritarioak direnak. Esan nahi dut gaitasun eza profesionalak deskalifikatu egiten duela irakaslearen autoritatea.

Autoritateari askatasunarekiko bere erlazioetan ezinbesteko zaion beste kualitate bat bihotzabaltasuna da. Ez dago ezer autoritatearen egiteko formatzailea gehiago kaxkartzen duenik bere portaeraren ziztrinkeria baino.

Besteak epaitzen dituen arrandia farisaiko, makurra eta bere burua edo beretarrak epaitzen dituen barkaberatasun biguna. Bihotzabaltasuna ukatzen duen arranditasunak umiltasuna ere ukatzen du, ez baita iraintzen dutenen bertutea, ezta haren umilazioarekin pozten direnena ere. Erlazio justu, serio, umil, bihotzabaleatik jaiotzen den errespetu-giroa, zeinetan irakas-autoritateak eta ikasleen askatasunek beren buruak etikoki asumitzen baitituzte, pedagogigunearen izaera formatzailea autentikotzen du.

Aginduaren ariketarekiko erreakzio negatiboa hain bateraezina da autoritatea baliaraztearekin, nola den agintearekiko gutizia. Mandonismoa, agintekeria hain zuzen ere agintearekiko gozamen eutsiezin eta desarauzkoa da.

Irakas-autoritate mandonista, zurrunik, ez du kontuan hartzen hezigaiaren ezein sormen. Ez da bere izateko, itxaroteko eraren parte, inondik ere, hezigaiak abenturatzeko zaleztasuna agertzea.

Autoritate koherenteki demokratikoak, bai bere buruarenean, bai hezigaien askatasunarenean, benetako diziplinazko giroa eraikitzeke, ez du inoiz askatasuna gutxienesten. Aitzitik, haren aldeko apostua egiten du. Behin eta berriz hari desafio egiten saiatzen da; ez du inoiz ikusten, askatasunaren errebeldian, ordenaren narriotze-seinalerik. Autoritate koherenteki demokratikoa konbentziturik dago egiazko diziplina ez dagoela egonkoitzean, *isilarazien* isiltasunarean, baizik eta *kezkatuen* zalapartan, zirikatzen duen zalantzan, iratzartzen duen espeptantzan.

Autoritate koherenteki demokratikoak, areago, gure presentziaren etikotasuna berrezagutzen duenak, emakumezkoen eta gizonezkoena, munduan, horrek berrezagutzen du, halaber, derrigorrean ez dela etikotasuna askatasunik gabe bizi izaten eta ez dela askatasunik izaten arriskurik gabe. Bere askatasuna baliarazten duen hezigaiak hainbat libreago izango da, zenbat eta etikokiago asumituz doan bere egintzen erantzunkizuna. Erabakitzea haustea da eta, horretarako, arriskua hartu beharra daukat. Ez da hausten pitanga-zuku²⁷ bat hondartza tropikal batean hartzen den modura. Baina, beste alde batetik, autoritate koherenteki demokratikoak inoiz ez du bere burua *ezabatzen*.

Uko egiten dio, alde batetik, hezigaien askatasuna isilarazteari, baztertu egiten du, bestetik, diziplina ona eraikitze-prozesua deusezte.

Autoritate koherenteki demokratikoaren praktikan beti presente dagoen ahalegin bat oinarritzko amets baten erdi-morroi bihurtzen duena da: bere buruarekin, bere baitan eraikiz doan askatasuna, bere autonomia pertsuaditu edo kobentzitzea, nahiz eta kanpotik etorritakoak izan, berak birlanduriko materialekin. Eta horrekin, *autonomia*, nekez bere burua eraikiz, askatasuna lehen bere *dependenziak* "bizilagun" zuen "espazioa" betez doala. Bere autonomia pixkanaka asumitzen ari den *erantzunkizunean* oinarritzen da.

27. Pitanga: Izen hori duen fruitua, zuku edo muztio eginik ere hartzen dena.

Autoritate demokratikoaren papera ez da, giza existentzia "tradiziozko" eskola"-egutegi" bihurtuz, askatasunerako bizi-irakaspenak markatzea, baizik proposatzeko eduki programatiko bat duenean ere, argi eta garbi uztea, bere testigantzarekin, funtsezkoena edukiaren aprendizaiaren asumitzen den askatasunaren erantzukizuna eraikitzea dela.

Barreanean, hezitzailea eta hezigaiaren, autoritatea eta askatasunaren, gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioetan funtsezkoena gizakiaren berrasmatzea da bere autonomiaren aprendizaiaren.

Hezitzaile bezala mugitzen naiz, lehenik, jende bezala mugitzen naizelako.

Jakin dezaket pedagogia, biologia zein astronomia, lurra zain dezaket zein nabigatu. Jende naiz. Badakit ezjakina naizela eta badakit jakituna naizela. Horregatik, hainbat jakin dezaket oraindik ez dakidana, nola hobeki jakin dezakedan jadanik badakidana. Eta hainbat hobeto eta autentikokiago jakingo dut, zenbat eta eraginkorkiago eraikitzen dudan neure autonomia besteenekiko errespetuan.

Irakastea eta, irakasten dudan heinean, ikasleei testigantza ematea zeinen oinarrizko zaidan haiek errespetatzea eta neure burua errespetatzea inoiz dikotimizatu ez ditudan atazak dira. Inoiz ez zait posible izan bi unetan bereiztea hezigaiaren prestakuntza etikoko edukien irakaskuntza. Ikaslerik gabe existitzen ez den irakas-jarduera jarduera oso bat da. Edukien irakaskuntzak irakaslearen testigantza etikoa inplikatzan du. Irakas-jardueraren edertasunak bi osagai ditu: irakaslearen eta ikasleen gaitasun-irrika bizia eta horien amets etikoa. Ez dago edertasun horretan lekurik gisakotasunaren ukapenerako, ez era zakarrean ez fariseuzkoan. Ez dago puritanismoarentzako lekurik. Garbitasunerako bakarrik dago lekua.

Hau ezinbesteko beste jakite bat da irakas-jarduerarako. Irakaskuntza hezigaiaren prestakuntza etikoaren edukietatik bereiztea ezinezkoa den jakitea. Praktika eta teoria, autoritatea eta askatasuna, ezjakintasuna eta jakituria, irakaslearenganako errespetua eta ikasleenganako errespetua, ikastea eta irakastea. Ez dago termino horietako ezein, mekanizistaki, bata bestetik bereizterik. Irakasle bezala, hainbat aritzen naiz jardunean neure askatasunarekin zenbat neure ariketako neure autoritatearekin, baina baita hezigaiaren askatasunarekin ere zuzenean, zein errespetatu behar baitut, eta horien autonomiaren sorkuntzarekin zein hezigaiaren autoritatearen eraikitze-ahaleginekin. Irakasle bezala ezinezko zait laguntzea hezigaiari bere ezjakintasuna gainditzan etengabea neurea ez badut gainditzan. Ezin dut irakatsi ez dakidanik. Baina, hori, berriz diot, ez da haizeak eramaten dituen hitzekin hitz eta hitz besterik egin behar ez dudan jakitea. Aitzitik, hezigaiekin konkretuki bizi behar dudan jakitea da. Horri buruzko diskurtsorik hoberena horren jardueraren ariketa da. Ikasleak duen ikertzeko, zalantzan jartzeko, kritikatzeko eskubidea konkretuki errespetatu "hitz egiten" dut eskubide horiez. Eskubide horiei buruzko nire hitz egite hutsa, horien gauzatzeari ez badagokio, zentzugabea da.

Zenbat eta gehiago pentsatzen dudan jarduera hezitzaileaz, horrek eskatzen digun erantzunkizuna aitortuz, hainbat gehiago konbentzitzen naiz errealki errespetatua izan dadin borroka egiteko dugun eginbeharrak. Irakasleok hezigaiei zor diegun errespetua nekez betetzen da, hezkuntzako administrazio publiko edo pribatuak duintasun eta gisakotasunez tratatzen ez bagaitu.

3.2. IRAKASTEAK KONPROMETITZEA ESKATZEN DU

Neurekin aldean erabili behar dudan beste jakite bat eta orain arte hitz egindako ia guztiarekin zerikusia duena da ezinezkoa dela irakasle-jardueran aritzea gurekin ezer gertatuko

ez balitz bezala. Ezinezkoa izango litzatekeenez euritara irtetea inolako estalkirik gabe, babesik gabe, eta ez bustitzea. Ezin naiz irakasle izan ikasleen aurrean jarri gabe, neure izateko era, politikoki pentsatzeko era erraztasunez edo uzkuratasunez agertu gabe. Ezin diot ikasleen prezazioari ihes egin. Eta horiek ni hautemateko duten erak funtsezko garrantzia du neure jardunerako. Hortik, beraz, oinarrizko nire kezketako batek esaten dudanaren eta egiten dudanaren artean gero eta hurbiltasun handiagoa lortu behar izatea, itxuraz naizenaren eta benetan izan naizenaren artean.

Baldin eta ikasle batek galdetu zer den “objektutik distantzia epistemologikoa hartzea” eta ez dakidala erantzuten badiot, baina jakin dezakedala, horrek ez dit ematen ezagutzen duenaren autoritatea, neure ezjakintasuna asumituz, gezurra esan ez duenaren poza ematen dit. Eta gezurrik ez esanak ikasleegan zaindu beharreko kreditu bat irekitzen du. Etikoki ezinezkoa zatekeen erantzun faltsua esan izana, *edozein erretolika* bota izana. Baina, alde bate-tik, hain zuzen ere irakas-jarduerak, batez ere nik ulertzen dudanez, galdera bat baino gehiagorekin estimulatu ahal izateko aukera ematen didalako, ahalik eta gehien prestatu beharra daukat neure burua, bestetik, ikasleei gezurrik esan gabe jarraitzeko, ez dakidala berehala baieztatu beharrik ez izateko.

Ikasleak ohartu gabe ezin naitekeela pasa jakin, eta horiek ni hautemateko duten moduak lagundu edo trabak jartzen dizkidala neure irakasle-egitekoa betetzen, gehitu egiten dituela nigan neure eginkizunarekiko ardurak. Nire aukera demokratikoa, aurrerakoa bada, ezin dezaket jarduera atzerakoi, autoritario, elitista eduki. Ezin dut ikaslea ezein arrazoiren izenean diskriminatu. Ikasleak nitaz duen pertzepzioa ez da nire jardueratik bakarrik sortzen, baita ikasleak nire jarduera ulertzeko duen modutik ere. Bistan dago, ezin ditut eman neure egunak irakasle gisara ikasleei galdezka zer aurkitzen duten nigan edo nola ebaluatzen nauten. Baina erne egon behar dut haiekiko nire jardueraz egiten duten irakurketara. Isilune baten esanahia ulertzen ikasi beharra daukagu, edo irribarre batena edo ikasgelatik alde egite batena. Galdera bat egiteko erabili den adeitasun gutxiagoko tonua. Azken finean, pedagogigunea etengabe “irakurtzeko”, interpretatzeko *testu* bat da, “idatzi” eta “berridaztekoa”. Zentzu horretan, zenbat eta solidaritate handiagoa egon hezitzailearen eta hezigaiaren artean gune horren “tratuan”, hainbat aprendizaiak-aukera gehiago sortzen dira eskolan.

Uste dut irakasle aurrerakoiak inoiz ez duela izan gaur adinako premiarik oharturik egoteko ideologia nagusikoak hezkuntzaren neutraltasuna iradokitzeko erabiltzen duen trebetasunaren aurrean. Atzerakoa den ikuspuntu horretatik, pedagogigunea, *par excellence* neutroa, jarduera apolitikotarako ikasleak *trebatzen* direna da munduan egoteko giza egoera era neutro bat balitz bezala edo halakoa izateko modua balu bezala.

Nire irakasle-presentzia, ikasgelan eta eskolan ohartzeke pasa ezin daitekeena, berez presentzia politikoa da. Presentzia naizen aldetik ezin naiteke *omissio* izan *aukera*-subjektu baizik. Ikasleei agertu egin behar diet analizatu, erkatu, ebaluatu, erabaki, aukeratu, hautsi egiteko dudak gaitasun hori. Justizia egiteko dudak gaitasuna, egiari huts ez egitekoa. Horrexegatik hain zuzen ere, nire testigantzak etikoa izan behar du.

3.3. IRAKASTEAK HEZKUNTZA MUNDUAN ESKU HARTZEKO ERA BAT DELA ULERTZEA ESKATZEN DU

Une batez ere zalantzan jar ez dezakedan beste jakite bat da neure jarduera hezitzaile-kritikoan hezkuntza dela, esperientzia bereziki gizatiar den heinean, munduan esku hartzeko era bat. Esku hartze horrek, ongi edo gaizki irakatsitako eta/edo ikasitako edukiez gainera ideologia nagusikoia *birsortze*-ahalegina ez ezik horren desmaskaraztea inplikitzen du.

Dialektiko eta kontraesankorra, ezin liteke izan hezkuntza gauza horietako bata bakarrik edo bestea bakarrik. Ez ideologia nagusikoia *birsortzaile* huts eta ez *desmaskaratzaille* huts ere.

Neutroa, hipotesi horietako ezeinekiko “axolakabea”, ideologia nagusikoia birsortzeare-narekiko edo hori kontestatzearenarekiko, hezkuntza ez da inoiz izan, ez da eta ezin daiteke izan. Errakuntza bat da ideologia nagusikoia ataza birsortzaile huts gisa hezkuntza dekretatzea, errakuntza den bezala errealtatea estaltzeko indartzat hartzea, libreki, eragozpen eta zailtasun gogorrik gabe diharduena bezala. Errakuntza horiek Historia eta konszientziaren ikuspen akastunak inplikatzan dituzte zuzenean.

Alde batetik, Historiaren ulerkuntza mekanizista, kontzientzia materialtasunaren isla huts izatera mugatzen duena, eta bestetik, subjektibismo idealista, konszientziaren eginkizuna hipertrofiatzen duena jazoera historikoan. Ez gara, emakume eta gizonok, izaki determinatu soilak ezta baldintzazamendu genetiko, kultural, sozial, historiko, klasezko, generozkoetatik libre gaudenak ere, horiek markatu egiten baikaituzte eta gure erreferentzia baitira.

Interes nagusikoien ikuspuntutik, ez dago inolako zalantzarik hezkuntzak egien jarduera *inmobilizatzaile* eta *estaltzaile* izan behar duela. Hala eta guztiz ere, abaguneak hala eskatzen duenean, hezkuntza nagusikoia aurrerakoa da bere erara, aurrerakoa “erdizka”. Indar nagusikoiek estimulatu eta materializatu egiten dituzte aurrerapen teknikoak, ahal den heinean, era neutroan ulertuak eta burutuak. Xalografia litzateke, aingerutiara ere bai gure aldetik, espero izatea “*bancada ruralista*”²⁸ deritzonak onartzea lasai eta adostaile eraberrikuntza agrarioa garapen nazionalarentzat berarentzat garrantzirik handieneko egitasmo ekonomiko, politiko eta etiko bezala eztabaida, herrialdeko landa-eskoletan eta baita hirikoetan beraietan ere. Hori hezitzaile aurrerakoientzako ataza da, eskolen barruan eta kanpoan egin beharrekia. Antolakuntza Ez-Gobernuzkoentzako ataza da, sindikato demokratikoentzako. Jadanik ez da xaloe espero izatea, beraz, modernotzen ari den enpresalagoak, hiri-erroak dituenak eraberrikuntza agrarioa onartzea. Merkatuaren hedapenean dituen interesek “aurrerakoi” bihurtzen dute erreakzio ruralistaren aurrean. Modernotzen ari den enpresalagoaren portaera aurrerakoa, ruralisten basakeria atzerakoiaren aurrean aurrerakoa baita, *humanismoz* hustu egiten da giza interesak eta merkatuarenak kontrajartzen direnean.

Inmoralkeria da niretzat, orain arte egin izan den bezala, *merkatuaren* interesak gizakia-reenen gainetik jartzea.

Ongi zabalik jarraitzen dut Marxen oharrera, beharrezko radikaltasunarenera, giza interesen defentsarekiko errespetua adierazten duen guztiarekiko beti erne. Interes horiek talde edo jende-klase soilen gainetik daude.

Onartzen dugunean, hain zuzen ere, behatu, erkatu, ebaluatu, aukeratu, erabaki, esku hartu, hautsi, hautatu egiteko gai garen izaki bihurtzean izaki etiko bihurtu garela eta etika *transgreditzeko ahaltasuna* guretzat ireki dela, ezingo nuke sekula transgresioa onartu *eskubide* bezala, *ahaltasun* modura baizik. Ahaltasun horren kontra borroka egin behar dugu eta ez berorren aurrean besoak tolesturik egon. Hortik dator kondenatu beharrean azkenerako transgresio etikoak zurrupatzera iristen diren fatalismo kietisten nire errefusatzeko zorrotza. Ezin naiteke bihur ordena perbertitu baten bere txarkeriarengatik erantzunkizunik egozten ez dion baten gaizkide, “indar itsuei” eta haztaezinei hark gizakiei egindako kalteak leporatuz. Gosea askitasunaren aurrean eta munduko enplegugabezia inmoralkeria dira eta ez fatalitateak atzerakoi-keriak iragartzen duenez ezer egin ezin duelako sufritzen ari denaren itxurarekin. Zera errepikatu nahi dut indarrez, ez duela ezerk justifikatzen gizakien minimizazioa, gutxiengoz

28. *Bancada ruralista*: Nekazaritza ordezkatzen duen diputatu edo senadorea.

osaturiko gehiengoan kasuan oraindik hautematen ez dutelarik elkartzuz gero gehiengo izango liratekeela. Ezerk ez, ezta zientziaren eta/edo teknologiaren aurrerapenak legitima dezake "ordena" liskarziale bat, zeinetan botereko gutxiengoek bakarrik xahutzen eta gozutzen baitute, bitartean bizirauteko zailtasunak dituen gehiengoaren aurrean horrelakoxea dela erreallitatea, haren gosea mende-amaierako halabehar bat dela esanez. Ez dut onartzen neure ahotsaren ondoan, bake-hitzak erabiliz munduko zapalduet, erreusei etsipena eskatzen diena. Nire ahotsak beste semantika bat du, beste musika bat du. Erresistentziak hitz egiten dut, suminduraz, traizionatu eta engainatuen "haserre justuz". Transgresio etikoen aurrean erreboltatzeko duten eskubideaz eta eginbeharraz, gero eta horien biktima penatuagoak baitira.

Aipatzen ari naizen diskurtso eta politika neoliberalaren ideologia fatalista giza interesek merkatuarenekiko duten desbalioz horren une bat da.

Enpresario moderno batek nekez onartuko luke "bere" langilearen eskubidea izatea, adibidez, alfabetakuntza-prozesuan edo hobekuntza teknikoazko ikastaroren batean zehar, aipatzen ari naizen ideologia hori bera. Esate baterako, honako baieztapen hau eztabaidatzea: "Munduko langabezia mende-amaiera honetako *halabehar* bat da". Eta eraberrikuntza agrarioa egitea zergatik ez da halabeharra? Eta gosea eta miseria bukatzea zergatik ez dira era berean halabehar itzuriuezinak?

Atzerakoia da baieztapena, zeinen arabera langileei interesatzen zaiena beren eragin-kortasunik handiena lortzea baita eta ez ezertara gidatzen ez duten eztabaida "ideologikoe-tan" denbora galtzea. Langileak asmatu beharra dauka bere lan propiotik abiatu, bere hiritartasuna, eraginkortasun teknikoaz bakarrik eraikitzen ez dena, baizik eta bere borroka politikoarekin gizarte injustuaren birsortzearen mesedetan, bere lekua hain injustua ez baizik gizatiarragoa den beste bati uzteko.

Jakina, behin eta berriz diot, enpresario modernoak onartu, estimulatu eta babestu egiten du "bere" langilearen trebatze teknikoak. Derrigorrean errefusatzen duena horren *formazioa* da, ezinbesteko jakite tekniko eta zientifikoa bere baitan duela, munduko bere presentziak hitz egiten duena. Giza presentzia, presentzia etikoa, doilortua eta aldi berean *itzal* huts bihurtua.

Ezin naiteke irakasle izan gero eta hobeto hautematen ez badut, neutro izaterik ez delako, nire jarduerak definizioa eskatzen didala. Posizio-hartze bat. Erabakia. Haustura. Honen edo haren artean aukera egitea exigitzen dit. Ezin naiteke irakasle izan nornahi delako baten alde eta edozer delako baten mesedetan. Ezin naiteke izan irakasle Gizakia eta Gizadiaren alde soilik, esaldi hori lausotasun handiegikoa baita jarduera hezitzailearen konkretutasunarekiko. Irakasle banaiz gizakotasunaren alde eta pudorerik ezaren aurka naiz, askatasunaren alde eta autoritarismoaren aurka, autoritatearen alde eta lizentziatasunaren aurka, demokraziaren alde eskuineko eta ezkerreko diktaduraren aurka. Edozein diskriminazio eraren, gizabanakoen eta gizarte-klaseen dominazio ekonomikoaren aurkako etengabeko borrokaren aldeko irakaslea naiz. Asedurako miseria: aberrazio hori asmatu zuen indarreango ordena kapitalistaren aurkako irakaslea naiz. Hala eta guzti ere adorea ematen didan esperantzaren aldeko irakaslea naiz. Kontsumitu eta inmobilizatzen nauen desengainuaren aurkako irakaslea naiz. Neure jarduera propioaren edertasunaren aldeko irakaslea naiz; edertasun hori galdu egiten da baldin eta irakatsi behar dudak jakitea zaintzen ez badut, jakite horren alde saiatzen ez banaiz, beharrezko baldintza materialen alde borrokatzen ez banaiz, zeinak gabe nire gorputzak, zabarturik, muzintzeko arriskua baitauka eta borrokalaria setatuaren testigu aurrerantzean ez izatekoa, nekatu bai baina etsitzen ez duena. Edertasun horrek alde egiten du nire jardueratik, neure buruaz beterik, ikasleekiko arranditsu eta destainati, neure burua miresteaz nekatu gabe.

Neure jakintzagaiaren edukiak ziur eta ongi irakasteko gaiturik egon gabe irakasle izaterik ez dudan bezala, ezin dezakete, bestalde, neure irakas-jarduera eduki horien irakaste soilera muga. Hori nire jarduera pedagogikoaren une bat besterik ez da. Hori, edukien irakaskuntza bezain garrantzitsua da nire testigantza etikoa horiek irakastean. Hori egiteko dudan gisakotasuna. Arrandirik gabe, aitzitik umiltasunez, agerturiko prestakuntza zientifikoa. Hezigiari inoiz ukatu gabeko errespetua, horren bitartez gainditzea bilatzen dudana "esperientziaz egindako" bere jakitea. Hain garrantzitsua, non edukien irakaskuntza ikasgelan dudana nire koherentzia baita. Esaten, idazten eta egiten dudanaren arteko koherentzia.

Garrantzitsua da ikasleek hautematea irakasleak egiten duen ahalegina bere koherentzia bilatzeko. Beharrezko da, halaber, ahalegin hori noizean behin ikasgelan eztabaidatua izatea. Badira egoerak zeinetan irakaslearen portaera ikasleei kontraesankorra iruditzen baitzaie. Hori ia beti irakasleak bere autoritatea ikasgelako jarduerak koordinatzera mugatzen duenean gertatzen da eta ikasleek irizten diote irakasleak gainditu egin duela bere aginpidea. Batzuetan, irakasleak berak izaten ditu zalantzak ez ote autoritatearen mugak dituen gaiturik.

3.4. IRAKASTEAK ASKATASUNA ETA AUTORITATEA ESKATZEN DITU

Testu honetako beste une batean aipatu dut oraindik konpondu gabe daukagula autoritatearen eta askatasunaren arteko tiranduraren arazoa. Tradizio autoritarioa gainditzera makurtuak, gure artean hain presente dagoen hori, portaera-era lizentziatsuetara lerratzen gara eta autoritarismoa aurkitzen dugu autoritatearen ariketa legitimoa baizik egon ez den tokian.

Oraindik orain, aukera demokratikoko irakasle unibertsitario gazte batek aipatzen zidan desbideratze bat izan zuelakoan zegoela bere autoritatearen erabilera. Esan zuen, hertsaturik, beste ikasgela bateko ikasleari ez ziola utzi gelako atea erdi-irekita zuela elkarrizketa keinuzko bat ikasleetako batekin. Areago, elkarrizketa eten egin behar izan zuela egoerak sortzen zuen desordenaren aurrean. Berarentzat, bere erabakia, bere jarduera berezia jarraitzeko beharrezko giroa pedagogiguneari itzuli ziona, horrela ikasleen eskubidea berrezarritu eta irakas-jarduera berrituz jarraituz, autoritarioa izan zen. Egia esan, ez zen halakoa izan. Lizentziatsua izango zen baldin eta baimendu izan balu gaizki zentratutako askatasun baten diziplinarik ezak testuinguru pedagogikoa desorekatzea, horrela funtzionamenduari kalte eginez.

Esku hartu izan dudana eztabaida ugarietako batean, eta zeinetan hain zuzen ere eztabaidatzen baikenuen mugen auzia, zeinak gabe askatasuna lizentzia bihurtzen baita eta autoritatea autoritarismo, eskuhartzaile batengandik entzun nuen, askatasunari ezarri beharrezko mugez hitz egitean erregimen militarren garaian bere irakasle, nabarmenki atzerakoiaren diskurtsoa ezaugarritzen zuen leloa errepikatzen ari nintzela. Nire solaskidearentzat, askatasuna edozein mugaz gainerik zegoen. Niretzat, ez, beraren aldeko apostua egiten dudalako, bera gabe existentziak beraren aldeko borrokan bakarrik balioa eta zentzua duela dakidalako. Mugarik gabeko askatasuna hain da ukatua, nola baita askatasun iratua edo irendua.

Aukera demokratikoko irakasleari sortzen zaion arazo handia hau da: nola lan egin mugaren premia askatasunak etikoki asumitzea ahalbidetzearen zentzuan. Zenbat eta kritikokiago asumitu askatasunak beharrezko muga, hainbat autoritate gehiago dauka berak, etikoki hitz eginez, haren izenean borrokan jarraitzeko.

Beste behin argi eta garbi utzi nahiko nuke zenbateko apostua egiten dudana askatasunean, zeinen funtsezko deritzodan erabakiak hartuz hori egikaritzeari. Hori izan zen, behinik behin, nire seme-, anaia-, ikasle-, irakasle-, senar-, aita-, eta hiritar-esperientzia markatu duena.

Askatasuna beste askatasunei kontrajarririk heltzen da, herrialdeko autoritatearen, irakaslearen, Estatuaren aurrean bere eskubideak defendituz. Argi dago, ez dela beti gertatzen adolezenteak erabakirik hoberena hartzea bere biharrarekiko. Ezinbestekoa da gurasoek esku hartzea seme-alabekin bihar horren inguruan. Ezin dute ez dute kanpo geratu behar baina jakin beharra dute etorkizuna beren seme-alabena dela eta ez berena. Niretzat nahigarragoa da, erabakitzeke duten askatasun-eskubidea errebortxatzea, baita ez asmatzeko arriskuan jarritz ere, gurasoen erabakia jarraitzea baino. Erabakia hartuz ikasten da erabakitzen. Ezin dut ikasi neu izaten inoiz ez badut erabakitzen, zeren beti hor baitaude neure aitaren eta neure amaren jakituria eta zentzuzkotasuna nire ordeztu erabakitzen. Ez dute balio honelako argudio inmediatek: "Kontuan hartu al duzu, adibidez, denbora eta aukera gartzeko arriskua duzula, ideia aldrebes hori aurrera eraman nahi izatean???" Semearen ideia, noski. Gure existentzian pragmatikotik dagoena ez dago gainezartzerik ihes egin ezin dugun inperatibo etikoari. Semeak, badu, gutxienez bere ideien "aldrebeskeria" probatzeko eskubidea. Bestalde, erabakiaren apendizaiaren parte da erabakitze-egintzaren ondorioak asumitzea. Ez dago erabakitze hartzetik espero izandako, gutxi espero izandako edo espero izan gabeko ondorioak jarraitzen ez zaizkiona. Horregatik da erabakia erantzunkizunezko prozesua. Gurasoen ataza pedagogikoetako bat argi eta garbi uztea da seme-alabei haien erabaki-hartzearen prozesuan esku hartzea ez dela intromisioa egin beharra baizik, harik eta berenez erabakitzeke misioa beren gain hartu nahi ez duten bitartean. Gurasoen esku hartzea batez ere hartzeke erabakiaren ondorio posibleen analisisikoa izan behar du, seme-alabekiko.

Amaren edo aitaren posizioa da autoritatearen inolako aurreiritzi edo behehartzetik gabe bere seme edo alabaren garrantzi handiko aholkulari-papera onartzen duenarena. Aholkulari horrek, nahiz eta gauzen ikuspenaren azertuaren alde borroka eginez, inoiz ez du bere borondatea ezarri nahi edo ez da sumintzen bere ikuspuntua onartua izan ez delako.

Beharrezkoa zera da, oinarritzeko ere bai, semeak etikoki onartzea, erantzunkizunez, bere erabakia, autonomiaren fundatzailea baita. Inor ez da lehenik autonomo gero erabakitzeke. Pixkanaka hartzen diren erabaki ezin zenbatu ahala desberdinen esperientzian doa eratuz autonomia. Zergatik, adibidez, ez erronka egin oraindik haurra den semeari bere eskolako lanak egiteko ordu hoberenaren aukeran esku hartzearen zentzuan? Zergatik da beti gurasoena ataza horretarako ordurik hoberena? Zergatik galdu seme-alabei azpimarratuz joateko aukera berek duten egin behar eta eskubidea, jende diren heinean, beren autonomia gauzatzuz joateko? Inor ez da inoren autonomia-subjektu. Bestalde, inor ez da bat-batean heltzen, 25 urterekin. Jendea egunero doa helduz edo ez doa. Autonomia, izakia bere buruarantz heltzen den heinean, prozesua da, bilakaera da. Ez da data jakin batean gertatzen den zerbait. Eta zentzu horretan autonomiaren pedagogia batek zentratu egon behar du erabaki eta erantzunkizunezko esperientzia estimulatzaileetan, hau da, askatasunarekiko errespetuzkoak diren esperientzietan.

Gauza bati deritzot gaur egun oso argia: sekula ez dut askatasunaren, seriotasunaren, maitagarritasunaren, solidaritatearen aldeko apostua egiteko beldurrik, eta horientzatiko borrokan ikasi dut amorraren balioa eta garrantzia. Inoiz ez dut errezelorik emaztearen, alaben, semeen, urteetan lan egin dudak ikasleen kritikaren errezelorik askatasunaren, esperantzaren, bestearen hitzaren, zutitu eta birzuitzeke haren borondatearen, kritikiko baino xaloago izatearen alde gehiegizko apostua egin izan dudalako. Beldurra zerak eman izan dit, neure bizitzeko une desberdinetan, aukera emateak, keinuen edo hitzen bidez, oportunitatzat, "errealista"tzat, "oina lurrean duen gizon"tzat, edo beti "hormaren gainean", botere bihurtuko den olatua zein izango den jakiteari itxaroten aurkitzen den "orekalar" horietako bat kontsideratua izateak baizik.

Beti jakinaren gainean errefusatu izan dudana, askatasunaren errespetuaren izenean, bera lizentziatsutasun distorsionatzea izan da. Beti saiatu izan naiz betetasunean bizi izaten erlazio teinkatu, kontraesankor eta ez mekanikoa, autoritatea eta askatasunaren artean, bien arteko errespetua segurtatzearen zentzuan, zeinen hausturak bataren edo bestearen hipertrofia eragiten baitu.

Interesgarria da ikustea, era orokorrean, nola autoritarioek sarritan uste izaten duten errespetua ezinbesteko zaiola askatasunari espontaneismo zuzengaitzaren adierazpen gisara eta lizentziatsuek autoritarismoa aurkitzen dute autoritatearen agerpen legitimo orotan. Posizio zailagoa, eztabaidarik gabe zuzena, demokratarena da, bere amets solidario eta igualitarioarekiko koherentea, zeinentzat ez baita posible autoritatea askatasunik gabe, ezta alderantzizkorik ere.

3.5. IRAKASTEAK ERABAKIAK KONTZIENTEKI HARTZEA ESKATZEN DU

Itzul gaitezen testuaren parte honetan aztertzen ari naizen auzi nagusira: hezkuntza, giza berezitasuna da, munduan esku hartzeko egintza bezala. Argi eta garbi utzi beharra dago esku hartze kontzeptua ez dela erabiltzen hemen inolako murrizpen semantikorekin. Hezkuntzan esku hartzeaz hitz egiten dudanean berdin ari naiz nola gizartearen errotiko aldatketak egitea nahi duenarenaz, ekonomiaren alorrean, giza erlazioetan, jabetza, lan, lur, hezkuntza, osasunerako eskubidearenaz, hala aitzitik atzerakoikeriaz Historia mugiezindu eta ordena bidegabeari eutsi nahi dionarenaz.

Esku hartze era horiek, alde batean enfasi gehiago jarriz bestean baino, geure aukeretan banatzen gaituzte, zeinaren garbitasunarekiko ez baikara beti leialak izaten. Oso gutxitan, adibidez, hautematen dugu gure baieztapen "aurrerakoien" eta intelektual izateko gure estilo negargarri elitistaren artean dagoen inkoherentzia erasokorra. Eta zer esan beren buruak aurrerakoitzat dauzkaten, baina jarduera pedagogiko-politikoan nagusiki autoritarioak diren hezitzaileez? Horrexegatik azpimarratu nuen hainbeste *Professora Sim, Tia Não* obran geure irakas-jardueran daukagun, beste bertute batzuen artean, koherentiaren bertutea lantzeko premia. Agian ez dago beste ezer bere burua aurrerakoitzat daukan irakasle bat gehiago higatzen duenik bere jarduera arrazista baino, adibidez. Interesgarria da ikustea nola dagoen koherentzia handiagoa ezkerreko edo eskuineko intelektual autoritarioen artean. Nekez errespetatzen eta estimulatzen du horietako batek jakinmin kritikoa, abentura-zalatasuna hezigaiengan. Nekez laguntzen du, era berariazko eta kontzientean, hezigaiaren izakia trinkotasun eta autonomia eratzen. Orokorrean ikasle pasibotuengan edukien profilarren deskribapena ezartzen setatzen gara, horien substantibotasuna, objektu gnoseologiko diren heinean ikastera desafiaturaz, horrela bakarrik ikasten baitituzte.

Hezkuntzaren direktibitatean amets, ideal, utopia eta helburuetaraino "bideratzeko" giza egintza berezi bezala daukan bokazio horretan aurkitzen da hezkuntzaren politikotasuna deitzen dudana hori. Politiko izatearen kualitatea, horren izaerak bere baitan duena. Ezinezkoa da, egia esan, hezkuntzaren neutraltasuna. Ez da ezinezko irakasle "zalapartariak" eta "subertsiboak" determinatzen dutelako. Hezkuntza ez da politika bihurtzen hezitzaile honen edo haren erabakiaren indarrez. Politika da. Horrela pentsatzen duenean, beste ezer baino gehiago aktibista den hezitzaile honen edo haren egintzaz dela baieztatzen duenean, hezkuntza politika bihurtzen dela, ezin du ezkutatu politika ulertzeko duen era mespreztatzailea. Gero "zalapartarien" egintzaz hezkuntza desitxuratu eta gutxitua delarik, orduan egiazko hezkuntza izateari utzi eta politika, balio gabeko zerbait izatera pasatzen da.

Hezkuntzaren politikotasunaren errorik sakonena gizakiaren hezigarritasunean bertan dago, zeina haren izaera bukatugabea oinarritzen baita eta zeinaz kontziente bihurtu baita. Bukatugabe eta bere bukatugabetasunaz kontziente, historikoki, derrigorrean gizakia izaki etiko bihurtuko litzateke, aukera-, erabaki-izaki. Interesei loturiko izakia, zeinekiko erlazioan, nola iraun baitezake fidel etikotasunarekiko, hala transgredi baitezake. Hain zuzen ere etiko bihurtu garelako sortu zaigu, lehen aitortu dudanez, etika bortxatzeko probabilitatea.

Hezkuntza neutroa izan zedin beharrezko zen inolako diskordantziarik ez izatea pertsonen artean, bizimodu indibidual eta sozialarekiko erlazioan, jardueran ezartzeko estilo politikoarekiko, haragituak izateko baloreekiko erlazioan. Beharrezko zen gure kasuan ez izatea, adibidez, inolako iritzi-desberdintasunik Brasilgo eta munduko gosea eta miseriaren aurrean; beharrezko zen biztanleria nazional osoak onartzea ere horiek, miseria eta gosea, hemen eta hemendik kanpora, mende-amaierako halabehar bat dela. Beharrezko zen, halaber, ahobatekotasuna izatea horiei aurre egin eta horiek gainditzeko moduari buruz. Hezkuntza izan ez dadin munduan esku hartzeko era politiko bat ezinbestekoa zen hori gertatzen den mundua gizatiarra ez izatea. Erabateko bateraezintasuna dago hizketa, pertzepzioa, ulergarritasuna, komunikagarritasuna, egintza, behaketa, erkaketa, egiaztatzea, bilaketa, aukera, erabakia, haustura, etikaren mundu gizatiarraren eta horren transgresio-ahaltasunaren eta bost axola zeren neutraltasunaren artean.

Nik nahi izan behar dudana ez da hezkuntzaren neutraltasuna baizik, kosta ahala kosta, hezigaienganako, hezitzaileenganako errespetua. Eskoletako adminitrazio publiko edo pribatuaren aldetik hezitzaile eta hezigaienganako errespetua; hezigaienganako errespetua, berdin dio zein eskola publiko edo pribatutako hezitzaileek asumitu eta praktikatu. Horrexen alde egin behar dut borroka atsedetik gabe. Errespetatua izateko dudak eskubidearen alde borroka egin eta tratu txarra ematen didatenean erreakzionatzeko dudak betebeharraren alde. Zuk, irakasle edo ikasle, zeu izateko duzun eskubidearen alde borroka egin eta sekula ez, borroka egin neutraltasuna den gauza ezinezko, grixaska eta zozo horren alde. Zer da nire neutraltasuna baizik era eroso bat, agian, baina azalutsa neure aukera edo injustizia salatzeke neure beldurra ezkutatzeko? Opresioaren aurrean "eskuak garbitzea" zapaltzailearen agintea errebortxatzea da, eta haren aldeko aukera egitea. Nola izan naiteke neutral situazio baten aurrean, zeinahi dela ere, baldin eta emakume eta gizonen gorputza espoliozio eta zabarkeriazko objektu huts bihurtzen bada?

Hezitzaile demokratikoari dagokio, hezkuntzaren neutraltasuna ezinezkoa dela oharturik, bere baitan jakite berezi bat lantzea, inoiz abandonatu behar ez duena, bere borroka motibatzen eta sustengatzen duena: *hezkuntza dena lortzeko gauza ez bada, hezkuntzak badezake oinarritzko zerbait*. Baldin eta hezkuntza ez bada gizarte-eraldakutzen giltza, ideologia nagusikoiaren birsortzaile hutsa ere ez da. Esan nahi dudana da hezkuntza ez dela indar menperaezin bat gizarte eraldatzearen zerbitzutan dagoena, nahiz eta neuk hori nahi izan, baina "status quo"aren iraunkortzea ere ez da dominatzaileak dekretatzen duelako. Hezitzaile kritikoek ezin dute pentsatu, koordinatzen duten ikastarotik edo gidatzen duten mintegitik, herrialdea eralda dezaketarik. Baina erakuts dezakete posible dela aldatzea. Eta horrek errebortxatu egiten dio bere ataza politiko-pedagogikoaren garrantzia.

Irakasle demokratiko, koherente, gaituak, bere bizi-zaletasunarekiko testigantza ematen duenak, mundu hobe batekiko esperantzarena, bere borroka-ahaltenaren desberdintasunekiko bere errespetuaren berri ematen duenak, gero eta gehiago daki errealitatea aldatzeko daukan balioa, munduan bere presentzia bizi duen era trinkoa, eskolako bere esperientzia ia une bat besterik ez dela, baina une garrantzitsu bat benetan bizi izatea merezi duena.

3.6. IRAKASTEAK ENTZUTEN JAKITEA ESKATZEN DU

Oraindik orain, adiskide-talde batekin hizketan ari nintzela, horietako batek, Olga Garcia irakasleak, esan zidan haur eta gaztetxoek bere irakasle-esperientzia pedagogikoan eta irakasleen irakaslearenean ere bai, konturatu zela zeinen garrantzitsu eta beharrezkoa den *entzuten ikastea*. Egia esan, biziartzen gaituen ametsa demokratiko eta solidarioa bada, ez da besteei hitz eginez, goitik behera, batez ere, besteei transmititu beharreko egia-eren eroale bagina bezala, *entzuten* ikasten, baizik *entzunez* ikasten dugu *horiekin hitz egiten*. Egonarriz eta kritikoki besteari entzuten dionak bakarrik hitz egiten du berarekin, eta baldintza batzuetan, *berarekin* hitz egin beharra ere izan dezake. Hitz egiteko entzuten ikasten ari denak gauza bat ez du sekula egiten: *inpositiboki* hitz egin. Derrigorrean bestearen posizio eta kontzeptioen aurka hitz egiten duenean ere bere hizketa kritikoaren entzute-subjektu bezala hitz egiten du berarekin eta ez bere diskurtsoaren objektu bezala. Entzuten duen hezitzaileak bere diskurtsoa, batzuetan beharrezkoa ikaslearentzat *berarekiko* hizketa bihurtzearen irakatsi zaila ikasten du.

Bada aldien zantzu bat, besteak beste, ikaritzen nauena: demokraziaren, askatasunaren eta eraginkortasunaren izenean askatasuna bera iratotzen da, eta hedakuntzaz, sormena eta espirituaren abenturazaletasuna. Mugitzeko, arriskatzeko askatasuna formulen halako patronizazio baten, izateko era batzuen menpean jarri da, eta horiekiko erlazioan ebaluatzen gaituzte. Argi dago jadanik ez dela errege despotikoak bere menpekoen gain, jaun feudalak bere basailuen gain, kolonizatzaileak bere kolonizatuen gain, fabrika-nagusiak bere langileen gain, estatu autoritarioak hiritarren gain sarraskituz egindako iratotzea, baizik bezatze alienatzailearen botere ikusezinak aparteko eraginkortasuna lortzen duen "buruaren burokratizazioa" deitu dudan horretan. Estrainiotasun, gogamenaren "autodimisio", gorputz kontziente, gizabanakoaren konformismo, fatalistiki aldeazintzat jotzen diren situazioen aurreko moldatze-egoera errefinatu bat. Zerbait burutua bezala gertakariei aurre egiten dienaren posizioa da, gertatu behar zuelako gertatu den bezala gertatu den zerbait bezala, eta hain zuzen ere, Historia *determinismo* bezala eta ez *ahaltasun* bezala ulertu eta bizi duenaren posizioa da. Erabateko *hauskortasunarekin* bere burua asumitzen duenaren posizioa da gertatu behar zutelako bakarrik gertatu diren gertakarien ahalguztiduntasunaren aurrean, "berrorientatuak" edo aldatuak ezin izan daitezkeelarik. Ez dago, Historia ulertzeko era mekanizista honetan, giza erabakirako lekuri²⁹. Denboraren desproblematizazioan, hau da biharkoa gaurkoaren iraukortzea dela, hau da izango dela esan delako izango den zerbait dela, ez dago aukera egiteko lekuri, baizik eta ongi buruturiko moldaerarako hor dagoenera eta izango denera. Ez dago ezer egiterik globalizazioaren aurka, zeren burutua izan behar zuelako burutua, bere destinoa jarraitu behar du, horrela baitago misteriozuzki idatzirik izan behar duela. Gutxiengo ahaltsuen agintea erretortzen duen globalizazioa eta dependenteen presentzia ezindua birrindu eta hauts egiten duena, oraindik ezinduagotuz, emandako destinoa da. Eta horren aurrean ez dago beste irtenbiderik bakoitzak otzanki bere burua beheratu eta Jainkoari eskerrak ematea oraindik bizi-ri dagoelako. Esker ona Jainkoarenganako edo globalizazioa berarenganako.

Beti errefusatu ditut fatalismoak. Nahiago dut jende naizela berresten didan errebeldia, inoiz ez baitio gizakia gutxitzen duten mekanismoak baino handiagoa dela frogatzeari utzi.

Historiaren heriotza aldarrikatuak, azken analisian, esan nahi du utopia eta ametsaren heriotza, askatasunaren asfiazko mekanismoak indartzen ditu inolako zalantzarik gabe. Hortik dator jarduera hezitzaile humanizatzaileak derrigor blaiturik egon behar duen utopiaren zentzua erreskatatzeko ahaleginak horren konstante bat izan beharra.

29. Ikusi FREIRE, Paulo. *Pedagogia da Esperança*. Rio de Janeiro, Paz e Terra.

Zenbat eta gehiago utzi neure burua Historiaren heriotzaren onarpenak seduzitzen, hainbat gehiago onartzen dut biharko desberdinaren ezintasunak hor dagoen gaurko neoliberalaren betikotzea inplikatzeko duela, eta gaurkoaren iraupenak erail egiten du nigan amets egiteko ahaltasuna. Denbora desproblematizatuz, Historiaren heriotza deitua gizakia ukatzen duen inbobilismoa dekretatzen du.

Gizakiaren *formazio* integralarekiko erabateko deskontsiderazioa eta, hori *trebaketa* huts bihurtzea goitik behera hitz egiteko era autoritarioa sendotzen dute. Kasu horretan, norbait *hitz egitea*, ikuspegi demokratikoan norbaitekin hitz egiteko une posible bat dena, entseatu ere ez da egiten. Gizakiaren formazio integralarekiko erabateko deskontsiderazioa eta, hori *trebaketa* huts bihurtzea goitik behera hitz egiteko era sendotzen dute, zeini horrexegatik falta baitaizaio bere demokratizazio-asmoa *norbaitekin hitz egitean*.

Ikasle eta irakasleen ebaluazio pedagogikozko sistemak gero eta gehiago asumitzen dira diskurtso bertikal gisara, goitik behera, baina demokratiko bezala pasatzeko ahaleginak eginez. Aurkezten zaigun auzia, irakasle eta ikasle kritiko eta askatasunaren maitale garen heinean, jakina, ez da ebaluazioaren aurka jartzea, gainera beharrezkoa baita, baizik batzuetan hori egiteko erabiltzen diren metodo isilarazleei gogor egitea. Aurkezten zaigun auzia da ebaluazioaren ulerkuntza eta jardueraren alde borroka egitearena, eta hain zuzen ere horrexegatik, askapenaren eta ez bezaketaren zerbitzuko subjektu kritikoen zeregina preztatzeko tresna diren heinean. Ebaluazio horretan *norbaiti* hitz egitea *norbaitekin* hitz egiteko bide bezala estimatu behar da.

Hitz egite- eta entzute-prozesuan isiltasunaren diziplina zorroztasunez asumitua eta bere garaian hitz egiten eta entzuten duten subjektuek komunikazio dialogikoaren "sine qua" bat da. Hitz egiten duen subjektuak entzuten dakielakoaren lehen seinalea kontrolatzeko bere gaitasuna erakustea da, ez bakarrik bere hitza esan beharra, eskubidea baitu, baizik eta gustu pertsonala, guztiz errespetagarria, hori adierazteko. Esan behar duenak era berean du esateko eskubidea eta betebeharra. Beharrezko da, beraz, esan behar duenak jakin dezala, zalantza-arrastorik gabe, bera ez dela zerbait esateko duen bakarra. Areago oraindik, esateko daukana ez dela derrigor, oso garrantzitsua delarik ere, guztiek espero duten egiazko mezularia. Beharrezko da zer esana daukanak jakitea, inolako zalantzarik gabe, entzun gabe entzuten ari denak ere modu berean esateko daukana, azkenerako agortu egiten dela esateko bere gaitasuna asko esateagatik batere edo ia ezer entzun gabe.

Horregatik, gehitzen dut, zer esana daukanak motibatuzko, entzuten duenari erronka egiteko betebeharra asumitu behar du, entzuten dagoenak esan, hitz egin, *erantzutearen* zentzuan. Tolerantzina da hezitzaile autoritarioak bere buruari ematen dion eskubidea bere ondasun bezala daukan egia eta haren gainean gogoeta egiteko denboraren jabe bezala. Berarentzat, entzuten ari denak ez dauka bere denbora propiorik eta gero entzuten ari denaren denbora berea du, bere hitz egitearen denbora. Bere hizketa, horrexegatik, gune *isilarazi* batean gertatzen da eta ez isiltasuna *duen* edo isiltasunean *dagoen* gune batean. Aitzitik, hezitzaile demokratikoaren espazioa, entzunez hitz egiten ikasten duenarena, *eten* egiten du hitz eginez isil, eta ez *isilarazi* hitz egiten duenari entzuteko *isiltzen* denaren aldizkako isiltasunak.

Isiltasunaren garrantzia komunikazio-espazioan oinarritua da. Alde batetik, eskuratzen dit, entzutean, subjektu bezala eta ez objektu, norbaiten hizketa komunikatzailea, haren pentsamenduko barne-mugimenduan sartzea bilatzea, hizkuntza bihurtuz; bestetik, posible bihurtzen du hitz egiten duena, errealki komunikatzearekin konprometitua eta komunikatu soilak egitea, ikerketa, zalantza entzutea, entzun duenaren sorkuntza. Hortik kanpo, komunikazioa iraungi egiten da.

Itzul gaitzen lehen aipaturiko puntu batera, beharrezkoa baita azpimarratzea. Munduko esperientzia existentzialaren ezaugarrietako bat euskarriko bizitzarekin alderatuta emakume eta gizonok munduan ulertzeko dugun gaitasuna da, zeinen gain jarduten baitugu, eta aldi berean ulertuaren komunikagarritasunarekin gertatu baita. Ez dago errealitatearen ulerkuntzarik komunikatua izateko ahaltasunik gabe.

Dauzkagun arazo serioetako bat da nola landu hizkuntza ahozkoa edo idatzia, irudiaren indarrari asoziatuak ala ez, munduaren atzemate edo ulertzean bertan aurkitzen den komunikazioa efektibatze zentzuan. Ulertuaren komunikagarritasuna komunikatua izateko duen ahaltasuna da baina ez da oraindik bere komunikazioa.

Hainbat irakasle hobeak naiz, zenbat eta eraginkortasun handiagoarekin lortzen dudana hezigiari eragitea bere jakinmina prestatu edo errefinatzearen zentzuan, nire laguntzarekin landu behar baitu objektuaren bere ulerkuntza edo aipatzen ari naizen edukiarena. Egia esan, irakasle bezala dudana eginkizuna, *a* edo *b* edukia irakastean, ez da ikasleak finka dezan edukiaren substantibitate deskribatzea, ahalik eta argitasun handienarekin, ahaleginak egitea bakarrik. Oinarrizko nire egitekoa, objektuari buruz argi eta garbi hitz egitean, ikasleari eragitea da, eskaintzen dizkiodan materialekin, objektuaren ulerkuntza ekoitz dezan nigan erabat jaso orde. Edukiaren ulerkuntzaz jabetu beharra dauka egiazko komunikazioa ni, irakasle naizen honen eta, ikasle den beraren artean finka dadin. Horregatik, berriz diot, irakastea ez da inori edukia transferitzea irakaslearen diskurtso bertikalean. Irakastea da zerbaiten ulerkuntza agerian jartzeko irakasleak egiten duen ahalegin metodikoki kritikoarekin zerikusia izatea, eta ikaslearen saiamen era berean kritikoarekin subjektu bezala sartuz joatea aprendizaiaren, irakasleak sortarazi behar duen desestaltze-prozesuan. Horrek ez dauka inolako zerikusirik edukiaren transferentziarekin eta irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren zailtasunaz, eta aldi berean, edertasunaz hitz egiten digu.

Ez da zaila ulertzea, horrela, nola nire ataza nagusietako bat hezitzaile aurrerakoi bezala hezigiari laguntzea izatea, berak bere zailtasunak menpera ditzen objektua atzematen edo ulertzen eta bere jakinmina, lorturiko atzematearen arrakastak saritu eta gratifikaturik, sustengatua eta, horrela, estimatua izan dadin ezagutze-prozesuak inplikatzen duena etengabe bilatzera. Barka bekik behin eta berriz esatea, baina beharrezko da azpimarratzea, beste behin: irakastea ez da objektuaren ulerkuntza hezigiari transferitzea, baizik subjektu ezagutzailerik heinean eragitea ulertzeko eta ulertua komunikatzeko gai bihurtzea. Zentzu horretan dagokit niri hezigiari bere zalantzetan, bere errezelotan, behin-behineko bere gaitasun eza entzutea. Eta entzutean, berarekin hitz egiten ikasten dut.

Entzutea bakoitzaren ahalmen fisikoaz harantzago doan zerbait da. Entzuteak, hemen aipatzen den zentzuan, entzuten duen subjektuaren aldetik prestutasun iraunkorra esan nahi du bestearen hizketa-irekitasunera, bestearen keinura, bestearen desberdintasunetara. Horrek ez du esan nahi, noski, benetan entzuteak eskatzen duenik hitz egiten ari denarengana murriztea. Hori ez litzateke entzutea, autoanulazioa baizik. Egiazko entzutea ez du gutxitzen nigan, ezertan, desakordiorako, kontrajartzeko, posizionatzeko eskubidea baliarazte-gaitasuna. Aitzitik, ongi entzunez neure burua hobeki kokatzeko prestatzen naiz edota ideien ikuspuntutik hobeki situatzeko. Bestearen diskurtsora bere burua entregatzen duen subjektu gisa, aurrekontzepturik gabe, entzule onak soltetasunez hitz egiten eta ematen du bere posizioaren berri. Entzuten duelako hain zuzen ere, bere hizketa desakordiozkoa, baieztatzaile izaki *entzuten* duelako, inoiz ez da autoritarioa.

Ez da zaila hautematen nola dauden zenbait kualitate entzute legitimoak bere subjektuari eskatzen dizkionak. Kualitate horiek entzutearen jarduera demokratikoan eratuz joaten dira.

Gure formazioaren parte izan behar du ezinbesteko kualitate horiek zeintzuk izan behar duten eztabaidatzeak, nahiz eta jakin geuk sortu beharrekoak direla, geure jardunean, baldin eta gure aukera politiko-pedagogikoa demokratikoa edo aurrerakoa bada eta harekiko koherentek baldin bagara. Beharrezko da jakin dezagun, kualitate edo bertute batzuk gabe, hala nola, maitakortasuna, besteenganako errespetua, tolerantzia, umiltasuna, poz-zaletasuna, bizitzarekiko gustua, berriarekiko zabalatasuna, aldatzeko prestutasuna, borrokako iraumena, fatalismoak errefusatzeko, esperantzarekin identifikatzea, justiziarekiko zabalatasuna, ezinezkoa da jarduera pedagogiko-aurrerakoa, zientzia eta teknikaz bakarrik egiten ez dena.

Desberdintasuna onartu eta errespetatzea da bertute horietako bat, zein gabe entzutea ezinezkoa baita. Diskriminatzen badut haur pobrea, haur beltza, haur indiarra, haur aberatsa; diskriminatzen badut emakumea, baserritarra, langilea ezin ditut entzun, bistakoa denez, eta, entzuten ez baditut, ezin dut horiekin hitz egin, *goitik behera* izan ezik. Batez ere, horiek ulertzea debekatzen diot neure buruari. Desberdinaren gainetik sentitzen naiz, berdin dio nor den, uko egiten diot *hura entzuteari*. Desberdina ez da errespetua merezi duen *bestea hau* edo *hura* da, tratu onik merezi ez duena eta mesprezagarria.

Baldin eta nire pentsamenduaren egitura ziur bakarra bada, larderiaezina, ezin dut entzun bere diskurtsoa nireaz bestelako erara pentsatu eta antolatzen duena. Eta gramatika nagusikoiaren txantiloiez kanpo hitz egin eta idazten duena ere entzuten ez dudanez. Eta nola egon irekita guk arrotz eta exotikoegizat dauzkagun beste kultura bateko izateko, pentsatzeko, baloratzeko eretara? Ikusten dugu nola desberdintasunekiko errespetuak, bistakoa denez desberdinekikoak umiltasuna eskatzen digula, zeinek ohartarazten baitzizkigu mugak gainditzearen arriskuez, zeinetatik harantzago beharrezko gure autobalioa besteenganako arrandia eta errespeturik eza bihurtzen baita. Beharrezko da baieztatzea inor ezin daitekeela umila izan formalismo hutsez, obligazio burokratiko huts bat beteko bailitzan. Umiltasunak, aitzitik, ziur nagoen ziurtasun bakanetako bat: inor beste inor baino garaiagoa ez delakoarena. Umiltasunik eza, pertsona batek beste batekiko, arraza batek beste arraza batekiko, genero batek beste generoarekiko, klase batek edo kultura batek bestearekiko adierazten duen arrandia eta sasi-nagusitasuna, gehiago izateko giza bokazioaren transgresio bat da³⁰. Umiltasunak nigandik exigi ez dezakeena niri errespeturik ez didanaren arrandia eta gozakaizkeriarekiko nire mendekotasuna. Umiltasunak nigandik espero duena, aurre egitearen mailan erreakzionatzerik ez dudanean, duintasunez aurpegia ematea da. Nire isiltasunaren eta nire begiradaren duintasuna nire protesta posiblea transmititzen dutenak.

Bistan dago ez naizela gauza gazte batekin fisikoki borroka egiteko, zeini sendotasuna eta, gutxiago oraindik, borrokalaritasuna gehitu beharrik ez baitago. Hala eta guztiz ere ez dut kaxkartu behar bere errespeturik ezaren eta bere irainaren aurrean neurekin itzulerakoan etxera ekarriz gutxienez protestazko keinu bat ere gabe. Beharrezkoa da, boterea eta nire arteko erlazioan neure ezintasuna benetan asumituz, haren koldarkeria azpimarraturik gelditzea. Beharrezko da jakin dezan badakidala bere balore etiko gabeziak gutxiagotu egiten duela. Beharrezko da jakin dezan, fisikoki ni jotzeko gai bada ere eta bere kolpeek oinazea eragiten badidate ere, ez daukala, hala ere, nahikoa indar bere nahimenera ni makurrarazteko.

Fisikoki hezigaia jo gabe ere irakasleak kolpeak eman diezazkioke, atsekabeak ezarri eta bere apendizaiia-prozesuan kalte egin. Irakaslearen erresistentzia, adibidez, hezigaia eskolara dakarren "munduaren irakurketa", bistakoa denez bere klase-kulturak baldintzaturik eta era berean klasekoa den bere hizkuntzan agertua, eragozpen bihurtzen da bere ezagutza-esperientziarako. Behin baino gehiagotan azpimarratu dudanez lan honetan eta beste

30. Ikusi FREIRE, Paulo. *Pedagogia do Oprimido*.

batzuetan, entzuten jakiteak ez du esan nahi, hau argi eta garbi utzita daukat, bat etortzea harekin, munduaren irakurketarekin edo hartara moldatzea, norik berea balu bezala asumituz. Hezigaiaren munduaren irakurketa errespetatzea ez da joko taktiko bat ere, zeinen bidez hezitzailea ahalegintzen baita hezigaiarentzat begiko bihurtzen. Hezitzaileak duen era zuzena da, *hezigaiarekin* eta ez haren *gainetik*, mundua ulertzeko duen era xaloago bat beste kritikago batez gainditzen saiatzekoa. Hezigaiaren munduaren irakurketa errespetatzeak esan nahi du hura abiapuntutzat hartzea, jakinminaren eginkizuna ulertzeko, era orokorrean, eta gizakiarena, era berezian, ezagutza sortzeko bulkada fundatzaileetako bat bezala. Beharrezkoa da, hezigaiaren munduaren irakurketa errespetatzean hartaz harantzago joateko, hezitzaileak argi eta garbi uztea munduaren ulergarritasunarekiko oinarrizko jakinmina historikoa dela eta historian gertatzen dela, hobetu egiten dela, kualitatiboki aldatu eta metodikoki zorrotzu egiten dela. Eta horrela metodikoki zorrotzuriko jakinminak gero eta aurkikuntza zehatzagoak egiten ditu. Funtsean, hezigaiaren munduaren irakurketa errespetatzen duen hezitzaileak, jakitearen historikotasuna berrezagutzen du, jakinminaren izaera historikoa, eta horretara, arrantzia zientifista errefusatu, egiazko posizio zientifikoaren umiltasun kritikoa asumitzen du.

Hezigaiaren munduaren irakurketarekiko errespeturik ezak hezitzailearen gustu elitista adierazten du, beraz antidemokratikoa, eta horrela, hezigaiak ez entzunez, ez du berarekin hitz egiten. Bere komunikatuen gordailu bihurtzen du hezigaiak.

Bada oraindik benetako garrantzia duen zerbait eztabaidakizun hezitzaileak hezigaiaren mundu-irakurketarekiko errespetua errefusatu edo errespetatzeari buruzko gogoetan. Munduaren irakurketak agerian jartzen du, bistakoa denez, kulturaliki eta sozialki eratuz doan munduaren ulerkuntza. Subjektu bakoitzaren banakako lana agertzen du mundua ulertzearen asimilazio-prozesuan bertan.

Eskolaren atazarik funtsezkoenetako bat, ezagutzaren ekoizte-gune sistematiko gisa gauzen eta gertakariaren ulergarritasuna eta horien komunikagaitasuna kritikoki lantzea da. Ezinbestekoa da, beraz, eskolak etengabe zirikatzea hezigaiaren jakinmina "gutxitu" edo "bezatu" orde. Beharrezko da hezigaiari erakustea jakinminaren erabilera xaloak alteratu egiten duela *aurkitzeko* bere gaitasuna eta eragotzi egiten duela *aurkituaren* zehaztasuna. Beharrezko da, bestalde, eta batez ere, hezigaiak pixkanaka munduaren ulergarritasunaren ekoizpen-subjektuaren eginkizuna asumituz joatea eta ez izatea irakasleak transferitutakoaren *hartzaile* soila.

Zenbat eta gaiago bihurtzen naizen ezagutzeko gai den subjektu bezala neure burua baieztatzeko, hainbat hobeto burutzen dut hori egiteko neure gaikuntza.

Inork ezin du ezagutu nire orde eta nik ere ezin dut ezagutu ikaslearen orde. Egin dezakedana eta ahal dudana, aurkitzen naizen ikuspegi aurrerakoian, eduki jakin bat irakastean, jardueran bertan eta beraren bitartez jakiteko gai den subjektu gisa hautemanetz joatera erronka eginez. Irakasle aurrerakoia nire eginkizuna ez da matematikak edo biologia irakastearena soilik, baina, alde batetik, neure irakaskuntzaren objektua den tematika tratatuz, eta bestetik, ikaslearen aprendizaiak, bere jarduera kognositibo propioaren arkitekto bezala, horrek bere burua berrezagutzen laguntzen dio.

Eduki-irakaskuntza orok aprendiz-posizioan dagoenarengandik eskatzen du, une jakin batetik, objektuaren ezagutzaren autoretza asumituz joatea. Irakasle autoritarioa, ikasleei entzuteari uko egiten diona, itxi egiten zaio abentura sortzaile horri. Ukatu egiten du halaber edertasun aparteko une horretan bere partaidetza: hezigaiaren baieztapenekoan ezagutz-subjektu den heinean. Hain zuzen ere horrexegatik, edukien irakaskuntzak, kritikoki burutuz gero, irakaslearen erabateko irekitasuna inplikatzeko du hezigaiarengan duen ahalegin legiti-

moarekiko bere eskuetan hartzeko ezagutzen duen subjektuaren erantzunkizuna. Baina gehiago oraindik, ahalegin horrek hezigaiarengan estimulatu behar duen irakaslearen ekimena inplikatzeko du, egia bihurtzeko daren lagunduz.

Zentzu horretan baieztatu daiteke hain erratia dela teoria eta praktika, pentsamendua eta egintza, hizkuntza eta ideologia bereiztea, nola den edukien irakaskuntza eta horiek ikasteko prozesuaren subjektu bihurtuz joan dadin hezigaiari deitzea bereiztea. Ikuspegi aurrerako batean egin behar dudana da edukien irakaskuntzaren eta zer den eta nola ikasi behar denaren irakaskuntzaren arteko batasun dinamikoaren esperimendua. Matematikak irakatsiz nola ikasi eta nola irakatsi ere irakasten dut, baita ezagutza sortzeko ezinbestekoa den jakin-min epistemologikoa nola egikaritu ere.

3.7. IRAKASTEAK HEZKUNTZA IDEOLOGIKOA DELA BERREZAGUTZEA ESKATZEN DU

Irakaslearen jardueraren hezitzailearen era berean oinarritzeko jakitea da, ideologiaren indarrari dagokiona, batzuetan uste dugun baino handiagoa. Haren amarruen, haren tranpen berri ematen diguna da. Izan ere ideologiak zerikusi estua du gertakariaren datuak estaltzearekin, "miope" bihurtzen gaituen une berean errealtatea erdi-itzaleratzeko edo opakutzeko.

Ideologiaren ahalmenak pentsarazten dit behe-lainozko goiz lanbrotso horietan, zeinetan nekosten islak gaizki ikusten baititugu, itzalak berak baino ere mantxak areago diruditenak. Badakigu zerbait dagoela erdi-itzaletan sartua baina ez dugu ongi nabarmentzen. Jasaten dugun "miopiak" berak zailtzen du itzala garbiago, gardenago hautematea. Baina serioa da oraindik ikusten eta entzuten duguna egiazki den hori dela otzanki onartzeko ahal-atasuna, eta ez egia distorsionatua. Ideologiak daukan errealtatea erdi-itzaleratzeko, "miopizatzeko", gortzeko ahal-atasunak, adibidez, gutako asko eramaten gaitu munduko langabezia mende-amaierako zorigaitz bat dela aldarrikatzen duen diskurtso zinikoki fatalista neoliberalak otzanki onartzera. Ametsak hil egingo direla eta baliozko gaurra "pragmatismo" pedagogikoa dela, hezigaiaren trebaketa tekniko-zientifikoa eta ez jadanik aipatu ere egiten ez den bere formazioa. Formazio hori, prestakuntza tekniko-zientifikoa bere baitan duelarik, hura gainditzeko duen zerbait da.

Ideologiak duen gu *biguntzeko* gaitasunak batzuetan otzanki onarrazten digu ekonomiaren globalizazioa bere asmakari bat dela edota eragozterik ez dagoen patu batena, entitate kuasi-metafisiko batena eta ez boterea eskuetan daukatenean interesek diktaturiko halako orientazio politiko jakin baten garapen ekonomikoaren azpian dagoenaren une batena, ekoizpen ekonomiko kapitalista guztia bezala. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren globalizazioaz mundu-ekonomiaren derrigorrezko une batez, hain zuzen ere horrexegatik itzuriezinezko den batez bezala hitz egiten da. Sistema kapitalistaren datu bat eta zenbait ekonomia kapitalista hegemonikoren ekoizpen-bizitzako une bat unibertsalduta egiten da, Brasilek, Mexikok edo Argentinak ekonomiaren globalizazioan berdin esku hartu beharko balute bezala Estatu Batuak, Alemania edo Japoniak bezala. Itsasten da trena bidearen erdian eta ekonomia desberdinen lehengo eta oraingo baldintzak ez dira eztabaidatzen. Ekonomia desberdinen arteko betebeharrak neurri berak ezartzen zaizkie kontuan hartu gabe indartsuen "eskubideen" eta horiei etekina ateratzeko ahalmenaren eta ahulek beren eskubideak baliarazteko duten ezintasunen arteko distantziak. Baldin eta globalizazioak mugak gainditzeko inplikatzeko badu, merkataritza librea inolako murrizpenik gabe irekitzea, erresistitu ezin denean bukatzen da. Ez da ikertzen, adibidez, ea gaur egun globalizazioa lideratzen duten gizarteetan ekoizpen kapitalistako aurreko uneetan hain radikalak ziren, orain ezinbesteko baldintzatzat daukaten irekitasunarekiko. Une honetan besteak eskatzen diete, beren buruarekin egin ez dutena. Beren ideologia fatalistaren ondorioetako bat da mendekoturiko ekonomietako kaltetuei sine-

tsaraztea errealitatea horrelakoxea dela, ez dagoela zer eginik gertakarien ordena naturalari jarraitzea baizik. Zerbait naturala edo kuasi-naturala bailitzan globalizazioa ulertarazten saiatzen da ideologia neoliberala, eta ez ekoizpen historiko bezala.

Etikaz hitz egiten duen globalizazioaren diskurtsoa ezkutatu egiten du, hala ere, bere etika merkatuarena dela eta ez gizakiaren etika unibertsala, eta horren alde borroka egin behar dugula baldin eta jendezko mundu baten aldeko aukera egiten badugu. Globalizazioaren diskurtsoak maltzurki estaltzen du edota erdi-itzaletan uztea bilatzen du, nahiz eta aldatua, kapitalismoa Historian ageri duen ezin gehiagoraino intentsifikaturiko makurkeria izaragarriaren berredizioa egitea. Globalizazioaren diskurtso ideologikoa desgisatzen ahalegintzen da banaka batzuen aberastasuna sendotzen eta milioien pobrezia eta miseria bertikaltzen ari dela. Sistema kapitalistak neoliberalismo globalizatzailean bere baitako makurkeriaren eraginkortasunik handiena lortzen du.

Espero dut, Berlingo harresiaren aurrean aurpegiari gelditzen zaion txundimena pasaturik iritsiko dela garaia mundua berregin eta bere lukro-etikaren perbertsitatean oinarrituriko merkatuaren diktadura errefusatuko duena.

Ez dut uste munduko emakume eta gizonek, beren aukera politikoak aparte utzita, baina emakume eta gizon direla, jende direla jakinez eta asumituz sakonduko ez dutenik gaur egun jadanik txarkeria neoliberalaren aurrean orokortzen ari den ondorez mota baten erara existitzen den hori. Ondorez hori errebeldia berri batean sendotuko da, zeinetan hitz kritikoa, diskurtso humanista, konpromiso solidarioa, gizonaren eta emakumearen ukapenaren salaketa suharra eta "jendeturiko" mundu baten iragarpena helmen kalkulaezineko armak izango baitira.

Duela mende bat eta erdi Marx eta Engelsek langile-klaseen batasunaren aldeko aldarria egiten zuten haien ustiapenaren aurka. Orain, beharrezkoa eta premiazko bihurtzen dira jendeen batzea eta erreboltatzea menperatzen gaituen mehatxuaren pean, gu geu ukatzen baikaitu, merkatuaren etikaren "uzutasunaren" menpean gauden gizaki gisara.

Zentzu horretan inoiz ez dut alde batera utzi neure lehen kezka, beti aldean erabili dudana, neure esperientzia hezitzailearen hasieratik. Giza izaerarekiko³¹ neure kezka, berari zor baitiot neure leialtasun beti aldarrikatua. Marx bera irakurri baino lehen, neure egiten nituen haren hitzak: ordurako neure radikaltasuna erroturik neukan giza interes legitimoen defentsan. Ez dago eraldakuntza politiko-sozialaren teoriarik hunkitzen nauenik, ez bada gizona-gandik eta emakumeagandik abiatzen Historia egiten duten izaki diren heinean eta berak Historiak eginak diren heinean, erabaki-haustura-, aukera-izaki. Izaki etikoak, ezinbesteko etika transgreditzeko gai diren izakiak, behin eta berriz testu honetan dagoeneko aipatu dudan zerbait dena. Behin eta berriz esan eta berresana daukat zenbat pozten nauen izaki baldintzatua baina neure baldintzamendu hori gaingiditzeko gai naizela jakiteak. Errebeldia berria euskarritzeko indar handia gizakiaren etika unibertsala da eta ez merkatuarena, jendeen eskari orekiko sentigaitz eta lukroaren gutziara bakarrik irekia. Giza solidaritatearen etika da.

Nahiago dut kritikatu izatea idealista eta ameslari porrokatutzat, atzera egin gabe, giza-kiaren alde apostu eginez jarraitzeko, eta bere etika propioa transgreditzen duenaren eraso erasokor eta bidegabeen aurka defendituko duen legeria baten alde borroka egin. Merkataritzaren askatasuna ezin daiteke gizakiaren askatasunaren gainetik egon. Mugarik

31. Ikusi FREIRE, Paulo. *Pedagogia da Esperança. Cartas à Cristina e Pedagogia do Oprimido*. Rio de Janeiro, Paz e Terra.

gabeko merkataritzaren askatasuna lukroaren lizentziatasuna da. Gutxi batzuen pribilegio bihurtzen da, aldeko baldintzetan, askoren eskubideen aurka, bizirauteko eskubidearen beraren aurka ere bai, bere boterea sendotzen duena. Asiar ekoizpenarekiko lehiakor ezin izateagatik ateak ixten dituen ehun-fabrika batek, adibidez, ez du esan nahi giza etika unibertsalaren transgresore izan zitekeen edo ez bere jabearen porrot ekonomiko-finantzarioa bakarrik, baizik eta ekoizpen-prozesutik ehundaka langile kanporatuak izatea. Eta horien familiak? Berriz diot, daukadan indarrarekin eta determinismoen neure errefusatze suharrean bil dezakedanarekin, murriztu egiten baitute gure presentzia errealtate historiko-sozialean harekiko moldaera huts izateraino. Munduko langabezia ez da, esan eta errepikaturik daukadanez, halabeharra. Areago da ekonomiaren globalizazioa eta aurrerapen teknologikoen emaitza, zeini falta baitaio gizakiaren zerbitzuan benetan egongo den etika baten *izan beharra* eta ez munduan agintzen duen gutxiengoaren gutizia hesigabearen eta lukroarenean.

Giza interesei, gure existentziako beharriaz gertatu den erantzuten ez dien aurrerapen zientifiko eta teknologikoak galdu egiten du niretzat bere esanahia. Edozein aurrerapen teknologikori egokitu beharko litzaiokie berehalako erantzunaren ahalegin erreala, gizonezkoen eta emakumezkoen bizi-poza arriskuan jar lezaketen edozein erronkari. Milaka emakumezko eta gizonezko beren lana galtzeko mehatxuarean jartzen dituen aurrerapen teknologikoari beste aurrerapen teknologiko bat egokitu beharko litzaiokie aurreko aurrerapenaren biktimak laguntzearen zerbitzuan egongo litzatekeena. Ikusten denez, hau auzi etiko eta politikoa da eta ez teknologikoa. Arazoari oso argi eta garbia deritzot. Beste batzuen egin eta izateko askatasuna murrizteko gauzak egin, ikertu, ibili, jardun eta kritikatzeko neure askatasuna erabili ezin dudana bezala, horrela, bada, ez luke libre izan behar milaka pertsona etsipenera eramaten dituzten aurrerapen zientifiko eta teknologikoak erabiltzea. Kontua ez da, gehi dezagun, bilaketa inhibititu eta aurrerapenak geldiaraztea baizik gizakien zerbitzuan horiek jartzea. Milaka pertsonaren sakrifizioarekin aurrerapen teknologikoak aplikatzea beste adibide bat gehiago da zer puntutaraino izan gaitezkeen etika unibertsalaren transgresore eta zenbat egiten dugun etika txikiaren, merkataritza, lukroaren alde.

Gizakiaren etika unibertsalaren kontrako transgresioen artean, zigorpekoen artean, ezin zenbatu ahala jenderentzat langabezia, haien etsipena eta haien bizitzako heriotza inplikatzeko duenak egon beharko luke.

Horrexegatik, ardura, parentesi artean jarritakoen jarduera praktikoa berrorientatzeko gai den formazio tekniko-profesionalarekin, biderkatu egin beharko litzateke.

Argi eta garbi utzi nahiko nuke ia ez dudala imajinatzen baina badakidala zeinen zaila den giza garapenaren politika bat, horrela, gizonezkoa eta emakumezkoa funtsean pribilegiatuko dituen eta ez lukroa bakarrik. Baina zera ere badakit, gauden krisia benetan gainditu nahi badugu, bide etikoak bere burua ezarriko duela. Ez dut ezertan sinesten hura gabe eta hartaz kanpo. Baldin eta, alde batetik, ezinezkoa bada lukrorik gabeko garapenik, hori ezin daiteke izan, bestalde, garapenaren helburua, zeinen azken xedea inbertitzailearen gozamen inmorala izango bailitzateke.

Ezertarako ez du balio, azkenean iraungiko litzatekeen gutxiengo batentzat engainuz izan ezik, makina guztiz "adimentsuek" eraginkorki kudeaturiko gizarte batek, emakumezko eta gizonezkoak jarduera bariatuenetan ordeztuz, eta milioika Mari eta Peru zer eginik gabe; hau aurrean daukagun arrisku oso konkretua dugu³².

32. MOERMANN, Joseph. Le Courrier – 8 Août, 1996 – Suisse. La globalization de l'économie provoquera-t-elle un mai 68 mondial? – La marmite mondiale sous pression.

Baina ez dut uste espiritu etiko horri haragia eman behar dion politika inoiz diktatoriala izan daitekeenik, kontraesan ezkerreko edo koherenteki eskuineko. Bide autoritarioa bere horretan jadanik bada askatasuna galtzen duten edo galduko duten gizon eta emakumeen izaera kezkatuki ikertzaille, bilatzaileari egindako kontrabentzioa.

Hain zuzen ere horregatik guztirengatik, irakasle bezala, oharturik egon behar dut diskurtso ideologikoaren botereaz, ideologiaren heriotza aldarrikatzen duenetik hasita. Egia esan, ideologikoki bakarrik hil ditzaket ideologiak, baina baliteke ez hautematea haien heriotzaz mintzo den diskurtsoaren izaera ideologikoa. Funtsean, ideologiak pertsuasio-ahalmen ezta-baidea du. Diskurtso ideologikoak gogamena anestesiatze-mehatxua egiten digu, jakin-mina nahastekoa, gertakari, gauza, jazoeren pertzepzioa distortsionatzekoa. Ezin dugu entzun, erreakzio kritikoa apurrik gabe, hau bezalako diskurtsoak:

“Beltza genetikoko zuriaren azpitik dago. Tamalgarria da, baina hori da zientziak dioskuna”.

“Bere ohorearen defentsan, senarrak emaztea erail zuen.”

“Zer espero genezake horiengandik, liskarzale, lur-inbaditzaile horiengandik?”

“Jende hori beti horrelakoa da: oinak ematen dizkiogu eta gero eskuak nahi dituzte.”

“Guk badakigu herriak zer nahi duen eta behar duen. Galdetzea denbora alferrik galtzea litzateke.”

“Masa landugabeen eskuetan utzitako jakite aditua da beren salbamena.”

“Maria beltza da, baina ona eta gaitua.”

“Tipo hori jatorra da. Nordestinoa da, baina serio eta zerbitzaria.”

“Zuk ba al dakizu norekin ari zaren hizketan?”

“A zer lotsa, gizonezkoa gizonezkoarekin ezkondu, emakumezkoa emakumezkoarekin ezkondu.”

“Hori da, jendailarekin sartu zara, eta hara zer gertatzen den.”

“Beltzak sarreran zikintzen ez duenean, irteeran zikintzen du.”

“Gobernuak inbertitu egin behar du zergak ordaintzen dituen jendea bizi den guneeetan ere.”

“Zuk ez daukazu pentsatu beharrik. Emaiozu botoa urliari, zure orde zentsatzeko baitu.”

“Langabezia zauden hori, izan zaitetz esker oneko. Emaiozu botoa lagundu zizunari. Emaiozu botoa urliari.”

“Nabari zaio, aurpegitik, jende prestua dela, tratukoa, ongi hezia eta ez edonolako erreus bat.”

“Irakasleak Meatzarien Fidakaiztasunaz hitz egin zuen.”

“Cabralek aurkitu zuen Brasil.”

Ideologiaren botere amarrutsuarekiko nire erresistentziaren ariketa kritikoan nire irakas-jarduerarako ezinbesteko jakituria bihurtzen ari diren kualitate batzuk sortzen ari naiz. Erresistentzia kritiko honen beharrianak, adibidez, besteenganako, errealitateko datuekiko jarrera beti ireki batera aurreprestatzen nau, alde batetik, eta bestetik, fidakaiztasun metodi-

ko batera, ziurtasunez erabat ziur egotetik defenditzen bainau. Ideologiaren trikimailuetatik nere burua gordetzeko ezin dut eta ez dut itxi behar neure burua besteengana ezta neure burua neure egiazen zikloan klausuratu ere. Aitzitik, nire ziur pentsatzeko, zorroztasunez ikusteko, errespetuz entzuteko, horregatik era exijentean, eta desberdintasunen aurrean zabalik jartzeko gaitasuna bizirik eta erne gordetzeko biderik hoberena egiazen jabetzat neure burua onartzen dudan posizio dogmatikoak errefusatzeari da. Barrenean, egiazen jabe sentitzen ez denaren jarrera zuzena, ezta autoritarioki egiten zaion inoren diskurtsoaren objektu moldatu ere. Jarrera zuzen hori etengabe eskura dagoenarena da ukitzeko eta ukitua izateko, galdetu eta erantzuteko, ados egon eta ados ez egoteko. Bizitzaren eta bertako ezbeharren eskura. Eskura egotea sentibera egotea da iristen zaizkigun deietara, txoriaren kantura, ari duen eurira edo hodei ilunean iragartzen den horretara, errugabetasunaren irribarre otzanera, desonarpenezko aurpegi kopetilundura, abegi egiteko zabaltzen diren besoetara edo errefusatzeko ixten den gorputzera. Bizitzarako neure prestutasun iraunkorrean ematen dut neure gorputz osoa, pentsatze kritikoa, emozioa, jakinmina, desira, neu izaten izaten ikasten ari naizena kontrarioarekiko neure erlazioan. Eta zenbat eta gehiago entregatzen naizen beldurrik gabe desberdintasunak tratatzeko esperientziara, hainbat hobeki ezagutzen dut neure burua eta eraikitzen dut neure profila.

3.8. IRAKASTEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTUTASUNA ESKATZEN DU

Besteekiko, nik egin ditudan aukerak derrigor egin ez dituztenekiko neure erlazioetan, politika, etika, estetika, pedagogiako mailetan, ezin naiz abiatu "konkistatu" behar ditudalaketik, kosta ahala kosta, baina ez dut beldurrik haiek ni "konkistatzearenik" ere. Nire eta beraiekiko desberdintasunekiko errespetuan, egiten eta esaten dudanaren arteko koherentzian topo egiten dut beraiekin. Errealitatearekiko neure *prestutasunean* eraikitzen dut neure segurtasuna, neure prestutasunerako ezinbestekoa dena. Ezinezkoa da errealitatearekiko prestutasuna bizi izatea segurtasunik gabe baina ezinezkoa da, halaber, segurtasuna sortzea *prestutasunaren* arriskutik kanpo.

Irakasle naizenez ez dut galdu behar abagunerik gai bat eztabaidatzean, gertakari bat aztertzean, gobernuaren erabaki baten aurrean neure posizioa azaltzean portatzen naizen segurtasunaren testigantza emateko. Nire segurtasuna ez datza dena dakidalako, "heldua" naizelako uste faltuan Nire segurtasuna oinarritzen da zerbait dakidalako ustean eta zerbait ez dakidalakoan, zeini elkartzen baitzaio jadanik badakidana hobeki jakin eta oraindik ez dakidana ezagutu dezakedalako ziurtasuna. Nire segurtasuna euskarritzen da esperientziak berak berretsiriko jakitean: kontziente naizen nere bukatugabetasunak, alde batetik, nire ezjakintasuna testigatzen du, eta bestetik, ezagutzeko bidea irekitzen dit.

Ziur sentitzen naiz zerbait ez ezagutzeagatik ez baitago lotsatzeko arrazoirik. Besteenganako irekitasuna testigatzea, biziizarako, haren erronketarako prestutasun jakinguratsua jarduera hezitzailearentzat beharrezko jakiteak dira. Besteenganako irekitasun errespetuzkoa eta, noizean behin, unearen arabera, besteenganako norbere irekitasunaren praktika gogoe-ta kritikoko objektu bezala hartzeak irakas-abenturaren parte izan beharko luke. Abenturaren arrazoi etikoa, bere oinarri politikoa; hartan dagoen edertasuna elkarriketaren bideragarritasun bezala. Irekitasunaren esperientzia, azkenean, bere burua bukatugabe jakiteagatik izaki bukatugabearen esperientzia fundatzaile gisa. Ezinezkoa litzateke nor bere burua bukatugabe jakitea eta ez irekitzea mundura eta besteengana galdera askorentzat azalpena, erantzunak bilatzeko. Mundura eta besteenganako itxitasuna transgresio bihurtzen da ezosotasunaren bulkada naturalarekiko.

Mundura eta besteengana irekitzen den subjektuak inauguratu egiten du bere keinuarekin erlazio dialogikoa, zeinetan berresten baita kezka eta jakinmin bezala, Historian etengabeko mugimenduan dagoen inkonklusio bezala.

Behin batean, São Pauloko udal-sareko eskola batean, lau eguneko bilera bat egiten ari nintzen guneko hamar eskolako irakasleekin haien jarduera pedagogikoak komunean planeatzeko eta eskolaren ingurumarien argazkiak erakusten zituen areto bat bisitatu nuen. Kale lokatzatuen, eta kale ongi atonduen argazkiak. Tristura eta zailtasunak iradokitzen zituzten txoko itsusien argazkiak. Zailtasunarekin ibili zebiltzan gorputzak, astiro, abaildurik, aurpegi deseginekin, begirada galduarekin. Nire atzealdean bi irakasle iruzkinak egiten ari ziren zegokienaz baina hurbiletik. Bat-batean haietako batek esan zuen: "Hamar urte dira eskola honetan irakasten dudala. Sekula ez dut ezer jakin honerako bidez harantzago dagoen ingurumariaz. Orain, testuingurua pixka bat erakusten digun argazki-erakusketa hau ikustean³³, konbentzitu egin naiz zeinen suntsikorra izan bide den nire ataza formatzailea urte horietan guztietan. Nola irakatsi, nola formatu hezigaien ingurune geografiko, sozialera irekita egon gabe?"

Irakasleen formazioak azpimarratu egin behar zuen jakite beharrezko hori eratzen, zeinek begibistakoa den gauza horretaz ziurtasuna ematen baitit, bizi garen ingurune ekologiko, sozial eta ekonomikoak garrantzi ukaezina duela guregan. Eta eragin horren jakite teorikoari irakasleok lan egiten dugun errealitate konkretuko jakite teoriko-praktikoa erantsi beharko genioke. Badakit, ez dago zalantzarik, hezigaiak bizi direla dakidan baldintza materialek baldintzatu egiten die beren munduaren ulerkuntza, ikasteko beren gaitasuna, erronkei erantzutekoa. Beharrezkoa dut, orain, jakitea edo ikasle horien errealitatera irekitzea, zeinekin partekatzen baitut neure jarduera pedagogikoa. Beharrezko zait bihurtzea, haien izateko moduaren erabat intimo, gutxienez, ez hain arrotz eta urruneko hartatik. Eta nire arrotzasuna edo nire distantzia gutxitzea nire ikasleak bizi diren errealitate etsaikorretik ez da geografia hutseko auzia. Horien jende-proiektuaren errealitate ukatzailearekiko nire irekitasuna nire aldetik haiekiko, haien izateko eskubidearekiko atxikitze errealeko auzia da. Favela batera bizi izatera joanez ez diet erakutsiko neure egiazko solidaritate politikoa, aipatu gabe oraindik halako eraginkortasun baten galera nire borrokan aldaketarengatik berarengatik. Nire erabaki etiko-politikoa da funtsezkoa, batere mengela ez den munduan esku hartzeko nire borrontea. Amilcar Cabralek "klase-suizidio" deitu zuena da eta *Zapalduaren Pedagogia* obran *pazkoa* edo *iragaitza* bezala aipatu nuena. Barrenean, laburtu egiten dut ustiatuak bizi diren baldintza madarikatuetatik urruntzen nauen distantzia, justizia-ametsari benetan atxikiz, munduaren errotiko aldaketaren alde borrokatzen naizenean eta hura noiz iritsiko zain gelditzen ez naizenean iritsiko omen dela diotelako. Laburtu egiten dut distantzia nire eta ustiatuen bizi-moduaren gogortasunaren artean ez diskurtso amorratu, sektarioekin, bai baitakit ez direla eraginkorrak oraindik gehiago zailtzen dutelako zapalduetikiko nire komunikazioa. Neure ikasleei dagokienaz, laburtu egiten dut haien bizi-baldintza negatiboetatik bereizten nauen distantzia edozein jakite ikasten laguntzen diedan neurrian, tornularitza edo zirujautza, mundua aldatzeko, egitura injustuak gainditzeko asmoarekin, inoiz ez hura mugiezintzeko asmoarekin.

Iragaitzaren jakite euskarritzailea, nire eta ustiatuen errealitate makurraren arteko distantzia laburtzearen bila etikan oinarrituriko jakitea da, ezerk ez duela legitimatzen gizonak eta emakumeak beste gizon eta emakume batzuek ustiatzea. Baina jakite hori ez da aski. Lehenbizi, beharrezko da hori grina gartsu batek ukitu eta bultzatzea, ia jakite suhar bihurtzen duelarik. Halaber, beharrezko da hari gehi dakizkion errealitate konkretuko ideologiaren

33. Erakusketa osatzen zuten argazkiak arloko irakasle-talde batek egindakoak ziren.

indarreko beste jakite batzuk; jakite teknikoak, alor batean baino gehiagotan, komunikazioaren esaterako. Nola azaleratu egia ezkutatuak, nola desgisatu fartsa ideologikoa, aise erortzen garen tranpa moduko horretan. Nola aurre egin mediaen ahalmen apartekoari, telebistako hizkuntzari, plano berera iragana eta orainaldia murrizten dituen eta oraindik egin gabekoa eginda dagoela iradokitzen duen horren "sintaxia"ri. Areago, albistegian tematikak desberdintzen ditu gai desberdinei buruz gogoeta egiteko astirik utzi gabe. Miss Brasili buruzko albiste batetik Txinako lurrikara batera pasatzen da; zuzendari eskrupulugabeek xahaturiko banku bat tartean dagoen eskandalu batetik Zurichen deskarrilatu den tren baten eszenak ditugu.

Mundua laburtu egiten da, denbora diluitu: lehena orainaldi bihurtzen da; biharra jadanik egina dago. Dena oso laster. Telebistan esaten dena eta erakusten dena eta nola erakusten den eztabaidatzea gero eta gauza garrantzitsuagoa iruditzen zait.

Hezitzaile aurrerakoi gisa ezin dezakegu telebista alde batera utzi, erabili, eta batez ere, eztabaidatu egin behar dugu.

Ez daukat inozo-itxura hartzeko beldurrik behin eta berriz esaten badut ez dela posible pentsatu ere egitea telebistan kontzientzia kritikoaren auzia buruan eduki gabe. Zeren telebistan edo mediaetan orohar pentsatzeak komunikazioaren arazoa aurkezten digu, neutroa izatea ezinezkoa zaion prozesuarena. Egia esan, komunikazio oro zerbaiten komunikazio da, era jakin batean egina zerbaiten edo norbaiten aurkako ideal baten alde edo defentsa, sotil edo espliziturako, nahiz eta beti argiro adierazita ez egon. Hortik ideologiak komunikazioan jokatzen duen paper araztua, egiak estaliz baina baita prozesu komunikatiboko ideologizazioa bera ere. Inozokeria galanta izango litzateke botere-talde nagusikoien telebista-emisore batengandik, metalurgikoen greba baten berri emanez, esatea bere iruzkina *ugazaben* interesetan oinarritzen dela. Aitzitik, bere diskurtsoak ahaleginak egingo ditu konbentzitzen grebaren bere analisiak *nazio-interesak* hartzen dituela kontuan.

Ezin gara jarri telebista-aparatu baten aurrean datorrenarekiko "bigun" edo "prestu". Zenbat eta gehiago eseri telebistaren aurrean –badira salbuespeneko egoerak– oporretan atsedean huts edo jostaketara irekitzen denarena bezalakoak, hainbat arrisku handiagoa daukagu gertakari eta jazoeren ulerkuntzarekin behaztopatzeko. Ezin da falta beharrezko uneetan jarraera kritiko eta ernea.

Botere nagusikoak, beste askoren artean, abantaila bat dauka gure aldean. Izan ere, Mediaetako bere mezuan tarteko den amarru ideologikoari aurre egiteko, bai albistegietan, bai jazoerei egindako iruzkinetan edota saio batzuetako lerroan, propaganda komertzialaz ez hitz egitearren, gure buruak edo gure jakinminak epistemologikoki funtzionatu beharko luke denbora guztian. Eta hori ez da erraza. Baina, erraza ez bada etengabe alerta-egoeran egoitea, litekeena da jakitea deabru bat izan gabe zelatatu egiten gaituela zanpatzeko, aurrean daukagun telebista ez dela salbatzen gaituen tresna. Agian hobe izan liteke batetik hamarreara zenbatzea Wright Millsek³⁴ aipatzen duen baieztapen kategorikoa egin aurretik: "Egia da, zortzietako albistegian entzun dut."

3.9. IRAKASTEAK HEZIGAIEI ONGI NAHI IZATEA ESKATZEN DU

Eta zer esan, baina batez ere zer espero izan nigan, baldin eta, irakasle bezala, beste jakite horrek harturik ez banago, ongi nahi izatearen gustura irekita egon behar delako-

34. Mills, Wright. *A elite do poder*.

ak, batzuetan, hezigaiei ongi nahi izateko kuraiara eta partaide nauen jarduera hezitzaileera berera. Ongi nahi izateari irekita egoteak ez du esan nahi, egia esan, irakasle naizelako, ikasle guztiei era berean nahi izatera behartzen dudarik neure burua. Esan nahi du, izatez, afektibitateak ez nauela ikaratzten, ez dudala adierazteko beldurrik. Ongi nahi izatera irekita egote horrek esan nahi du hezigaiekiko neure konpromisoa benetan zigilatu behar dudala, gizakia- ren jarduera berezi batean. Egia esan, faltsutzat baztertu beharra daukat irakasteko *seriotasuna* eta *afektibitatearen* arteko banakuntza radikala. Ez da egia, batez ere ikuspegi demokratikotik, hainbat irakasle hobea izango naizela, zenbat eta zorrotzagoa, hotzagoa, urrunago eta "grisa" go jarri ikasleekiko neure harremanetan, irakatsi beharreko objektu eza- gugarriekiko tratuan. Afektibitatea ez dago ezagugarritasunetik bazterturik. Inondik ez deza- ket onar nire afektibitateak neure irakasle-eginbeharraren betekizun etikoan interferitzea nire autoritatearen ariketan. Ezin dut baldintzatu ikasle baten eskola-lanaren ebaluazioa berorren- ganako izan dezakedan ongi nahi handiago edo txikiagoaren baitan.

Ongi nahi izatearekiko nire irekitasunak bizi-pozarekiko nire prestutasuna adierazten du. Bizi-poz justua, osoki asumiturik, ez didana uzten izaki "beraxka" bihurtzen ezta izaki arista- su eta garratz ere.

Irakas-jarduera berez esperientzia pozgarria da. Faltsua da, halaber, irakasteko seriotas- una eta poza uztaezintzat hartzea, poza zorrotzasunaren etsaia balitz bezala. Aitzitik, zen- bat eta metodikoki zorrotzago bihurtzen naizen neure bilaketan eta neure irakaskuntzan, hainbat alaiago eta esperantzatsuago ere sentitzen naiz. Poza ez da aurkikuntzarekin topo egitean bakarrik sentitzen, baizik eta bilaketa-prozesuaren parte da. Eta irakastea eta ikastea ezin dira gertatu arduraz, edertasunaz eta pozaz kanpo. Hezkuntza, hezigai, hezitzaileekiko errespeturik ezak endekatu edo narriotu egiten du gugan, alde batetik, sentsibilitatea edo norbere jarduera hezitzaileareko ongi nahi izaterako irekitasuna, bestetik, irakaskuntzako zereginak beharrezko duen pozera. Ohargarria da nolako gaitasuna duen esperientzia peda- gogikoak ongi nahi izateko zaletasuna eta bizi-poza gugan iratzarri, estimulatu eta gartzeko, eta hori gabe jarduera hezitzaileak zentzua galtzen du. Eta indar misteriotsu horrek, batzue- tan bokazio deituak, horrek esplikatzen du irakasleen gehiengo batek ia debozio moduko batekin horretan irautea, soldaten inmoralkeria gorabehera. Eta ez du irauan bakarrik egiten, bete egiten du, ahal duen bezala, bere betebeharra. Maitasunez, eransten diot.

Baina beharrezko da, azpimarratzen ari naiz, iraunez eta bere eginbeharra betez, politikoki borroka egiteari ez uztea, bere eskubideen eta bere atazaren duintasunari zor zaion errespe- tuaren alde, baita bere ikasleekin ari den pedagogiguneari zor zaion zeluairengatik ere.

Beharrezko da, bestalde, behin eta berriz gogoratzea ez dela pentsatu behar jarduera hezitzailea afektibitate eta pozarekin bizi izanak alde batera uzten duenik prestakuntza zienti- fiko serioa eta hezitzaileen argitasun politikoa. Jarduera hezitzailea hori guztia da: afektibita- tea, poza, gaitasun zientifikoa, aldaketaren edo, tamalez, gaurkoaren iraupenaren zerbitzuko domeinu teknikoa. Gaurkoaren iraupen neoliberal hori da hain zuzen ere "Historiaren herio- tzaren" diskurtsoan dagoen ideologiak proposatzen duena. Gaurkoaren iraupena, horretara murrizten baita etorkizun desproblematizatu. Hortik dator ideologia horren izaera desespe- rantzatu, fatalista, antiutopikoa, zeinean lantzen baita teknika hotzeko hekuntza eta hezitzaile gailena behar da mundura egokitzearen eta ez eraldatzearen zereginerako. Formatzailetik oso gutxi duen hezitzailea, bezatzaile, jakite-transferitzaile eta trebezien eragiletik askozaz gehiago duena.


Hezitzaile "pragmatiko" honek bere jardueran behar dituen jakiteak ez dira liburu hone- tan aipatzen ari naizenak. Niri ez dagokit horietaz, hezitzaile "pragmatiko" neoliberalari dagozkion jakiteez hitz egitea, baizik halakoaren jarduera anti-humanista salatzea.

Hezitzaile aurrerakoia konbentziturik egon behar du nola den bere ondoretako bat bere lana giza berezitasun bat delakoaz. Dagoeneko ikusita daukagu hezkuntzaren giza kondizio fundatzailea hain zuzen ere kontziente bihurtzen garen gure izaki historikoaren bukatugabetasuna dela. Gizakiarekiko errespetua, bere hobekuntza fisiko eta morala, bere adimena ekoiztua eta desafiaturik dena, bere hazkuntzarako eragozpenak, munduaren edertasuna edo itsusitasunaren alde egin dezakeen guztia, menperatzen duen dominazioa, borroka egin beharreko askatasuna, gizonezko eta emakumezkoen zerkusia duen guztia, ezer ez dakioke pasa oharkabean hezitzaile aurrerakoia. Berdin dio zein adinetakoekin ari den lanean hezitzailea. Gure lana sarritan jende gazte edo helduarekin burutzen da, baina etengabeko bilaketa-prozesuan dagoen jendearekin egina da. Formatzen, aldatzen, hazten, berrorientatzen, hobetzen ari den jendea, baina jende delako baloreak ukatzek, distortsionatzeko, atzera egiteko, transgreditzeko gai dena beste edozein jarduera profesionalerikiko ez goragokoa ez behegokoa izaki, nire, irakas-praktika dena, erantzunkizun etikozko maila garaia eskatzen du nigan, zeinaren parte baita nire gaitasun zientifikoa bera ere. Jendearekin dut nik tratua. Horregatik, hain zuzen ere, amets eta utopien ukatzailea den diskurtso ideologikoaz aparte, hezigiaren ametsekin, esperantza herabietekin, batzuetan, baina beste batzuetan indartsuekin tratatzen dut nik. Ezin badut, alde batetik, amets ezinezkoak estimulatu, bestetik, ez dut, amets egiten duenari amets egiteko eskubidea. Jendearekin tratatzen dut eta ez gauzekin. Eta jendearekin tratatzen dudalako, ezin dut, nahiz eta batzuetan atsegina ematen didan gogoeta teoriko-praktikoan aritzeak jarduera irakasle-ikaslearen inguruan, ezin diot uko egin neure arreta dedikatu eta maitakorra ikasle honen edo haren arazo pertsonalagoetara zuzentzeari. Irakaskuntzako denbora normalari kalte egiten ez dion bitartean, ezin dut neure burua itxi sufrimendua edo kezken aurrean terapeuta edo gizarte-laguntzaile ez izateagatik. Baina jende naiz. Hori bai, arrazoi etiko eta errespetu profesionalerengatik, ezin dezaket terapeutatzat neure burua pasarazi. Ezin dut ukatu neure jende-kondizioa, zeinetatik luzatzen baita, neure giza irekitasunarengatik, halako dimentsio terapeutiko bat. Horretaz konbentziturik, gaztetandik, neure etxetik aldegin nuen ikasleak, neure jarduera hezitzailearen partaideak aurkitzen ditudan pedagogogunera. Beti jende-jarduera bezala ulertu izan dut jarduera hezitzailea. Jende bukatugabea, jende jakinguratsua, adimentsuarena, jakin dezakeela badakien jendearena, eta horregatik jakin gabe egon daitekeenarena, etikarik gabe pasatu ezin duelarik kontraesankor bihurtu eta hura transgreditzeko gai bihurtu denarena. Baina inoiz idealizatu ez badut jarduera hezitzailea, noiz edo noiz ikusi izan badut ere, gutxienez, aingeruen egitekoaren antza zeukan zer bait bezala, sekula ez da urria izan nigan gehiago izateko traba egiten diguten desbideen aurka borroka egitea merezi duen ziurtasuna. Jakina, etengabe ziurtasun horri eusten lagundu izan didana Historia ahaltsun bezala ulertzea da eta ez determinismo bezala, derrigor nabarmentzen dela Historian subjektibitatearen paperaren garrantzia, konparatzeko, analizatzeko, ebaluatzeko, erabakitzeko, hausteko gaitasuna eta horregatik guztiarengatik, etikaren eta politikaren garrantzia.

Izaki "programatu, baina ikasteko" gisa gizon eta emakumeak hautemateak eta, beraz, irakatsi, ezagutu, esku hartzeko, horrek ulertarazten dit jarduera hezitzailea eta hezigiaren autonomia ekoizti eta garatzearen aldeko etengabeko ariketa bezala. Jarduera hertsiki giza-tiar bezala inoiz ezin izan dut ulertu hezkuntza esperientzia hotz, arimagabe bezala, zeinetan sentimenduak eta emozioak, desirak, ametsak diktadura razionalista batek menpean eduki beharrekoak baitira. Eta ez dut sekula ulertu ere jarduera hezitzailea esperientzia bezala, zeini zorrotasuna falta baitzaio, beharrezko diziplina intelektual lantzeko.

Sinetsirik nago, hala ere, zorrotzasanak, diziplina intelektual serioak, jakinmin epistemologikoaren ariketak ez nautela derrigor egiten izaki makur, arranditsu, neure buruaz betea.

Edo, beste hitz batzuetan esateko, ez du nire arrandia intelektualak hitz egiten nire zorrotza-sun zientifikoaz. Ez arrandia da gaitasun-seinale, ez gaitasuna da arrandiaren kausa. Ez dut ukatzen, bestalde, arranditsu batzuen gaitasuna, baina horiengan sinpletasunaren absentsia deitoratzen dut, zeinek, beren jakituria batera gutxitu gabe, jende hobe bihurtuko bailituzke. Jende jendeago.



Mario Sergio Cortella brasildarrarekin.